



BAZTANDARREN HITZAREN KONTRA ERDIZKO PROIEKTUARI ARGI BERDEA

Nafarroako Gobernuak Udalez Gaindiko Eragina duen Plana (UGEP) izendatu du Magnesitas Navarras enpresak Erdizen egin nahi duen meategi proiektua, eta neurriak ezinegona sortu du. Baztango Udalak izendapen hori alde batera uzteko eskatu du, baita herritarren artean galdeketa egiteko ere. Erdiz Bizirik taldeak «baztandarren iritziaren kontrakoa» dela salatu du eta proiektuaren kontra alegazio zerrenda aurkeztuko duela gaineratu du. / 50

Haur eskolen doakotasuna hizpide

Heldu den ikasturtetik aitzinera, 0-3 urtekoen zikloa debalde izanen da Nafarroan. Neurria zuhurtziaz hartu dute haur eskoletan. / 11

SINADURAK



Manex Ormazabal Arregi, Ingalaterran robotikan murgildua dabilen zubietarra / 8



Sastinea itxita, tabernarik eta dendarik gabe daude Areson / 46



Euskal Herrian dena irabazita Munduko Txapelketara bidean da Beti Gazte / 58

Panelak-Olanak-Biniloak

Material bereziak obretan informazioa paratzeko

PANELAK

- Neurrira eginak
- Hainbat materialetan
- Formatu handiak
- Izkin borobilduak
- Formekin moztuak
- Iraunkorrak...



ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrek
Lodiera: 3 mm
Koloretan



PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrek
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan



METAKRILATOA
Gardenak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

OLANAK



- Zuloekin izkinetan
- Errefortzu bikoitza
- Formatu handiak
- Mikroperforatuak

BINILOAK

ERROTULAZIOAK

- Neurrira eginak
- Erakusleihoak
- Formekin moztuak
- Furgonetak
- Hainbat materialetan

AZIDOAK



GARDENAK




ELEKTROSTATIKOAK




MIKROPERFORATUAK



MIKROBENTOSAK



POLIMERIKOAK





NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Fase interesgarria

Ilusioz heldu diot bolanteari; Izaro jarri, eta banoa. Lasai dago bidea; halere, biribilgune handi baten inguruan ibilgailuak pilatu dira eta pixka bat esperatu behar da. Bira bat gehiago eman dut seguru ateratzeko. Gidari batek eskua altxata protesta egin dit. Zenbat itxaronarazi diot, segundo bat?

Ekitaldian sartu naiz. Ez da albiste bat emateko ohiko prentsaurreko bat, baizik eta patxadaz solastatzeko aukera bat, mokadu goxoekin. «Ze guay», erranez eseri naiz.

Harritu nau «bueno, luzea izanen da» kegak. Mahaikideak mugikorrari begira daude. Zertxobait luzatu da; ordu erdi? Barkamena eskatu digute. Eskerrak eman dizkiet.

Azkenetarikoa izan naiz ateratzen, berrikeran gelditu bainaiz. Bertzeren artean, Porrotzekin. Hala izendatzen ditu berak bizitzako faseak: *bollito*, interesgarria, oso interesgarria, eta desfasea. Bera oso interesgarrian dago. Ni interesgarrian. Marimototsek dioen bezala, infinituaren zortzi etzan hori ez dago lo, aitzinera doa.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Jateko moduko mokadua

Txoriene, Joseba Argiñano sukalerrian, A Bocados, Baserri Gourmet, Gastronomadak, Tupper Club, Oido Cocina, Juego de Cartas edo *Jateko modukoa* programen ondotik, edonorentzat begibistakoa den gabezia nabarmenari aurre egin eta *Sukaldarien Liga* abiatu du Euskal Telebistak. Agudo Kopa, Superkopa eta Champions League ere etorriko dira.

NABARMENTZEKOAK



AIMAR
JABALERA
ERREMONTISTA



ITSASO
ELIZAGOIEN
TRIKITILARIA

Urtarrilaren 27an egin zuen Oriamendi enpresarekin debuta Aimar Jabalera erremontista doneztebarrak Galarretan. Juanenearekin batera irabaziz hasi du ibilbide berria aurrelariak.

Agurtzane Elustondori lekukoa hartuta, Itsaso Elizagoien Bizente trikitilari etxalartarra izendatu dute Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakari.

GIBELERA BEGIRA



2014-02-07 · TTIPI-TTAPA · 607 zk.

Juan Mari Goñirekin moto-krosaz

Duela 10 urteko aldizkarian Juan Mari Goñi Albistur Beintza-Labaiengo moto-kros gidaria izan zen protagonistetako bat. Hainbat lasterketa egin zen ordurako, eta lehengo Espainiako moto-kros txapelketan parte hartzekoa zen. Txapelketako helburua, proba bakoitzean ahalik eta puntu gehien biltzea zuen gidariak. Gogotsu zen lehian hasteko: «Gauzak zailtzen diren neurrian gehiago eskatzen diozu zeure buruari eta horrek erakartzen nau, lehia atsegin dut. Edozein kirol eginez gero, ez dakit konpetitu gabe egoten». Lesioak izateko arriskua ere izan zuen mintzagai pilotuak: «Kirol guztietan alde txarrean lesioak dira eta motoarekin erraza izaten da lesioak gertatzea edozein erorketan».

erran. eus

Argitaratzailea

Tiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Mailalen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Hamabortz minutu

Lauburu xuri handi bat dute txanoan. Hobeki begiratu dut gero, eta beharbada bi dira. Bat handia, alde batean, eta bertze bat tikiagoa, logoarena berarena: C-N-H hizkiak eta lauburu, kortxo-lerroz eginikoa litekeen X formako gurutze baten lau aldeetan. Murgildu naiz, eta segidan aitzinatu nau umeen txano urdin-ilun bera duen emakume gazte batek. Oraindik pareta ukitu ez dudala berriz heldu da bueltan, tximeleta moduan, ia prizitnik sortu gabe.

Oihuka ari dira kamiseta zurien gainean lauburu eta hizkidun logo bera duten bi gizonak. Haiekin ikasi nuen igerian. Agian ez zehazki haiekin –betaurrekoek lurrunduko zizkidaten aurpegi oroitzapenak–, baina dezibelioak eta hitzen ebakerak berberak dira: hein bat militarrek, hein bat erasokorrek nire tinpano taponatuetan. Bueltabuertaka doaz, obediente, umeak, haientzako hartuak dituzten ezkerreko bi lerroetan, bixi. «Oso ondo» entzun diot kamiseta zuridun bati, euskaraz. Hurrengoan ingelesez agindu du: «Go! Go! Go!». Bertze guzia haien hizkuntzan.

Eskuinaldeko lerroetan igerilekuko langile bat ari da haur gazteagoei lehen igeriketa klaseak ematen, kortxozko txurro koloretsuek lagunduta. «Ukitu nire eskuak», erran dio emakumeak haurrari, irribarrez, harengana igeri egin dezan.

«FRANTSESAK
ETORTZEN DITUN
ORAIN
ENTRENATZERA!»

Crawlean segitu dut nire lerroaren eskuineko ertz fiktizioan. Berriz aitzinatu nau lauburudun txanodunak. Aletak ditu orain.

Paretaren kontra pausatu dut bizkarra atsedean hartzeko, eta nire baitara

bildu nau ur eta solas harrabotsen oihartzunak. Goiti begiratzerakoan irribarra atera zait: bestetako antzerako banderatxoak jarri dituzte igerilekuaren alde batetik bertzera zintzilik, luzeen perpendikularrean –salto noraino egin behar den zehazteko ote?–, urdin-zuri-gorriak.

Giblean herriko bi gizon, aldagelak eta ur putzua banatzen dituen zilar koloreko barandan besoak jarrita, irakasleetako batekin solasean hasi dira; bainujantzi azpikoak elkartzen ditu. Belarria luzatu gabe asmatuko nukeen gaztekeraz ari direla. Igel erara ekin diot orain. Azken hamabortz minutuak, eta etxera. Lesakatik Hendaiara joateko behar izaten dudana denbora, guti goiti beheiti. Bidegorritik ordubete inguru, mendiko bizikletaz. Igerian, ez dakit.

Azken lerroa arnasarik hartu gabe, eta presaka atera naiz, inork ez diezadan dutxako plazerik ken. Solas batzuk trukatu ditut aldagelan atzeman dudana ezagun batekin, harrerakoa agurtu dut, gero skate-parkeko umeen gurasoren bat.

Haien Facebooken sartu naiz etxera bidean, logoaren inisialak ongi asmatu ote ditudan ziurtatzera: Club de Natation Hendayais, lauburuaren azalpenik gabe. Bideo batean eskerrak ematen dizkiete *Lézakako* Udalarari. Etxeko atean gurutzatu dudana bizilagunak galdetu dit jende aunitz ote zegoen igerilekuan. Baietz erran diot. «Frantsesak etortzen ditun orain entrenatzera». Eta etxera sartu naiz.



AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE

Beren burutik joka

Kezka sortu izan du aspalditik besta giroan sortzen diren zenbait biolentzia egoerak. Solastatu ahalko nintzateke eraso matxistez, azken aldian behin baino gehiagotan salatu behar izan ditugun horiez. Gaurkoan, mapa beraren bertze puntu batean pausatuko dut lupa.

Ez naiz oker ibiliko erraten badut jendearen gehiengoak begi txarrez ikusten duela besta giroan kolpeka ibiltzea gustuko dutenen jarrera. Hala ere, urteak joan eta etorri diren arren, badut sententzia ez diogula arazo honi inoiz begietara zuzen begiratu.

Alkoholak kutsatu gabeko inguruetan solastatu izan gara gai hauetaz, denok bat egiten dugu bestari kolpeka ibiltzeko helburua jartzen dion arazo ugari dituela, eta pena dela sentitzen duguna, ez delako bere buruarekin gustura dagoen norbaiten jokabidea. Bere ingurua ere etortzen zaigu burura, nola lagun bat horrela dabilela ikustean ez dioten laguntzen. Bere burua hondatzeko modu bat bezala ikusten dugu besta joko dabilenaren jarrera. Tamalez, jarrera horiek permititzen dituzten inguru toxikoak badaude oraindik. Aipatutako jarrerak onartzeaz gain, etengabe elikatzen dituztenak.

Lantzeko arraz zaila den gai bat iruditzen zait. Pila bat faktore daudelako jokoan. Baina argi dago joka ibiltzen denaren ehuneko haundiena gizonen dela, eta beraz, gizontasunak (eta gizonen arteko harreman ereduak) paper ederra jokatzeko duela honetan

«NORBERE BURUA
HONDATZEKO
MODUA DA JOKA
IBILTZEA»

guztitan. Eta bertzetik drogak etortzen zaizkit burura, alkohola eta gainontzekoak, frustrazio guztiak tapatzeko formula magiko hori, bueltan gabeziak geroz eta gehiago haunditzeko bakarrik balio duena. Argi dago hausnarketa eta autokritika haundia dugula aspektu honekin egiteko.

Besta edozein edozerengatik joka dabilen horietako baten lekuan jartzen saiatu naiz azken aldian, eta aipatutakoa da egoera ulertzeko okurritu zaidan modu bakarra; eta pena ondotik sentitu dudana. Nire lagun bat horrela dabilela ikusten badut saiatuko naizela ukabildak horien gibeletik dagoen mina sendatzen laguntzen, eta bertzela, ez nintzateke horren lagun sentituko. Ez dakit, uste dut inork ez litzukeela «ostiak» hartzea edo ematea ongi pasatzearen formulaz sartuko.

11 GALDERA LABUR

JAIONE CORDOBA INDABURU ZUGARRAMURDIKO GAZTEA

«Ez dut bertze nihun ikusi giroa hain fite sortzen»

Noiz atera zinen lehenbizikoz eskean?

Orain dela 16 urte hasi nintzen eskean ibiltzen, bertze lagun batekin batera. Gazteenak ginen eta sekulako ongietorria egin ziguten.

Nola izaten da eskea?

Aski berezia da. Erremolke baten barnean joaten gara baserri baserri, kanpoa edo bidea ikusi gabe, eta hor barnean sekulako giroa egoten da. Erremolketik atera eta mendi erdian gaude, bakarrik. Alimaleko kontrastea da.

Nola bizi dituzu inauteriak?

Ihautelarien gehiengo gu baino gazteagoa da eta ederki pasatzen dugu. Nehoiz baino gehiago aritzen gara kantuan.

Zerk egiten ditu berezi Zugarramurdiko inauteriak?

Baserriek eta hango jendeak. Urtean zehar ez gara harat joaten eta eskertzekoa da zeinen ongi hartzen gaituzten.

Herritarrekin elkartzeko aitzakia da...

Maiz ikusten ez ditugunekin egoteko aukera ematen du, batez ere, herriko adinekoekin.

Trikitixarekin ere ibilitakoa zara...

Bai eta aski oroitzapen onak ditut. Beti erran dut, Zugarramurdiko ihauterietan bi nota jo eta segidan jendea animatzen zela dantzan eta kantuan, ez dut bertze nihun ikusi giroa hain fite sortzen.

Zein kanturekin lotzen dituzu inauteriak?

Arnosko bordan *Zazpi jauzia*, Mendiondoko bordan *Pakito txokolateroa* eta bidean, *Brasil* izeneko samba...



Baduzu oroitzapen berezirik?

Urte batez aski jende guti ginen eskean eta furgoneta baten gibeleda aldean sartu ginen denak. Herriko lehenbizikoa malda igaten hasi orduko, hortxe gelditu zen furgoneta... Ez genuen berehalakoan bidea berri hartu!

Mozorrotzeko ohitura duzu?

Lehen zerbaitetaz mozorrotzen nintzen. Azken urteetan lau trapu zahar jantzen ditut. Bezperan konbinazio horteroak egiten ongi pasatzen dut.

Orain arteko bereziena?

Urte batez *zerri hltzez* mozorrotu ginen denok eta etxe batera eskean joan eta justu zerria hiltzen ari ziren! Antzerki aunitz egin genuen!

Gogorra izaten da ondorena?

Bai, mendiko eskearen bihar munean herriko haurrek ihauteriak ospatzen dituzte, baina ez dut aunitz erraten ahal horren inguruan. Normalki ez bainaiz joaten, trenpu eskasean egoten naiz. kar-kar-kar.



1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

- Albornozak
- Mantelak
- Kuxinak
- Edredoi nordikoak
- Ohe estalkiak
- Maindireak
- Toallak
- Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Eolikoak: Erne, otsoa ardiz beztiturik!

JASONE MITXELTORENA OZKARITZ

AZKUA BIZIRIK TALDEKO KIDEA

«Trantsizio Energetikoa» delakoaren diskurtsoa aditzean ardien artean sartu nahi duen otsoa heldu zaigu gogora; istorioa pikorrez pikor mihaurtu dugu hemen, hausnarrerako gaia eman nahian:

1. Erantzukizuna herritarren gain jartzen dute: Kontsumitzaile gisa kutsatzaile garena. Arduratzeaz solastatzen ahal gara, bakoitzak dagokiona hartzeaz, eta hala, ezin aipatu gabe utzi orkestra zuzentzen duen elite bat badela. Guk orkestra utzita ere musika jotzen segitzen du. Gure esku dago kontsumoaz arduratzea, energia eredu egokiak bilatzea... baina mundu mailan eraldatzeko adinako antolaketa ez dugu.

2. Errudun sentiarazteak ondorioa izan dezake: Arazoarentzat planteatzen duten aterabidea baitezpada onartzea, herritarra horretara bulkatzea. «Helburu jakin batera bideratzeko norbaiten gain egiten den xantxia emozionala» erraten zaio horri. Hemen otsoari belarri-punta agertu zaio...

Eta zein da aterabide hori? Diskurtsoan «kontsumoaren gutitzea», «elektifikazioa» eta «kutsatzaileak ordezkatzeko» erraten dute; baina praktikan, hori egin daitekeenik bermatu gabe, berriztagarrien eraikitzea baizik ez da abiatu. Eta herritarrok horiek onetsi eta asimilatze-ko propaganda izugarria ere bai! Hor ulertzen da aztergai dugun diskurtsoa.

Hatsik gabe uzten gaitu enpresa arrotzen proiektu erraldoiak gure ingurura heldu diren une berean herriekideak horien beharrezkotasunaz mintzatzeak. Ez da ardi larri hoberik!

3. Lehengo lepotik burua: Herriaren ondasun eta baliabideak enpresa haudien esku jartzea.

-Nafarroan 30 urtez eraiki dira berriztagarriak, eta gehiago behar direla...

Energia hornitzeaz ari gara edo etengabeko hazkundeaz?

-Iturri kutsatzaileak berriztagarrien hein berean hazi dira (Castejongo Zentral Termikoa...).

-Herrialde pobretuetan ustiatzen segitzea errazteko 'Lehengai kritikoen' legedia onartu berri da.

-«Ziklo osoa modu egokian egin» eta «energia herritarren esku utzi behar» omen da... Multinazionalak ari garena, haize bolada magikoak ukitututa gertatuko da hori?

-Marra gorri guziak gaintitu ditugula ados bagara, ezin ekosistemak hondatzen segitu. Halabeharrezko kalte gisa planteatzen dutenean belarri puntatik muturreraino ageri da otsoa!

4. «Lurrak bizi gaitu». Dagokiguna zaintzearen alde garenok «lurraldeari buruzko lotura afektibo eta emozional sakona» omen dugu. Bai, noski, baina ez hori bakarrik, gorputzez ere lurrari lotuak gara, bizi garenez! Edo hala diozuenok 'hidroponikoan' hazi eta bizi zarete? Gutiespen adierazpen horiekin otsoak bere hartz zorrotzak erakusten ditu.

Lurra dagoeneko nahikoa eta sobera zulatu eta estali denez, eta hainbortze azpiegitura erabili gabe daudelarik, berriak ezartzekotan okupatutako eremu horiek lehenetsi behar direla diogu guk.

4. Eta orduan zer? Gure mendiak zaintzearen alde antolatu diren taldeei ez dagokie kutsaduraren arazoari aterabidea bilatzea. Aldizkari honetan zabal eman da plataformen berri, eta argi gelditu da onartzen ez dena herriaren baliabideak enpresa arrotzen esku uztea dela.

Agurtzeko, Malerreka Bizirik taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu: Azken berriez ohartarazi eta Iturengo bilkura-erregatik; herri bizien alde Euskal Herri osoan eginahalean ari direnen bizipenak diskurtso guziak gaintitzen baititu, hor bai, hor hatsa sakon hartu ahal izan genuen!

HEMEROTEKA



«Batzuek zalantzan jartzen dute gure profesionaltasuna. Batzuek uste dute profesional hitza guk asmatu dugula. Lan kontratatu batekin ari gara, eta horrek profesional bilakatzen gaitu. Egia da gure soldatak ez digula pilotaz bizitzeko aukera ematen, baina hori beste kontu bat da. Inori ez zaio bururatzen zalantzan jartzea palan edo erremontean ari den pilotari bat profesionala ote den; gure kasuan bai, batzuek ez dute onartzen profesionalak garena».

IERA AGIRRE | LEITZAKO PILOTARIA
NAFARROAKO HITZA | 2024.01.28



«Ordura arte, ni neu ere ez nintzen jabetzen proiektuak duen neurriaz; banekien herrian galtzerdi lantegi bat zegoela, baina ez nuen hemen egiten zutenaren eta lortu zutenaren berri (...) Garai hartan, galtzerdien mundua ez zegoen orain bezain espezializatua; Txina ere ez zen gaur egun den hori ehungintzaren arloan. Merkatu bat bazela ohartu ziren, eta lanean hasi. Trekkingearen espezializatu da Lorpen hasieratik; bide hori ez dugu bazter utzi, baina zabalduz joan gara».

MIREN OLAETXEA | LORPEN FABRIKA
ETXALAR | N. HITZA | 2024.01.29

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

'Sei euroan' edo 'Sei eurotan'?

Euskaltzaindiak ez du araurik eman honako hauen erabileraz: lau urtera ala lau urtetara; zenbat kilometrora? ala zenbat kilometrotara?; 5 graduan ala 5 gradutan; zenbat urte(ta)tik zenbat urte(ta)ra...

Hegoaldeko literatura-tradizioko erabileran, -ta- gabekoak dira nagusi: lau urtera, bi kilometrora...; Iparraldean, -tadunak: urtetara, kilometrotara... Euskaltzaindiak dioenez, bi moldeak dira zilegi, baina, koherentziagatik, ez da komeni testu berean modu nahasian erabiltzea.

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

	Hegoaldeko ohitura	Iparraldeko ohitura
-an/-tan	Sei euroan saldu dut.	Sei eurotan saldu dut.
-ra/-tara	Bi segundora sartu da.	Bi segundotara sartu da.
	Lau kilometrora dago.	Lau kilometrotara dago.
-rako/-tarako	Hiru urterako baimena lortu dut.	Hiru urtetarako baimena lortu dut.

Baina...

NOLAKO/ZENBATEKO denean (nolakotasuna), -ko mugatu singularra hobetsia da:

- Bortz urteko neska.
- Hiru hankako mahaia.

NON/NOIZ/ZENBATEAN denean, iraupena markatuz, mugatu singularra hobetsia da:

- Hiru astean izan dira bidaian mendian.
- Bost egunean ibili dira mendian.

NON/NOIZ/ZENBATEAN denean, maiztasuna markatuz, mugatu singularra da erabili beharrekoa:

- Lau urtean behin elkartzen dira.

Nola erran

Maskara edo musuko?

«Ahoa eta sudurra estaltzen dituen babesgarria, agente patogenoetatik, toxikoetatik edo hautsetik babesteko erabiltzen dena» izendatzeko, maskara hitza arautu du Euskaltzaindiak.


Gisa berean, maska bildua dago hiztegi arauemailean, Ipar. markarekin eta maskara adierarekin. Aldiz, musuko ez da ageri Euskaltzaindiaren Hiztegian.

Eta zuk zer diozu?


Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Osatu erran zaharra



«Geroz eta harreman estuagoa dago roboten eta gizakion artean»

MANEX ORMAZABAL ARREGI ZUBIETAKO INGENIARIA

Robotikak erakarrira, mundu horretan ikasten eta lanean ari da zubietarra. Etorkizuneko iraultza izan daitekeela dio, eta industrian hasi baziren ere, gero eta arlo gehiagotan erabiltzen dela kontatu du

G. PIKABEA ZUBIETA

Ttikitatik maite izan du teknologia, berak dioen bezala, «makinak kuxkuxeatzea eta nola funtzionatzen duten ulertzea». Eta bere afizio horren bueltan, robotikaren munduan murgildua dabil Manex Ormazabal Arregi (Zubieta, 1995). Goi mailako bi ziklo egin zituen lehenbizi, horietako bat robotikari buruzkoa, eta ondotik industrian lanean ibili zen. Ez zitzaion gustatu, eta robotikan hasitako bideari segida ematea erabaki zuen. 2020ko udazkenean Liverpoolera joan zen robotikako ingeniariartzako gradua egitera, eta geroztik Ingalaterran dabil. **Liverpoolera joan aurretik zer ikasketak egin zenituen?**

Bi goi mailako heziketa ziklo ikasi nituen: lehenbizi mekatronika industrial eta ondotik, automatizazio eta robotika industrial. Ikasketak akitu ondotik, industrian lanean aritu nintzen, mantentze lanetarako teknikari eta produkzioan. Baina ez zitzaidan asko gustatu eta robotikarako interesa piztuta, ingeniariartzako gradu bat egitea pentsatu nuen. Hasieran, bertan ikastea pentsatu nuen, baina ez nuen gustuko robotikako ikasketak hain espezifikorik aurkitu. Oso aukera gutxi zegoen Euskal Herrian eta Espainian, eta kanpoan ikasteko ideiarekin bueltak hasi nintzen eta Erresuma Batuan robotikako gradua egiteko aukera pila zegoela ohartu nintzen. Aurretik ingelesez ikasten

ere aritu nintzen Irlandan eta Australian, eta horrek asko lagundu zidan Ingalaterrara joan eta ingelesez ikasterakoan. Unibertsitateetara eskaerak bidaltzen hasi eta Erresuma Batua ikastera joateko prestatzen hasi nintzen. Liverpoolera joan nintzen. **Zergatik robotika?** Robotikak beti erakarri izan nau eta nire zaletasuna ere bada.

Ikasten ari zarena edo lana gustuko izatea oso garrantzitsua dela uste dut, horrek asko errazten baitu dena. Unibertsitate horretan robotikako gradua oso praktikoa delako erabaki nuen egitea, eta gainera, goi mailako heziketa zikloi esker, graduaren parte bat baliozkotzeko aukera eman zidatelako. **Nondik heldu zaizu zientziarako zaletasuna?**



2020ko udazkenean joan zen Ingalaterrara Ormaetxea. Han bizi da geroztik.

«ROBOTIKA ETENGABE HAZTEN ETA ERALDATZEN ARI DA»

«BERAIEN KABUZ ERABAKIAK HARTZEKO GAI DIRA ROBOTAK»

Ttikitatik gustatu izan zait teknologia. Beti gustatu izan zait makinak kuxkuxeatzea eta nola funtzionatzen duten ulertzea. **Zer moduzko moldatzen zara etxetik kanpo?**

Orokorrean esperientzia ona izaten ari da. Jende asko eza-gutzeko aukera izan dut, baita bizipen ugari izan ere, bai unibertsitatean, bai lanean edo bai aisialdian. Hala ere, nire kasuan behinik behin, ez da berdina hasierako etapa edo denbora dezente duzunean kanpoan. Hasieran leku berri batera ailegatzean, beti da zirrargarriagoa, eta denbora pasatu ahala, leku berean urte batzuk pasatu ondotik, ilusio hori pixka bat galtzen da. Liverpoolen hiru urtez bizitu naiz eta azken urtean, tokiz mugitzeko beharra sentitzen nuen. Oso gustura egon naiz, baina han dena egina nuela sentitzen nuen. Orain, Bristolera nago, hiri diferentea da, beste jendea, bestelako giroa eta unibertsitatean nagoenez, beste etapa batez gozatzen ari naiz. Hala ere, esan behar dut etxetik urruti bizitzea ez dela erraza eta batzuetan kosta egiten dela, askotan zure herriaren, jendearen, familiaren edota janariaren falta sumatzen duzulako. Orain oso komunikatuta bizi garenez, nahiz eta kilometro askotara egon, errazagoa da jendearekin solastatzea nahi duzunean. Gogorrena etxean egun batzuk pasatuta, berriz Ingalaterrara bueltatzeko momentua dela esanen nuke, eta lehenbiziko egunetan kosta egiten da. Hala ere, badakit nahi dudanean bueltatu naitekeela etxera eta ez dela betiko izanen atzerrian bizitzearena. Horrela pentsatuta errazagoa da.

Liverpoolera unibertsitatean oherrezko matrikula lortu zenuen. Ordu askotako lanaren emaitza izan zen?

Pandemia garaia zen, eta aisialdirako aukera gutxi zegoenez, gehienbat ikasketetan zentratu nintzen, ez nuen denbora alferrik galdu nahi izan. Gainera, gradua oso praktikoa izanik,

gustura aritu nintzen ikasten eta proiektuetan lanean. Horrek asko lagundu zidan emaitza onak lortzeko.

Robotikaren inguruko hainbat ikerketa lan egin zenituen. Azalduko zenuke?

Graduan proiektuak egin behar izan nituen hainbat irakasgaitarako, eta irakasleek proiektuak ikerketa lan gisa argitaratzeko aukera eman zidaten. Publikatutako bi lan nire proiektuak izan ziren, bat lau gurgpileko robot autonomo bati buruzkoa eta bestea esku robotiko bate-na. Beste bi ikerketa artikulua nire irakasle baten eta dokto-retzako ikasle baten proiektu-koak izan ziren, elkarlanean garatuak, gradu amaierako lana egiten ari nintzelarik egindakoak. Proiektua gel materialeko ukipen-sentsore bati buruzkoa izan zen, robotei gizakien antzeko ukimen gaitasuna emateko helburuarekin.

Gero eta gehiago aditzen da robotika. Zure ustez hori da etorkizuneko iraultza?

Badirudi baietz. Hasieran industriari bakarrik hasi ziren robotika erabiltzen, baina gaur egun, gero eta arlo gehiagotan ikusten da: medikuntzan, salbamenduetan, esplorazioan, nekazaritzan edota etxeetan, esaterako. Gainera, robotikaren mundua etengabe hazten eta eraldatzen ari da, batez ere adimen artifizialaren etorrerarekin.

Zer aldaketa ekarriko ditu?

Dagoeneko aldaketa ugari ikusten ari gara hainbat sektoretan. Batzuk aipatzen hasita, gidaririk gabeko ibilgailu autonomoak, gauzak garraiatzen dituzten droneak, etxea garbitzeko robotak... Eta oraindik aldaketa gehiago izanen dira. Aldaketa horiek, nagusiki, gizakion egin-beharrak erraztuko dituzte eta orain arte ezinezkoak ziren gauzak egin. Medikuntzan, adibidez, robotikako ikertzaileak lanean ari dira minbizia edo bestelako gaixotasunak nanorobotika erabiliz tratatzeko, edo kirurgia bat teleoperatutako robot baten bidez egiteko, mila kilometrotara dagoen per-



Ormaetxea Liverpoolen The Beatles taldeko kideen estatuaren ondoan eta atzean Royal Liver Building duela.

tsona batek kontrolatuta. Azkenaldian, biorobotika eta robotika biguna dira ikertzaileak lanean ari diren robotikako arlo nagusienak. Biorobotikak naturako organismo biologikoetan, animalietan eta landareetan, adibidez, inspiratutako robotak sortzea du helburu, batetik robot sistema berriak sortzeko, baina batez ere, gizakiei natura hobeki ulertzen laguntzeko, zientzialariei edo biologoei, esaterako, edota esploratu gabeko izakiak aurkitzeko itsoaren behean. Robotika bigunak, hitzak dioen bezala, material bigunak eta konformagarriak erabiltzea du helburu, izaki bizidunek bezalako gorputzak dituzten eta ingurumenera hobeki egokitzen diren

robotak sortzeko. Adimen artifizialak ere inpaktu handia izanen du robotikan, gero eta robotika adimentsuagoak sortuko baitira, erabakiak hartzeko gai izanen direnak eta esperientzien bitartez ikasiko dutenak, gizakion antzera gutxi gorabehera. **Zein dira robotikaren erronkak?** Askok dira robotikaren gaur egungo erronkak. Kostua da, adibidez, oraindik aurre egiteko dagoen erronketako bat, izan ere, robotikan erabiltzen den teknologia oso garestia da eta horrek asko mugatzen du. Gizakiongan segurtasuna bermatzea ere egungo erronketako bat da robotikan, geroz eta harreman estuagoa dagoelako roboten eta gizakien artean. Noski, etika ere erronka nagu-

sietako bat da, are gehiago adimen artifiziala aipatzen badugu, robotek beraien kabuz erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaketelako. Azkenik, alderdi teknikitik hitz eginda, erronka nagusienak energia eraginkortasuna hobetzea, autonomia, sentsore berriak sortzea, eta trebezia eta manipulazioa hobetzea izanen lirateke. **Bada motiborik roboten beldur izateko?**

Robotak gizakiendako seguruak izatea eta gizakiei laguntzea da helburu nagusia eta robotikaren etika arloa hortaz arduratzen da. Hala ere, robotikak erabilera okerra izan dezake eta horretan pentsatzeak beldurra sortzen du, batez ere, robotek gizakiak hiltzeko makina- →



Birminghamen, kanalaren ondoan. Urteotan «jende asko ezagutu» eta «bizipen ugari» izaten ari dela kontatu du Ormaetxeak.

—> ren papera duten fikziozko filmak ikusi dituen batengan.

Liverpooleko unibertsitateko fisika departamentuan lanean arituz zinen, ikerketa teknikari partikulen fisika arloan. Azaldu...

Bai, Suitzako CERN enpresarendako ibili ginen lanean, partikula azeleragailuko ATLAS detektorearen berrikuntzan. Proiektu horretan mundu osoko unibertsitate eta enpresa ugari zeuden hainbat lanetan, eta gu, bereziki, partikulak detektatzeko siliziozko sentsoreen eraikuntzan aritu ginen.

Orain zertan ari zara?

Joan den irailean Bristolera mugitu nintzen master bat egiteko. Biorobotika masterra ikasten ari naiz unibertsitatean eta irailean akituko dut.

Ikerketaren mundua zaila da?

Ikertzaileekin lanean ibili naiz eta esan nuke ez dela hain lan zaila, segun eta zein arlotan ari zaren ikertzen, noski. Baina denbora asko eskaini behar diozu. Izanen dira lan gutxi egin eta etxera goiz joanen zaren egunak, eta beste batzuetan egun osoa pasatuko duzu laborategian. Orain arte ikusi dudanez, ikerkuntzaren alde ona malgutasun handia eskaintzen duela da, bai ordutegi aldetik, baita lan aldetik ere. Zuk gestioztatzen ahal duzu egin behar

Labur-labur

- **Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?** Zubietar musikazalea, bidaiaria eta egonezina.
- **Zein afizio dituzu?** Musika, baxua edo gitarra jotzea, teknologia eta bizikleta.
- **Musika talde bat?** Red Hot Chili Peppers.
- **Kanta bat?** Dani California.
- **Zein talderen kontzertura joanen zinateke gustura?** Slipknot.
- **Kontzerturako toki bat?** BEC.
- **Bizitzeko Liverpool edo Zubieta?** Gaztetan Liverpool, zahartzean Zubieta.
- **Zer ekarriko zenuke handik honat?** Shortbread pastak.
- **Eta hemendik harat eraman?** Kalitatezko edozein janari.
- **Zubietako txokorik gustuena?** Irotzabal.
- **Zubietako inauteriak edo bestak nahiago dituzu?** Inauteriak.
- **Besta egiteko toki bat?** Oñati.
- **Kirol bat?** Surfa.
- **Surfa egiteko toki bat?** Olatu onak baldin badira, edozein toki.
- **Itsasoa edo mendia?** Itsasoa.
- **Liburu bat?** Ez dut gomendatzeko libururik. Irakurtzen hasi beharko nuke...
- **Amets bat?** Festibal erraldoi batean jotzea.

duzun lana eta lanean pasatu nahi edo behar dituzun orduak. **Maiz aditu dugu hemen ez dela ikerketa behar adina sustatzen eta kanpora joan beste aukerarik ez dela izaten. Zer diozu?**

Euskal Herrian eta Espainian diru gutxiago bideratzen dute ikerkuntzara, Erresuma Batuarrekin edo beste herrialdeekin konparatuz. Robotikako ikerkuntzan bereziki, ematen du

Euskal Herrian eta Espainian mantsoago garatzen ari dela eta atzeratuago daudela beste herrialdeekin alderatuz gero. Erresuma Batuan robotikako ikerkuntzara dedikatzen diren institutu eta enpresa asko daude. Euskal Herrian agian ikerkuntza industrian zentratzen da gehiago eta robotikan aukera gutxi dago oraindik.

Zure gustuko lanean etxetik hurbilago aritzea gustatuko litzazuke?

Momentuz, ez dut bueltatzeko presa handirik eta ez zait inportatzen nora mugitu lan aukera onen bat suertatzen bada. Hala ere, badakit ez dela betiko izanen eta aurrerago begira, bueltatzea gustatuko litzaidake eta etxetik hurbilago lan egitea. Nahi edo ez, beti tiratzen dizu zure etxeak kanpoan bizitzarenean. Atzerrian bizitzea ez da hain erraza eta batzuetan nekagarria da.

Epe laburrera eta luzera begira, zein dira zure helburuak?

Orain momentuan, atzerrian bizi bitartean, esperientziak ahalik eta gehien gozatzea eta arlo profesionalen esperientzia garatzea da nire helburua. Epe luzera begira, etxetik hurbilago egotea dut helburu, Euskal Herrian espero dut, eta zorte pixka batekin, robotikako ingeniari edota ikertzaile gisa lanean aritzea gustatuko litzaidake.



Baztan Haur Eskolako haur bat animaliekin jostetan. BAZTAN HAUR ESKOLA

Haur eskolen «etengabeko borroka»

Nafarroako Gobernuak 0-3 urtekoen zikloa debalde izanen dela iragarri ondotik, Baztango, Berako eta Lesakako haur eskoletan zuhurtziaz hartu dute berria. Poztekoa iruditzen zaie familien mesederako izanen delako, baina izaten ahal dituen ondorioez ohartarazi nahi izan dute

G. PIKABEA

Heldu den ikasturtetik aitzinera 0-3 urtekoen zikloa familia guztientzat debalde izanen dela jakinarazi du Nafarroako Gobernuak. Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak hala iragarria zuen lehenagotik eta hori berretsi du urte hasieran. Berriak, ordea, «sorpresa» eragin du sektoreko langile aunitzen artean. Eskualdeko haur eskoletara jo du ТТИPI-ТТАПАК iritzi eske, eta Baztango, Berako eta Lesakako haur eskoletako ordezkariak erantzun diote deia. Neurri batean, kontent, baina aldi berean, zuhurtziaz hartu dute. Ratio maximoetara ailegatu eta zerbitzuaren kalitatea okertzeko arriskuaz ohartarazi dute, baita denentzat ez dela tokirik izanen ere. Debalde bai, baina lehentasun ratioak jaiste delako nabarmendu dute.

Doakoa ≠ unibertsala

«Harridura» izan da Kristina Goñi Etxenike Baztan Haur Eskolako kideak gaiak galdetuta aipatu duen lehenbiziko hitza, eta segidan argitu du «prentsaren bidez» jakin dutela. Lesakako Magala Haur Eskolako Ana Maeztu Villanueva eta Jaione Aginagalde Ugaldek berria «sorpresaz eta tentuz» hartu dutela onartu dute, eta Berako Mukixu Haur Eskolako Anabel Arburua Olagarrik, alde batetik, «positibotzat» jo du, baina bertetik, «Nafarroako Gobernuak maiz aipatzen duen

doako zerbitzu eta unibertsalari» nabardura bat gehitu nahi izan dio: «Gauza bat da doakotasuna, hau da, zerbitzua erabiltzen duten familiek dohainik izatea, eta bertzea unibertsaltasuna, nahi duten guztiek erabili ahal izateko plaza nahikoa izatea». Eta hori da, hain zuzen, «berri honen alde iluna» Goñiren arabera: «Alde batetik, familiak kontent egonen dira, baina bertetik, ez da denendako tokirik izanen». Toki eta arreta falta aipatu dituzte. «Doakotasunaren ondorioz, matrikulazioaren igoera aurreikusitako

«GAUZA BAT DA DOAN ETA BERTZEA UNIBERTSALA»

ANABEL ARBURUA, BERA

«HASIERATIK GURE ALDARRIA RATIOEN JAITSIERA IZAN DA»

KRISTINA GOÑI, BAZTAN

dugu eta haur eskolan ratio maximoak izatean, ematen dugun arreta urriagoa izanen da eta haurren ongizatean eragina izanen du», aipatu dute Magalakok. Honela gaineratu du Arburuak: «Haur eskola gehiago eraiki behar dira».

Horri lotuta bada kezka sortzen dien bertze kontut bat. Goñi kontatu du: «Doakotasunarekin ez da denendako plaza publikorik izanen eta 0-3 Plataforman uste dugu horri erantzuteko hiru aukera dituela esku artean gobernuak: Lehenbizikoa haur eskola gehiago eraikitzea, baina denboragatik eta diruagatik zaila ikusten dugu; bigarrena pribatuak kontzertatzea, batez ere herri handietan. Eta hirugarrena bi urteko gelak sortzea. Jaiotze tasaren jaitsiera handia dagoela eta, euredako irtenbide errazena izanen litzateke, baina erokeria iruditzen zaigu».

Lehentasuna: ratioak

Hezkuntza Departamentua 2021-2022 ikasturtean hasi zen neurriak hartzen, errenta apaleneko familientzat haur eskola publikoak dohainik utziz. Azken hiru ikasturteetan udal eskolen kudeaketa finantzatzeko esleitutako kopurua handitu du. Neurri horiek begi onez hartu dituzte lau hezitzaileek, «berri ona da eta edozein pauso ematea positiboa da».

Doakotasuna bera 0-3 plataformaren eskarietako bat izan da, baina kasu honetan, Arburuaren ustez, «beraien lehentasuna izan da. Haurrak artatzeko ditugun arazoak konpondugabe, eta doakotasunari eman diote lehentasuna, eta ez zerbitzuaren kalitateari». Maeztuk eta Aginagaldek «doakotasuna bertze aldarrikapen batzuekin batera egin beharrekoa» dela berretsi dute eta Goñiri «oinarriko eskaerak alde batera utzi dituztela» iruditzen zaio. Guztiek argi utzi dute «lehentasunik handiena ratioen aferak» dela, «hasieratik gure oinarriko aldarrria izan da». Hala, Nafarroako Gobernuak zerbitzua debalde paratzeko eraba- →



Berako Mukixu Haur Eskolako bi haur kanpoko espazioan jostetan.

—> kia hartzea «estrategia politikoa» da Baztan Haur eskolakoaren hitzetan: «Doakotasunakazken keinua izan behar zuen. Etxea teilatutik hasi dute».

Mobilizazioak

Haur eskoletako kideek urteak daramatzate 0-3 zikloaren duintasuna eskatuz. «Gurea eten-gabeko borroka da», dio Goñik. 2022a urte mugitua izan zuten, mobilizazio handiak eta jendetsuak egin zituzten: elkarretaratzeak, itxialdiak, manifestazioak, bilerak euren artean eta alderdi politikoekin, batzarrak, greba mugagabea... Eta 2023an ratio duinak lortzeko borrokan zentratu ziren. Egindako lana «hagitz positiboa» eta aldi berean «hagitz gogorra» izan zela onartu dute. «Esfortzu eta dedikazio handia eskatu zuen, baina bere alde onak izan zituen, hainbat balio erakutsi genituelako: elkartasuna haur eskolen artean, ausardia, sormena hainbat ekitaldi prestatzeko eta egiteko, izugarritzko antolaketa Nafarroako haur eskolak mugiarazteko, ilusioa, borondatea, indarra, kemena, nekea... Ikasketak ederra izan zen eta da», esplikatu du Baztangoak.

Bide beretik, «Nafarroa osoko haur eskoletako langileak biltzea eta mugimendu bateratuan

aritzea izugarri positibotzat» jo du Arburuak: «Elkar ezagutzeko eta laguntzeko aukera eman zigun, bakoitza bere eskolan bakarrik ez sentitzeko, eta arazo partekatuak direla ulertzeko. Eta frogatu dugu, elkartuta, gauzak lortzen ahal direla». Gehiago ere bai: «Gainean ez bagaude, ez dago aldaketarik, horregatik, nekagarria bada ere, hor egon behar dugu».

Magalakoek ere borrokan segitzeko beharra azaleratu dute: «Ez dugu atzendu behar lortu dugun guti hori mobilizazioei esker lortua dela eta oraindik aunitz gelditzen zai-gula haurtzaroren eskubideen alde borrokatzeko. Mobilizazio eta grebari esker politikarien agendatan egotea lortu genuen, baita gizartearen begirada 0 eta 3 urte bitarteko haurrengana zuzentzea ere. Aldi berean, gobernuak pauso batzuk aitzinera emateko bidea hasi zuen».

Pauso horietako bat izan zen 2022ko irailean PSN, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal dugu eta Ezke-

«LORTU DUGUNA MOBILIZAZIOEI ESKER EGIN DUGU»

A. MAEZTU ETA J. AGINAGALDE, LESAKA

rra alderdiek sinatutako akordioa. Hiru puntu bildu zituzten akordioan: Europako ratioetara hurbiltzea, soldatak Nafarroako Gobernuko langileekin parekatzea eta haur eskolen kudeaketa amankomunalortzea. Gaur egun, akordio hori bete-araztea dute erronka.

Ratioen jaitsiera

Akordioko puntuetako bat Europak gomendatutako ratioetara hurbiltzea izan zen, hau da, 0-1 urteko zortzi haur bi heldurekin izatea –orain bakarra da–, 1-2 urteko hamabi haur bi heldurekin –orain bakarra– eta 2-3 urteko hamasei haur bi heldurekin –orain bakarra–.

Ereindako hazitik, aldaketak sumatu dituzte eskola batzuetan, hala nola, Baztanen eta Beran. Ez, ordea, Lesakan. Horregatik uste dute «laguntza horiek ez direla nahikoak kalitatezko zaintza izateko. Europako ratioetara ailegatzeko behar den laguntzaren % 20 bakarrik eman dute momentuz,

«BI URTEKOAK ATERATZEA ZENTZUGABEA DA»

ANABEL ARBURUA, BERA

eta eskola ttikien kasuan deus ere ez», salatu dute Magalakoek

Izan ere, «laguntzarako hezitzaile bat izateko eskatzen duten haur kopurua 21ekoa da, eta guk momentuz ez dugu haur kopuru hori. Lesakan zerbait aldatu baldin bada, orain familiekin gure egoerari buruz aunitzez garbiago solastatzen garela da, eta ondorioz, hobe-kiago ulertzen dute ezin ailegatzu ibiltzen garelarik zein den arrazoiak». Eguneroko martxari dagokionez, «eskola ttikia izanik, ez gara gehienezko ratioetara ailegatzen eta ez ditugu unitate guztiak betetzen, eta hala ere, haurrei beharrezko arreta eskaini ahal izateko, ezinbertze-koa dugu zuzendaritzako lanak arratsaldez egitea, gure denbora librean, zuzeneko arretan bat gehiago izateko».

Baztanen, berriz, «aise gusturago eta kalitate hobea emanez» ari direla dio Goñik. Hezitzaile gehiago dira orain. Ikasturte honetan 72 haur dituzte eta laguntza gisa hiru hezitzaile sartu dira. «Urtero haur eskola bete-betea izaten da eta itxaron zerrendan jende aunitz izaten da», gaineratu du. Gaur egun, «sei unitate ditugu, hiru espaziotan banatuta eta bakoitzean hiru hezitzaile daude, batzuk jardunaldi osoan eta bertzeak erdian». Goñik onartu du «kalitatea eta segurtasuna hobetu dela, baina laguntza gehiago» aldarrikatu du, gisa horretara, «proiektuak aitzinera ateratzeko eta kalitatezko zaintza egiteko». Gehiago ere erran du: «Gaur egun jaiotze tasa aunitz jautsi da, baina hala ere, gure haur eskola betetzen da. Aukera paregabea izanen litzateke ratioak jaisteko eta kalitatea bermatzeko, bai gure zikloan, baita 3-6 urtekoetan ere. Lehenbiziko sei urteak gure bizitzako garrantzitsuenak dira, gure nortasuna eta ibilbidea markatzen digutenak. Beraz, haurtzaroa zaindu dezagun denon artean, denon ardura baita».

Berako Mukixu Haur Eskolan, laguntzeko hezitzaile bat gehiago dute orain, lanaldi erdian

hiru geletan aritzeko. 29 haur dituzte: «Berez hiru taldetan banatuak egon behar lukete, baina esperientziarekin ulertu dugu, haurren ongizatea bermatu ahal izateko, talde ttikietan egon behar dutela. Hortaz, zuzendaria hezitzaile bihurtzen da eta hiru talde izan beharrean, lautan banatuak ditugu. Zuzendaritza lanak lanordutik kanpo egiten ditugu. Lan gehiago da, baina haurrak eta gu lasaiago egoteari lehentasuna ematen diogu, hori baita denon ongizatea, eta hori dugu helburu».

Soldata igoera

Sinatutako bigarren puntua soldatak Nafarroako Gobernu-ko langileekin parekatzea izan zen eta Magalakoez esplikatu dutenez, «bi hilabetez greban egon ondotik, soldatak igotzea eta Nafarroako Gobernu-ko haur eskolekin parekatzea lortu genuen». 2023ko urtarrilean sartu zen igoera indarrean. «Orain arte gure soldatak arras baxuak ziren, baina borrokari esker duinagoak ditugula erraten ahal dugu», dio Goñik. Eta «prekarietatekin atera» direla gehitu du Arburuak. Hala ere, mesfidati daude. Maeztuk eta Aginagalde aipatu dute «ez dela nahikoa»: «Soldaten igoera ez dute bermatu eta soldata berarekin egoten ahalko gara bertze 20 urtez». Horixe dute, Arburuak dioen bezala, kezka iturri: «Ez dakigu administrazioko soldatak bezala eguneratuko ote dituzten gureak».

Kudeaketa amankomuna

Akordio hirugarren erronka Nafarroa osoan haur eskolen kudeaketa amankomunalortzea da. Izan ere, denetariko kasuak daude. Goñik azaldu du: «Haur eskola batzuek kudeaketa zuzena dute, hau da, hezitzaileak udal langileak dira. Doneztebeko eta Leitzako haur eskolen kasua hori da. Badira kudeaketa zuzena ez dutenak, enpresa pribatuak eta gehienetan langileek sortutako kudeatuak. Berako eta Lesakako haur eskolak egoera horretan daude.



Ana Maeztu eta Jaione Aginagalde Lesakako haur eskolako hezitzaileak, haur eskolen duintasunaren aldeko kamiseta soinean.

Azkenik, enpresa publikoetan dauden haur eskolak ditugu, Baztangoa, erraterako».

Batzuen eta bertzeen «baldintzak arras diferenteak» omen dira: «Adibidez, kudeaketa zuzena dutenek bertzeek baino baldintza hobek dituzte». Eta Baztango kasua kontatu du: «Urteetan kudeaketa ez zuzena izan dugu eta enpresaz hiru langile arduratu gara. Ez da batere erraza horrela kudeaketa, baldintza arras txarrak baitira eta bakardade handia». Gaur egun, ordea, hobekiago daude: «Joan den ikasturtetik Lixura enpresa publikoarendako lan egiten dugu eta egoera aise lasaiagoa da, udalaren babesa sentitzen dugu». Hala ere, 0-3 Plataformaren eskariarekin bat eginez, «Nafarroa osoan kudeaketa amankomuna» eskatu du Goñik: «langile guztiek baldintza berdina izateko».

Bi urteko haurrak non, eztabaida Gimeno kontseilariak bi urteko haurrak 0-3 ziklotik atera eta

«EZ DA ASKI KALITATEZKO ZAINZTA IZATEKO»

A. MAEZTU ETA J. AGINAGALDE, LESAKA

eskola publikoetara eramatea proposatu izan du. Lesakako Magala Haur Eskolan, neurri horrek ez luke eraginik izanen, dagoeneko bi urtekoak eskolan eta ikastolan matrikulatzen baitira. Baina ez dira horren aldekoak: «Beti pentsatu izan dugu bi urteko haurrak ez daudela prest 3-6 urtekoen eskola sistematan sartzeko eta haien beharrezkoak ez direla 3-6 urteko haurren beharrezkoak», azaldu dute Maeztuk eta Aginagalde. «Lesakan haur eskola ireki behar zutenean, bi urtekoak haur eskolara etortzeko eskaera egin genuen, baina ez genuen lortu».

Arburuari «erabat zentzugabea» iruditzen zaio neurria eta uste berekoa da Goñik: «erokeria izanen litzateke». Hiru eskoletako kideak bat datoz, «bertze eskolak hain ttikiak hartzeko ez daudela prestatuak» erraterakoan. Batetik, «0-3ko haurrek bertzelako behar fisiologikoak, emozionalak, erritmoak...» dituztela oroitarazi dute; «aunitzez ere mendekotasun handiagoa

«DOAKOTASUNARENA ESTRATEGIA POLITIKOA DA»

KRISTINA GOÑI, BAZTAN

dute». Eta bertzetik, «espazioak eta antolaketa ez daude prestatuak haur horiekin laguntzeko». Beraien irudiko, neurri horrek «Haur Hezkuntzako lehenbiziko zikloa erabat hautsiko luke eta oraingo armonia, goxotasuna eta kalitatezko zaintza galduko litzateke».

Hezkuntza Departamentuaren asmo horren gibelean «bada arrazoi bat» Arburuarentzat: «Uste dut jaiotze tasa jausten ari dela eta eskoletan espazio libreak gelditzen ari direnaren aitzakia erabiliko dutela, bi urteko haurrak eskoletan sartzeko justifikatzeko. Hala ere, berriz ere diot, zentzugabeak bat dela. Irtenbide errazena izanen litzateke, baina arazo bat moldatu eta bertze bat sortuko litzateke, bi urteko haurren kalterako».

Goñik ere garbi du «kalitatezko zaintza behar dutela, haien zentzu pentsatu eta diseinatuko espazio goxoetan». Eta egoera ikusita, Nafarroako Gobernuari eta udalei «benetako konpromisoa eta haur-tzaroko lehenbiziko etapa honetan inbertitzeko» eskatu die Magalakoez. «Modu horretan bakarrik ziurtatu ahal izanen dugu kalitatezko zaintza, haurren ongizate integrala bermatuko duena».



Aritz Ibarra komikigilea eta Aitor Elexpuru alkatea aurkezpenean. UTZITAKOIA

'Hona bostekoa!' komiki bilduma aurkeztu dute

Geuretik Sortuak bekaren barrena argitaratu dute bilduma eta borts komikigileren lanak bildu dituzte

A. LARRETXEKA

Urtarrilaren 26an aurkeztu zuen herritarren aitzinean Aritz Ibarra komikigileak Geuretik Sortuak bekari esker sortutako *Aldaxka pozoituak* komikia. Beran, Lesakan, Saran eta Urruñan egonaldia eragin ondotik garatu du komikia Ibarrek. Aurkezpenean, bere komikiaz gain, Geuretik Sortuak bekan argitaratutako bertze komikiak biltzen dituen *Hona Bostekoa!* komiki bilduma ere aurkeztu zuten.

Heldu den hilabeteetan bekari esker garatutako hainbat lan aurkeztuko dituzte. Ho-

rietan lehena, Antzerki Aroak konpainiaren 'Olagarrua' antzezlana izanen da eta otsailaren 17an emanen dute 19:00etan Kultur Etxean.

Jon Abril Atharratzen

Herriko idazle bat ere saritu zuten bekaren barrenean, Jon Abril Olaetxea. Zuberoan egin zuen egonaldia, Atharratzen, eta bere lana aurkeztuko du aurtengo udaberriko zirkuituan. Apirilaren 19an Atharratzen aurkeztuko du, eta maiatzaren 24an Lodosan. Bi aurkezpenetan Ainhoa Urien idazlearekin ariko da.

Euskarari buruzko hitzaldia interesgarria Iñaki lurrebaso soziologoarekin

A. LARRETXEKA

Iñaki lurrebaso soziologoak hitzaldi interesgarria eman zuen urtarrilaren 25ean Beralandetan. *Euskararen egoera. Zer diote datuek?* izenpean, azken urteetan egindako ikerketaren datuak aletu zituen soziologoak.

Gaur egungo egoera ulertzeko hainbat gako interesgarri eman zituen, tartean bere hipotesi nagusia ere azaldu zuen: euskara uste baino ahulago dagoela.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatua zen



Iñaki lurrebaso solasean.

hitzaldia UEMArekin elkarlanean, eta aitzinerago Bortzirietako datuak aletuz bertze solasaldi bat egiteko asmoa dutela ere aurreratu zuten.

Gure Txokoa elkarteak mus txapelketa azkarra antolatu du larunbaterako

A. LARRETXEKA

Gure Txokoa elkarteak bertze urte batez mus txapelketa antolatu du larunbaterako, hilaren 10erako. Txapelketa azkarra izanen da eta bazkideek harzuten ahal dute parte.

Elkartearen egoitzan, Iamotenean eginen dute 16:00etan hasita. Aitzinetik, izen ematea ordubete lehenago hasiko da eta bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu. Egunean berean antolaketan laguntzeko deialuzatu du elkarteak.

Sari ederrak

Parte hartzaileek sari ederrak izanen dituzte. Lehen bikote sailkatuak 250 euro eta ardo lotea izanen ditu saritzat; bigarren sailkatuak bi afari Zubiondon eta ardo lotea; hirugarren sailkatuak bi afari Zalainen eta ardo lotea eta laugarren sailkatuak Martikoko bi lote eta ardo lotea.

Gainera, bazkide bikote onena ere sarituko dute. Kasu horretan, bi afari Errekalden eta ardo lotea izanen dituzte saritzat.

Argitze, errehabilitazio neurologikorako zentroa

iktus, traumatismo, epilepsia, Parkinson, Alzheimer eta bertzelako dementsia eta eritasun neurodegeneratiboen ebaluazioa eta esku hartzea. Lanketa kognitiboa eta motorra. Neuropsikologia eta fisioterapia neurologikoa.

Santiago kalea 51 behe/eskua 20303 (Iruñ) (Gipuzkoa) +34 943 051 227

www.argitzeirunestimulacion.com
argitze.irun@gmail.com
@argitze.irun

JURIONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Aitzate, 21 • BERA

Arturo

arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria

Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

Pasabide lizentziak eskatzeko epea otsailetik aitzinera

2021ean onartu zuen ibi edo pasabide lizentziak arautzen dituen ordenantza udalak

A. LARRETXEA

Heldu den asteetan paratuko du martxan udalak ibi edo pasabide lizentziak eskatzeko prozesua. Pasabide lizentziek garaje edo etxabe batean sartzeko ibilgailu batek espaloi bat edo bertze edozein jabari publiko zeharkatzeko baimena arautzen dute.

Beraz, ibilgailu batekin garajera edo etxabera sartzeko espaloi bat edo bertze edozein jabetza publiko zeharkatu behar duen norbanako orok dagokion pasabide lizentzia eskatu beharko du. Hala egi-

ten ez badu, ez du baimenik izanen bere ibilgailuarekin garajera sartzeko espaloi bat edo bertze jabari publiko bat zeharkatzeko.

Pasabide lizentziak arautzen dituen ordenantza eta dago-kion ordenantza fiskala Oso-ko Bilkuran onartu ziren 2021ean, eta udalaren web-gunean (www.bera.eus) daude edozeinek irakurtzeko maneran. Hain zuzen, ordenantza horietan eskabideak tramitzatzeko betekizunak eta horiek emateko baldintzak zehazten dira.

Pasabide lizentziak bertan ezarritako irizpideen arabera baimenduko dira, eta lizentzia ematea bidezkoa ez den kasuak ere zerrendatuak ageri dira bertan.

Lizentzia horrek ezartzen du, baimena eskatutako pasabideetan ibilgailuak aparkatzeko debekua. Debeku hori udalak emanen duen plaka ofizialarekin seinaleztatu beharko da. Gainera, edozein ibilgailuk pasabide batean aparkatzea arau-hauste larria da, eta zigortu egingen da.

Ordenantzaren arabera, berariaz debekatuta daude pasabide lizentziaren plaka ofizialekin at aparkatzeko mugak jartzen dituzten seinale guztiak. Beraz, dauden seinale ez ofizialak erabat kendu edo ezabatu beharko dira, horiek erabiltzea arau-hauste hagitz larria baita, eta zigortu egingen da.

Ordenantzak ez du pasabide batean gaizki aparkatuta

dauden ibilgailuak kentzeko zerbitzurik ezartzen, eta une honetan zerbitzu hori ez da martxan jarriko logistika arazoengatik. Gaizki aparkatutako ibilgailuak kentzeko garabi zerbitzua ezartzen ez den bitartean, pasabide lizentziaren urteko tasa erdira murriztuko da.

Pasabide lizentziak tramitatzeko epea otsailaren amaiera aldean irekitzea espero du udalak. Hala ere, epea ireki bezain agudo, izapideak egiteko behar den informazio guztia paratuko dute herritarren eskura.

Liburutegia itxia

Lerro hauek idazterakoan, liburutegi publikoak ia hilabete bat zeramatzan atek itxita. Lan baimenarekin dago bertako arduraduna, eta Nafarroako Gobernuak ordezkorik bidali ez duenez, hilabete da herritarrak liburutegi zerbitzurik gabe daudela.

Bera Hurbil aplikazioa itxuraberrituko dute, eta laster eskuratzen ahalko da

A. LARRETXEA

Duela bi urte, udalak Bera Hurbil aplikazioa jarri zuen martxan, eta geroztik 600 beratar baino gehiago erregistratu dira, herrian gertatzen diren azken nobedadeen eta egiten diren kultur ekitaldi garrantzitsuenen berri lortzeko. Hurbiltasun eta

gardentasun-politika horrekin jarraituz, heldu den asteetan aplikazioa berrituko dute, erakargarriagoa, intuitiboagoa eta erabilerrazagoa izan dadin. Aldi berean, bertze udal-zerbitzu batzuetarako eta tokiko kultura, kirol eta merkataritza



Aplikazioaren itxura eraberritua.

eragileetarako sarbide berriak ezarriko dituzte.

Aplikazio berria prest dagoenean, erregistratutako erabiltzaile bakoitzak modu errazean deskargatzeko gonbidapena hartuko du bere postan, eta deskargatu ondotik, aplikazio berriarekin erabili nahi dituen erabiltzaile eta pasahitza sartu beharko ditu. Play Storen edo Apple Storen ere deskargatu ahal izanen da.

Inauterien prestaketan ari dira herritarrak

Kaldereroekin hasi eta heldu den astelehenean bukatuko dira herriko inauteriak. Tartean zingar arroltze eskea, Inudeen eta Artzainen desfilea eta konpartsa, karrozak... denetarik ikusteko aukera izanen da herrian. Egitarau zehatza 40. orrian aurkituko duzue.



Kuadrilla bat iaz mozorrotuta.

Herrian ospatuko dute Udalerri Euskaldunen Eguna

Maiatzaren 18ko ospakizuna antolatzeko bilerak egiten hasiak dira eta UEMAREN urteko batzarra ere egun horretan egingen da

AITOR AROTZENA

Lesakan ospatuko dute aurten Udalerri Euskaldunen Eguna, maiatzaren 18an. Bi urtean behin egin ohi da udalerrri euskaldunen ekarpena eta garrantzia nabarmentzeko topaketa, eta Udala, herriko eragileak eta bera hasi dira egunaren nondik norakoak antolatzen.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) herriena ez ezik, gainerako udalerrri euskaldunen bilgune ere izaten da Udalerri Euskaldunen Eguna, eta aurtengoa ere horrela izatea nahi dute UEMAK eta Lesakako Udalak. Horretarako, eta eguna ahalik eta erakargarriena izan dadin, urtarrilaren 23an egin zuten lehen bilera herriko taldeekin eta eragileekin, herriko etxean. Antolaketa lanei ekitea, horretarako talde eragilea sortzea eta eguna herrikoia izan dadin bitartekoak adostea izan zen lehen bileraren helburua, eguna arrakastatsua izan dadin elkarlanean aritzea ezinbertzekoa dela iritzita. Ondotik, urtarrilaren 30ean ere egin

zuten bilera eta hurrengo bilera otsailaren 20an, 19:00etan egingen dute herriko etxeko batzar aretoan.

Arnasguneek eta udalerrri euskaldunek euskararen biziberritzeari egiten dioten ekarpena ikusaraztea, eta euskararen lurgunea babesteko eta sendotzeko beharra nabarmentzea izanen da maiatzaren 18ko egitarauko asmo nagusia, besta eta aldarrikapena uzartuz.

UEMAREN batzar nagusia ere

Egun osorako egitarau zabala izanen da, eta ohi bezala UEMAREN batzar nagusia ere egingen dute egun horretan Lesakan. Horrez gain, bazkari herrikoia ere antolatuko dute egitarauaren barrenean. Antolatzailerak hurrengo asteotan aletuko dituzte egitarauaren eta ekitaldien xehetasunak, baina argi dute herritarren, euskalgintzaren eta erakundeen arteko zubia izan behar duela egunak, UEMAREN beraren izaera islatuz eta euskal herritar guztiak euskararen zubira gonbidatuz.

Beti Gazte elkartearen batzarra otsailaren 17an egingen dute

Beti Gazte elkarteak urteko ohiko batzarra deitu du otsailaren 17an, larunbatean 19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarrenetan. Elkarrearen egoitzan egingen dute bilkura, Alondegian. Iazko batzarraren akta irakurri eta, bidezko bada, onartu

ondotik, 2023an egindako ekitaldiak eta kontuen balantzea, 2024ko ekitaldiak eta aurrekontua, kuotak eguneratzea, informazioa eta bertze gaiak aztertuko dituzte, eskari-galderen txandarekin bukatzeko. Ondotik *luntx* ttiki bat ere eskainiko dute.



UTZITAKOA

Elkartasun saskia Ibon Txoperenarentzat

Merkatariek eta ostalariek emandako produktuekin osatutako saski ederra zozketatu dute Etxeraino elkartasun zozketan. 2.400 zenbakia izan da saritua eta horren jabea da Ibon Txoperena Elosegia. Antolatzailerak eskerrak eman nahi dizkiete saria posible egingen duten komertzioei eta ostatuei.



IBON ERRAZU URIA

Nafarroako X. Trikiti jaialdi ederra

Nafarroako X. Trikiti jaialdia Harriondoan ospatu zuten urtarrilaren 27an. ETBk grabatu eta otsailaren 17an eskainiko duen jaialdiaren ondotik, karrizak karriz ibili ziren musikariak eta 140 lagun bildu ziren Koxkontan egindako afarian. Antolatzailerak hagitx balorazio positiboa egingo dute.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldiaren irekiera
urtarrilaren 12an.
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

Haurren parte-hartzea sustatzeko Hezkuntza Foroa

Oinherri egitasmoarekin bat egin du udalak eta inkestari erantzun diote ikasleek lehenik eta gainerakoek ondotik

A. AROTZENA

Oinherri egitasmoarekin batera, Lesakako Hezkuntza Foroa osatu du udalak. Hainbat ideia landu nahi ditu mahai honek, baina hasierako hila-beteetan, jorratuko diren helburu nagusiak hauek izanen dira: Haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzea; adin txikiko herritarrek haien hitza helarazteko bideak ezartzea; herritar aktibo moduan bere espazioa aitortzea eta ematea; haurtzaroa eta nerabezaroa zaintzea eta haurren parte-hartze-kontseilu bat herrian osatzea.

Hezkuntza foro honetan, Tantirumairu Ikastolako eta Irain Eskolako ordezkariak gain, Bortzirietako berdintasun teknikariak, Gizarte mankomunitateko teknikariak, Uxue Royo zinegotziak eta Ladis

Satrustegi alkateak parte hartzen dute. Hala ere, aitzinera begira taldea zabalagoa izatea aurreikusten dute, bertzehainbat eragile bertara gonbidatuz.

Haurren parte-hartzea

Foro honek duen helburu nagusietako bat haurren parte-hartzea sustatzea izanik, ikerketa lan bat abiatu du taldeak. Herriko Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako haurrei eskola orduetan proiektuaren berri eman zitzaien, eta ondotik haien parte-hartzeari buruzko inkesta bat erantzun zuten. Gero, helduen txanda izan da, eta bigarren inkesta anonimoa herritarren artean zabaldu da otsailaren 2ra bitarte. Honen bitartez haur eta nerabeen parte-hartzearen inguruan datuak bildu dituzte.



LEIRE PAGADIZABAL IGARZABAL

Inauterietako kartel irabazlea

Leire Pagadizabal Igarzabal zenaren *Folklore* lanak irabazi du inauterietako kartel lehiaketa. Aurkeztutako zazpi lanen artean bozkatzeko aukera izan zuten herritarrek liburutegian izan zen erakusketan eta hau izan zen bozkatuena. 250 euroko saria Iñurri elkarteari emanen zaio, familiaren nahia betez.

2022an baino bisitari eta erabiltzaile gehiago izan zituen udal liburutegiak iaz

A. AROTZENA

2023. urtea bukatuta, Lesakako liburutegi publikoko behin-behineko datu estatistikoak eman dituzte. Marcos Tantos Arriaga liburuzainak azaldu duenez, iazko urtea «bikaina» izan zen herriko liburutegiarentzat.

Datutan, iaz 4.778 ale mai-legatu zituzten (2022an baino % 23 gehiago eta azken hamarkadako kopururik handiena). 9.136 bisita izan zituen liburutegiak (2022an baino % 21 gehiago). Honela, azkeneko hiru urteetako beheranzko joera aldatu da, baina pande-



Ipuin kontalaria liburutegian iaz.

mia aitzineko datuetatik urrun dago oraindik (2019an 27.306 bisita izan ziren, inoizko kopururik handiena). 71 bazkide berri egin zituen iaz liburutegiak eta guztira 1.422 dira, herritarren erdia baino gehiago (% 52a).

Jarduerei dagokienez, 34 ekintza antolatu zituzten iaz, irakurle klubak, solasaldiak, aurkezpenak eta ipuin kontalariak, bertzeak bertze.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antuzelai.com
www.antuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK




744 484 361
ttipi-ttapa



17 lagun bildu ziren urtarrialaren 27ko batzarrean.

Berrikuntzekin hasi du urtea sute elkarteak

Gaur egun 159 bazkide dituen elkarteak irudi berria egin du, baita euskaraz estatuak aurkeztu ere

IRUNE ELIZAGOIEN

Itxuraberritua hasi du urtea Etxalarko Sute Elkarteak. Ur-tarrilaren 27an egin zuten batzar orokorra, 17 lagun elkartu ziren eta kapitalak eguneratzeaz gain, logotipo berria aurkeztu zuten, baita estatuak euskaraz aurkeztu ere.

Etxalarko Sute elkarteak 1876. urtean sortua da eta etxeen suteetan laguntzeko herri mailako aseguru da. Elkar laguntzan oinarritzen da eta etxeen egituren kalteak estaltzen ditu. Gaur egun, 215 poliza aktibo eta 159 bazkide ditu. Ez du urteko kuotarik eta erabaki

guztiak batzar orokorretan hartzen dituzte.

Etxeak lau kategoriatan banatuak dituzte eta elkarteak etxe bat erretzen denean bakarrik ordaintzen dute. Bazkideen su-itzalgaileen errebioak urtero egiten dituzte eta auzo ordezkarien baserrietan eta herrian suteen kontrako baliabideak eskaintzen ditu.

Norbaitek interesa baldin badu, etxalarkosuteelkatea@gmail.com helbidera idazten ahal du edo bertzela, Matisoneko Antoniorekin edo Xindolako Laurarekin harremanetan jarri.

2.320 euro bildu dituzte beharrenda daudentzat

Beharrenda daudenei laguntzeko asmoz, Etxalarko parrokiako juntak, bertze urte batez, diru bilketa egin du. Jakinarazi dutenez, aurtengoan bildu duten kopurua 2.320 eurokoa izan da. Eskerrak eman nahi izan dizkiete euren ekarpena egin dutenei.

Herritarrak inauterien esperoan

Inauterien atarian, herritarrak prestaketetan ari dira. Auto zaharren hotsa, baserri ibiltzeko erremolkearen konponketa, antzerkien entsaioak, mozorroen prestaketak... Otsailaren 8an, hasi eta astearte inaute egunarekin bukatuko dira. Xehetasunak 33. orrialdean.



SERGI PARAMÉS

Itsaso Elizagoien trikitixa elkarteak

Agurtzane Elustondori lekukoa hartuta, urte berriarekin, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak lehendakari kargua hartu du Itsaso Elizagoienek. Horrez gain, Carlos Nuñez gaitari galiziarrekin Eguberrietako bira egin du. Suitzian hasi eta Espainian eta Frantzia ibili ondoren, Dublinen eta Glasglown bukatu dute.



AEK

Korrikako kilometroak hartzeko aukera

Martxoaren 14tik 24ra izanen da Korrika eta bertako kilometroak hartzeko aukera dago Garazi Lujua herritarrarekin harremanetan jarrita: Kilometro osoa (450 euro) edo erdia (225 euro). Eta Korrikako petoak sei eurotan eta txapak euro batean salgai izanen dira kultur etxean, otsailaren 8tik aitzinera.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidarre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36



Urtea baino gehiago geldirik egon den Elizateko lanarekin segituko dute.

1,4 milioi euroko urteko aurrekontua izanen du udalak

Historiako aurrekonturik handiena da eta milioi erdi bat baino gehiago Elizateko lanekin segitzeko erabiliko da

ANA ETA ITZIAR

Joan den urtarrilaren 10ean, Igantziko Udalak 1.399.747,00 euroko aurrekontua onartu zuen 2024. urterako. Hauek dira bere historiako aurrekonturik haundienak. Oro har, azken urteetan egindakoildoari eusten zaio, eta ahalegin handia egin da berriz inbertsioen kapituluan. Zalantzarikgabe, hori da aurrekontuaren alderdirik azpimarragarriena, 703.200 eurokoa baita.

Elizatean 550.000 euro

2022. urtearen bukaeratik, enpresa eraikitzailearen porrotaren ondorioz, geldituta segitzen duen Elizatea eraikinaren birmoldaketan esfortzu handiena eginen du udalak, 550.000 euro paratuta. Horretarako, Udalak 112.000 euroko Europako dirulaguntzak lortu ditu dagoeneko, eta bertze finantza-ekarpenak lortzeko lan egiten ari da.

Beti bezala, mendiko lanetan ere inbertituko da. Aurten, 57.000 euroko gastua aurreikusita, eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko 82.000 euro inbertituko dira. Gainerakoa

inbertsio txikietarako erabiliko da.

Langileen gastuetarako 265.150 euro erabiliko dira, eta gastu eta zerbitzu arruntetarako, berriz, 277.897 euro; bertzeak bertze, herriko besetarako 25.000 euro.

Era berean, 131.495 euro transferentzia arruntetarako erabiliko dira, hau da, Bortziritako hiru mankomunitateak, Berdintasun bulegoa, UEMA, Cederna-Garalur, Uraren Bailerak, etab. Kapitulu honetan, kultura eta gizarte eragileekin egindako lankidetzak hitzarmenak ere sartu dira. Hitzarmen horiekin lanean ari gara aspalditik, eta 8.500 euroko dirulaguntzak aurreikusten dituzte.

Bukatzeko, 1.475 euro finantza-gastuetarako eta 20.530 euro zorra amortizatzen erabiliko dira, Igantzin inoiz lortu ez den kopuru bat osatu arte.

Aurrekontua zehatzago eza gutu nahi duen edonor harremanetan jar daiteke udalarekin ohiko bideak erabiliz, eta atsegin handiz emanen zaio informazioa.



Hainbat bazkide bildu ziren ilbeltzaren 27ko batzarrean. ANA ETA ITZIAR

Urtzi Loiarte da Igantziko Biltoki elkarteko lehendakari berria

Urtero sasoi hauetan egin izan ohi den gisan, aurtengo Biltokiko Batzar Orokorra ilbeltzaren 27an egin zen. Bertzeak bertze, urteko ekintzak, 2023. urteko kontuak eta bazkideen alta eta bajak jakinarazi zituzten. Ondotik ez ohiko bilera egin zen eta bertan junta berria osatu zen. Horrela, aitzina

neko juntatik gelditu diren sei lagunekin batera lanean ariko diren batzordeko kideak izendatu zituzten. Lehendakaria: Urtzi Loiarte Iribarren. Diruzaina: Enaitz Telletxea Sein. Idazkaria: Maria Iantzi Irigoien. Bokalak: Karlos Sein Garcia, Felipe Lizardi Tranche eta Zumai Txoperena Eugi.

Ehun zuhaitz landatu dituzte Arbolaren Egunean

Otsailaren 1ean egin zen eskolak urtero egiten duen arbolaren eguna. Haur Hezkuntzakoak kotxetan joan ziren gurasoekin eta gainerakoekin, berriz, eguraldia aprobetxatuz, oinez. Giro ederrean joan zen eguna eta 100 bat zuhaitz landatu zituzten Fraingo magaletan. Arbol landaketari akabaila emateko, haur nahiz irakasleek bertso batzuk kantatu zituzten eta, gero, Guraso Elkarteak prestatutako hamaiketako ederra dastatu ahal izan zuten hurbildutako haur, guraso eta irakasleek.

Eskolako jardunaldia erabakitzeke bozka

Dakizuen bezala, Igantziko Eskolako haurrek jardunaldi zatituan dihardute azkeneko urteetan; hala ere eskolak honen harira gurasoen iritzia jakin nahi du heldu den ikasturtean zein jardunalditan ari jakiteko. Honetarako bilera informatiboa antolatu zuen eta ondotik bozka bidez familia bakoitzak bere iritzia emateko aukera izan zuen. Hau idazterakoan ez dugu bozketako emaitzaren berririk, baina orain arte egin diren jardunaldi zatituaren alde egin dute gurasoek.

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus
bisitatu gure online denda!

102 Meaka ezuzo
20304 IRUN - T.943 623 130

- 🍏 Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- 🍏 Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- 🍏 Asteartetik larunbatera afariak. Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan.
- 🍏 Sagardotegi menuarekin egin txotxi!

ARANTZA



Herritarrei banderolak paratzeko deia egin die Arantza Bizirik taldeak. JR AMOROS

Makroproiektu eolikoaren kontra banderolak

Arantza Bizirik taldeak banderolak atera ditu eta herritarrei etxeko leihoetan eta balkoietan paratzeko deia egin die

NEREA ALZURI

Egoitza fiskala Madrilen duen Zelena Renewable SL enpresak herriko lurretan egin nahi duen makroproiektu eolikoaren kontra, lanean segitzen du Arantza Bizirik taldeak. Berriki, *Arantza bizirik* leloarekin eta makroproiektu eolikoaren kontrako irudiarekin banderolak atera ditu, eta gisa horretara, «gure mendiak eta Arantza bizirik nahi ditugula» aldarrikatu nahi du. Dagoeneko hainbat etxetan eta baserrian paratu dituzte banderolak, eta taldeak herritar guztiei egin die banderolak balkoietan eta leihoetan para-

tzeko deia. Banderolak bortz eurotan salgai daude herriko dendetan eta ostatuetan.

Horrekin batera, Arantza Bizirik taldeak oroitarazi nahi izan du enpresak argindarra sarera konektatzeko baimena lortua duela eta oraindik proiekturik aurkeztu ez badu ere, edozein momentutan egiten ahal duela. Kokapen zehatzik ez badago ere, Bulatxiki alderdia da Arantza Bizirik-en arabera, «200 bat metroko eoliko erraldoiak paratzeko arrisku handiena duen tokia». Hurrengo bilera otsailaren 16an egingen du, 18:30ean, Ekaitza Elkartearen.

Arantza Hotela: Europako hotel jasangarri hoberena

Arantza Hotela bertze sari bat hartu du: Europako Hotel Jasangarri Onenaren GrINN2023 Saria, Only Adults 5 izarreko kategorian, Europako turismo jasangarriari dagokionez. 51 herrialde eta 100 kategoria hartu dituen hautaketa prozesu zehatz batean aukeratu dute.

Mus txapelketako kanporaketa otsailaren 17an

Aurten ere Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa antolatu du Ekaitza Elkarteak. Otsailaren 17an izanen da eta irabazleek Iruñean jokatu duten Nafarroa mailako kanporaketara sailkatuko dira. Euskal Herriko finala martxoaren 23an Altzain (Zuberoa) egingen dute.



Orain dela bi urteko edizioan herritarrak Korrikan. AEK

Arantzako Korrika Batzordea lanean ari da

NEREA ALZURI

Bi urteren buruan, Korrikaren 23. edizioa ate joka dugu. Martxoaren 14tik 24ra, *Harro Herri* lelopean, Irundik Baionarat izanen da euskararen aldeko lasterkaldi jendetsua eta koloretsua. Euskal Herri osoa gurutzatuko du Korrikak, 11 egun eta 10 gau eta 2.500 kilometro

euskararen alde eginez. Honderreko egunean, goizaldean, Bortzirietan ibiliko da, Lesaka eta Bera inguruan eta eskualdeko Korrika batzordeetan guztia prestatzen ari dira. Herrian ere talde bat biltzen hasia da eta ortziraile honetan, hilaren 9an, 17:30ean berriz ere elkartuko da Korrikako aferak lantzeko.

Ekoizlea zara?

Hurbileko eta kalitatezko produktua bilatzen ari gara.

Salmentak bultzatzeko laguntza behar baduzu edo bezero gehiagorengana iritsi, hau da zure aukera. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu hurrengo zenbakira:

☎ 649 783 783



Eskoletako ordezkariak errekonozimenduen banaketan. UTZITAKOA

Bikaintasunaren eta kalitatearen zigiluak hainbat eskolatan

Berako, Elizondoko, Lesakako eta Doneztebeko eskola publikoak saritu ditu Hezkuntza Departamentuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako 22 ikastetxeri Kalitatezko Zentro eta Bikaintasunezko Zentro sariak eman dizkie. Tartean dira Arantzako, Berako, Elizondoko, Lesakako, eta Doneztebeko eskola publikoak.

Zehazki, Arantzako eskolak, Berako Ricardo Baroja eskolak, Elizondoko eskolak eta Lesakako Irain eskolak Kalitatezko Zentro modura zuten errekonozimendua berri

dute eta 2022-23 ikasturteari dagokion Bikaintasunezko Zentro izendapena berri du Doneztebeko San Miguel ikastetxeak.

Urtarrilaren 26an egin zuten errekonozimenduen banaketa Iruñean eta bertan nabarmendu zuten saritutako ikastetxeek arrakastaz diseinatu eta ezarri dituztela Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren berezko araudiaren arabera kalitatea kudeatzeko sistemak.

Ekitaldian izan ziren bartz eskola horietako zuzendariak eta ordezkariak.

Jardunaldi jarraitua ezartzeko prozedura hasi dute eskualdeko 24 ikastetxetan

TTIPI-TTAPA

Iazko azaroan ezarri zuen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ikastetxetan jardunaldi zatitua. Jardunaldi jarraitua edo malgua nahi dutenei, ordea, aukera eman zien eskolan berean bozketa egiteko prozedura

berri bat onartzu. Prozedura hasteko guttienez eskola kontseiluaren %25eko babesa behar zuten.

Eskualdean herri hauetako ikastetxe publikoetan hasi dute prozedura jardunaldi jarraitua bozkatzeko: Almandoz, Amaiur, Areso, Arizkun, Arraioz



Kolektiboko eta Korrikako kideak omenaldi ekitaldian. KORRIKA

Korrikak Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu du

TTIPI-TTAPA

Euskararen alde egindako lana saritu ohi du Korrikak bi urtetik behin, eta aurten Seaskako irakasleek, ikasleek, burasok eta laguntzaileek osatzen duten Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu du. Tartean dira eskualdeko irakasleak, burasok eta ikasleak ere, Xaretako ikasle andanak ikasten baitu Seaskan. Urtarrilaren 25ean egin zuten ekitaldian Hondarribian, Seaskako kideak bertan zirela.

«Euskara da Azterketak Euskaraz kolektiboaren aldarria, Korrikarena bezalaxe. Ikasle horiei, beren bizitzako une erabakigarri batean, baxoa eta brebeta egiteko orduan, azterketek sortutako berezko ezinegonari beste zama bat inposatzen diete: ikasketetan erabili ez duten

hizkuntzan aritzea, frantsez sezez alegia. Hala ere, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin eta egiten dute, Frantziako Gobernuaren aginduen gainetik, beren notetan kalteak onarturik», nabarmendu zuten ekitaldian.

Kolektiboaren lana aitortzeko oroigarri bana eman zieten Seaskako bost kolegioetako ordezkariari, tartean Senpereko Kattalin Elizaldekoie, eta baita Bernat Etxepare lizeokoei ere. Ekitaldian ikasleek, irakasleek eta Seaskako arduradunak hartu zuten hitza eta *Oihaletxea* dokumentala ere aurkeztu zuten. Azterketak Euskaraz kolektiboa osatzen dutenen testigantzak biltzen ditu dokumentalak eta Lander Garrok zuzendu du.

Azpilkueta, Doneztebe, Elizondoko, Erratzu, Etxalar, Gartzen, Goizueta, Igantzi, Iruñea, Ituren, Legasa, Leitza, Lekaroz, Lesaka, Oronoz, Saldias, Sunbilla, Ziga eta Zugarramurdi. Arantzako, Berako eta Narbarteke eskolan, aldiz, jardunaldi zatituarekin segituko dute.

Bozketa egin ondotik, martxoaren 1a izanen da txostena bidaltzeko azken eguna.





Gosari ederra eginda hasi zituzten inauteriak gazteek.



Klase aunitzetako mozorro koloretsuekin atera ziren ortziralean herritarrak.

Aurtengo inauteriak ere borobilak izan dira

Eguraldi ederrarekin haur, gazte eta helduek gozatu dute inauterietan

MAIDER PETRIRENA

Eguraldi ederra, giro ona... A zer asteburua izan zen urtar-rileko azkena. Hiru egunez, inauteri giroan murgilduta pasatu zituzten herritarrek, eta inauteriak borobilak atera ziren.

Ortziralean eskea, haurren kalejira eta emakumeen afaria

Ortziralean, gazteek eman zioten hasiera inauteriei, Ariztigain kanpinean gosari ederra eginda. Urteroko familiako argazkia ere atera zuten. Ondotik, bi taldetan banatu eta Meaka aldekoak Joxe Angel akordeoilariarekin baserrietan eskean ibili ziren. Mendaur aldekoak, berriz, Modesto izan zuten musika lagun.

Eskolako ikasleek eta irakasleek ere tailerrak egin zituzten inauterien seinalea eginez. Eta ondotik, kalejira egiteko eguraldia ezin hobea izan zuten. Arratsaldean txokolatea eta musika izan zuten plazan. Eta arratsean, 80 emakumek afaria ederraz gozatu zuten, baita sorpresa politaz ere: Las supremas de Móstoles! Ondotik, bingoan ere ibili ziren.

Larunbatean eskea eta musika elkartean

Larunbatean gazteak herrian barna eskean ibili ziren Beñat Mitxelena akordeoilariarekin eta arratsaldean Ulibeltzak elkartean J&J Djk giro ederra paratu zuten.

Igandea egun handia

Igandean eguraldi beroa bezain giro ederra izan zen. Urtero bezala, lehenbiziko hiru karrozak saldarekin (380 litro), tortillekin (1.400 arroltze), gaztainekin, ardoarekin eta taloekin (40 kilo irina) atera zituzten eta karrozak ikustera joandako ikusleen artean banatu zizkieten. Segidan hasi zen kolore eta ikuskizun besta, karrozekin: *A taldea, Sorginkerietan, First dates, Dakar, sanferminak, Ali Baba eta 48 lapurrak, Aupa Roxio, Piensa en Verde, Etxos un Belen...* Bukarera, zozketen txanda izan zen.

Inauteri bikainak izan dira, eta hori horrela izan dadin lanean aritu diren guztien ekarpena eskertzekoa da. Herrira hurbildu ziren guztiei ere, eskerrik asko.



Salda, tortilla, gaztaina, ardoa eta taloak banatu zituzten desfilearen aitzinetik.



Ali Baba eta 48 lapurrak ere Sunbillara ailegatu ziren.



Sorginak ere ez ziren urruti ibili.



A Taldeko kideak igandeko desfilean.

Ogasuneko eta Enpleguko bulegoak eraikin berean

Osasun etxe zaharra eraberritu eta bertan paratuko dituzte Ogasuneko eta Enpleguko bulegoak

TTIPI-TTAPA

2019ra arte osasun etxe izandakoa zaharberritu eta hortxe paratuko dituzte Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoa, SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoa eta Ogasuneko bulegoa.

2019an eraiki zuten herriko osasun etxe berria, eta zerbitzua lekuz aldatu ondotik, eraikin zaharra hutsik gelditu zen. Udalak maiatzean utzi zion Nafarroako Gobernuari eraikina, doan.

Zerbitzuak leku berean zentralizatu, orain arteko espazio faltari soluzioa ematea da helburua. Izan ere, orain arte arazo handiak zituzten bi bulegoetan lekuari dagokionez. Enplegu bulegoan formazioak egiteko espaziorik gabe zeuden, eta Ogasuneko bulegoan, aldiz, ez zuten lanerako beharrezko espaziorik.

Aldaketa heldu den urtean

Eraberritze lanei dagokionez, otsailaren 19an bukatuko da enpresak deialdira aurkezteko epea eta behin esleipena egin ondotik, lanak bederatzita hila-

betez luzatzea aurreikusia dute. Aurreikuspena, bulego aldaketa heldu den urteko udaberriaren egitea da.

Enplegu bulegoko Marijaganeboak TTIPI-TTAPAri kontatu dionez, pozik hartu dute berria eta «balorazio hagitz positiboa» egin dute. «Nafarroako Gobernuko zerbitzuak toki berean egotea hagitz garrantzitsua iruditzen zaigu, eta administrazioa herritarrengana hurbiltzea ekarriko duela espero dugu», azaldu du Ganboak.

Gainera, nabarmendu du, gaur egungo bulegoak duen arazo handienetako bat «formakuntzak egiteko espazio falta» dela, eta bulego berriaren aldiz, hiru gela izanen dituztela horretarako. «Espazio horiek bertze administrazio batzuk ere erabiltzen ahalko dituzte, administrazio arteko koordinazioa hobetuz», azaldu du.

Akitzeko, nabarmendu du hasieratik aldaketaren berri izan dutela, eta prozesu osoan parte hartzeaz gain, kontuan hartu dituztela beraiek egingandako proposamenak eta hobekuntzak.



Osasunaren futbol eskolari ari diren jokalariek entrenatzailearekin. UTZITAKOIA

Osasunaren futbol campusa egingen dute Aste Santuan

TTIPI-TTAPA

Osasunak, Doneztebe Futbol Taldearen laguntzarekin batera, futbol campusa antolatu du Asten Santuan. Apirilaren 2tik 5era elkartuko dira, eta 4 eta 14 urte bitarteko haurrek eman dezakete izena. Izen emateak martxoaren 22ra arte egiten ahal dira, www.fundacionosasuna.com helbidean.

[fundacionosasuna.com](http://www.fundacionosasuna.com) helbidean.

Aste Santuko campusaz gain, aurtengo ikasturtean Osasunako futbol eskolan 25 haur ari dira futbolekin. Horietatik gehienak Malerrekakoak dira, baina, badira Lesakatik joandako haurrak ere. Goiko irudian ageri dira jokalariek.

Gorka Urbizuren lan berriko argazkiak herrian

Urtarrilaren 15ean kaleratu zuen Gorka Urbizu musikariak bere lehenengo bakarkako lana. Tartean, Doneztebek ere badu presentzia, izan ere Parrokia 13 dendan dagoen Beltza Experience gunean atera dituzte diskoko argazkiak.



IBAI ARRIETA

Errekak 1.200 euro eman dizkio Pequeña Guerrerari

San Silvestre solidarioan bildutako 1.200 euro eman dizkio Errekak Nafarroako kardiopatiak dituzten haurren alde lan egiten duen Pequeña Guerra elkarteari. Errekak eskerrak eman nahi dizkie parte hartzaileei: «Eskerrik asko denei, bihotz- bihotzez».



Errekako eta elkarteko ordezkariak.

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Irubea Irun errepedisa, z/g. T. (+34) 948 592 325
ORNOZ-MUGAIRI F. (+34) 948 592 295



Joaldunak Latsagan Inauterietako astelehenean, jendetzaren artean joareak astintzen. ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO, AINARA MINDEGIA ETA IZASKUN ZUBIALDE

Joaldunen harat-honatak giro epelean

Inoiz baino jendetza handiagoa hurbildu zen Inauterietako astelehenean Iturenera eta asteartean Zubietara, aunitzek autobus zerbitzu berria erabiliz eta Laxaro Erregerena Iturengo joaldunen buruak, 55 urteren ondotik, azken aldiz jantzi zituen joareak

TTIPI-TTAPA

Giro epelean eta izugarriko jendetzaren artean egin dituzte aurten inauterietako harat-honatak joaldunek eta mozorroek. Aurten, lehen aldiz, autoak Donezteben eta Elgorriagan utzi eta handik autobusean hurbiltzeko aukera izan dute bisitariak, Ituren eta Zubietako udalaren ekimenez. Horrek, ibilgailuz arindu ditu errepide bazterrak, baina ez du jendea gibelera bota. Inauterietako astelehenean Ituren eta asteartean Zubietan jendetza handia

bildu zen, «inoiz baino gehiago». Horren ondorioz, astelehenean ez zuten kanpoko jendea sartzen utzi Iturengo herriko etxeko ganbaran. Horren ordez, Laxaro Erregerena plazara jautsi eta bertan jantzi zituen joareak, bizkarlarruak eta joaldunen gainerako tresnak, jendeak nola egiten duten ikus zezan. Haserre gogoratu zuen iaz hisopo bat desagertu zitzaizela eta «horrek balio handia du guretzat». Hain zuzen, azken aldiz izan da Erregerena Iturengo joaldunen buru. Hamabotz urterekin hasi zen

joaldun eta 70 urte beteak dituzenez, 55 urtez atera da joaldun. Denera 90 bat joaldun bildu ziren gero Iturengo plazan, hartzarekin batera, baita hainbat mozorro berezi ere: Mendauroko Trinitate baselizaren 1963. urteko zaharberritzea gogoan zuen karroza, makroproiektu eolikoaren kontrako aldarria egiten zuena, 'Zubietako zerrenda arto tartin', Patxiku Aita Santua bisitan papamobilean, DGT 'Direkzion General de Turistaz', iratze-metak, Francoren garaiko eskola, kabernikolak, Aquapark eta

guzi... Iturenera hurbildu ziren bisitari ugariaren artean zegoen Cristina Garcia Rodeiro argazkilaria ezaguna ere. Berak gogoratu zuenez, duela 50 urte atera zuen lehen aldiz Iturengo inauterietako argazkia, euripean eta orduan hiru argazkilaria baino ez ziren.

Asteartean Zubietan, berriz ere kasik 80 joaldun bildu ziren, baina hartzik ez zen azaldu. Hori bai, bezperan Iturenen izan ziren mozorro gehienek ere beraien lanak egin zituzten jendez lepo zegoen Zubietako plazan.

Ohi bezala, joaldunen azken ateraldiarekin batera, kontuen eguna izan zuten asteazkenean Zubietan. Puska biltzen ere ibili ziren Zubietan, Aurtitzen eta Iturenen egun horretan. Larunbatean Iturenen egin zituzten kontuak eta herri kirolek, dantzak eta Andoni Egaña eta Julio Sotoren bertsoek ere ez zuten hutsik egin. Aurtitzen igandean egin zituzten kontuak, bazkariarekin.



Joaldunak Iturengo plazan, inauterietako astelehenean.



Aurtizko joaldunak, Iturengo karriketan.



Mozorroak Ituren eta Zubieta arteko bidean.



Mozorroek beraien lanak egin zituzten, joaldunak agertu baino lehen.



Zubietako emakumeak, joareak eta ttuntturroak prest.



Zubietako joaldunak, Iñaki Etxeberria hartzaren zaintzailearekin.



Musika ere behar beharrezkoa da inauterietako giroa berotzeko.



Mozorroak iratze-metan.

Otsailaren 4an hasita egingen dituzte herrietako bestak

Martxoaren 14an jokatuko dute mus txapelketako finala Donezteben eta herri bakoitzeko hiru onenak lehiatuko dira

TTIPI-TTAPA

Azkeneko aldizkarian herriz herriko bestak eta mus txapelketak egitekoak zirela aipatu genuen, eta dagoeneko horiek egiteko lehen datak zehaztu dituzte.

Beran otsailaren 4an elkartuko dira; Arantzán otsailaren 11n; Legasan, NARBARTEN, OIE-REGIN, Oronoz-Mugairin, Arraiozen, Almandozen, Berroetan, Anizen eta Zigan otsailaren 15ean; Igantzín otsailaren 17an; Baztangoizan (Urdazubi, Zugarramurdi, Amaiur, Azpilkueta, Arizkun eta Erratzu) otsai-

laren 22an, Elizondon, Elbeten, Iruritan, Lekarozen eta Garzainen otsailaren 23an, Leitzán otsailaren 25ean eta Etxalarren egun berean, baina txapelketa egiteko.

Igantzin mus txapelketarekin batera, partxisekoa ere egiten da. Bertze herriren batean partxis txapelketa antolatu nahi bada, irabazleek, gero azken fasea musekoarekin batera egiteko aukera izanen dute. Oroitu azken fasea martxoaren 14an egingen dutela Donezteben, eta herri bakoitzeko lehenengo hiruak ariko direla.

40 lagun pentsioen inguruko hitzaldi informatiboan

Urtarrilaren 17an hitzaldi informatiboa izan zen elkarteko egoitzan. Bertan, gizezko jubilatuek, ezinduek edo alargunek izan ditzaketan onura ekonomikoari buruz aritu ziren eta, interesa piztu zuenaren seinale, 40 lagun inguru hurbildu zirela.



Aditua azalpenak ematen. UTZITAKOIA

Delegatuak behar dira, Donezteben, Lekarozen, Amaiurren eta Etxalarren

TTIPI-TTAPA

Aitzineko hainbat aletan aipatu bezala, hainbat herritan delegatu beharrean da elkar-tea. Gaur egun, Donezteberako, Lekarozera eta Amaiurrerako jende bila ari dira. Gainera, Etxalarren orain arte lan bikaina egin duen Arantzán

Mikelestorenak delegatu izateari utziko dio, eta beraz, Etxalarren ere delegatu beharrean dira.

Beren burua delegatu gisa aurkezteko interesa dutenek bulegoko bi zenbaki hauetara deitu dezakete: 948 45 08 78 edo 618 56 78 37.



Irteeran parte hartu zuten mendizaleak Santa Barbarako kaskoan. UTZITAKOIA

Urteko lehen irteera Berako mendietan egin dute elkarteko mendizaleek

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 16an egin zuten urteko lehen irteera elkarteko mendizaleek Beran. Elkarteko 62 bazkide elkartu ziren eta, Toki Onako apartakalutik hasi eta Garmendiko bordan barna, Santa Barbara aldera igo ziren. Idoian gosalduta, La-

beagako kaskora igo ziren. Gutti batzuk, Ibantelliko kaskora ere igo ziren.

Bortz orduz ibili eta 16 kilometro osatu ondotik, Zalain jatetxera joan ziren eta bertan ederki bazkaldu zuten.

Hurrengo hitzordua otsailaren izanen dute mendizaleek Berroeta inguruan.

Elkarteko 200 bazkide joan dira sagardotegira

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 25ean, elkarteko 200 bazkide Urnietako Oianume sagardotegira joan ziren. Urteko sagardo berria dastatzeaz gain, bertako menu tradizionala ere dastatu zuten: txistorra, bakailao tortilla, bakailao fritjua, txuleta,

gazta, irasagarra eta intxaurrak. Kafea eta txupittoa ere hartu zituzten.

Maialen Lujanbio eta Julio Soto bertsolariek girotu zuten bazkaria, eta ondotik, dantzaldia izan zuten Joxe Angelekin. Egun ederra pasa zuten bazkide denek.



Elkarteko bazkideak Oianume sagardotegian. UTZITAKOIA

MALERREKA / BERTIZARANA



Legasan hilaren 16an eta 17an ospatuko dituzte inauteriak. AIALA GRAJIRENAK UTZITAKOIA



Urroren larunbatean gazteak baserriz baserri ibiliko dira. JAIONE ARIZTEGIK UTZITAKOIA

Bertze sei herri inauterietarako prest

Narbarten, Saldiasen, Urroren, Legasan, Ezkurran eta Oizen aste honetan eta hurrengoan izanen dituzte inauteriak

TTIPI-TTAPA

Eratsundarrek ireki zuten inauterietako atea, eta geroztik, mozorro bestak ez du etenik. Joan den asteburuan Donamarian eta Beintza-Labaienen ospatzekoak zituzten, baita Narbarten ere. Eta asteburu honetan eta hurrengoan Malerrekako eta Bertizaranako bertze sei herritara zabalduko da inauteri giroa: Narbarten haurrek hartuko dute lekukoa eta Saldiasen, Urroren, Legasan, Ezkurran eta Oizen ere inauteriak izanen dituzte.

Narbarten segida

Narbarten, berrikuntzekin ari dira ospatzen. Joan den astean hasi zituzten, ortziralean afaria eta mozorro lehiaketa eginez, eta larunbatean gazteak etxez etxe eskean ibiliz. Eta aste honetan, haurren txanda izanen da. Asteazkenean, otsailaren 7an, haurrak mozorrotuta baserriz baserri eskean ibiltzekoak ziren gurasoekin. Ortzegunean, berriz, Ortzegun Gizen eguna ospatuko dute. Eskolatik mozorrotuak aterako dira eta herrian barna eskean ibiliko dira. Ondotik, bazkaria egingen dute eta arra-

tsaldean, plazan, jokoak eta merienda izanen dituzte.

Saldiasen larunbatean

Saldiasen ere hitzordua finkatua dute. Larunbat honetan, otsailaren 10ean, egingen dituzte. Goizean, 10:00 aldera, gosaltzeko elkartuko dira eta ondotik, Agerralde akordeolariarekin eta Muñoa eta Lizarralde bertsoariarekin herrian barna ibiliko dira. Eguerdian bertso bazkaria egingen dute eta arratsaldean umeentzako jokoak prestatuko dituzte.

Urroren asteburu honetan

Urroren asteburu honetan ospatuko dituzte, otsailaren 9an eta 10ean. Haurrak izanen dira inauteriei hasiera emanen dietenak, eta ortziralean, etxez etxe ibiliko dira. 18:00etatik 22:30era J&J DJak ariko dira plazan eta ondotik herriko ostatuan afaria izanen da. Larunbatean gazteek hartuko dute lekukoa eta baserri ibiliko dira.

Legasan hilaren 16an eta 17an

Legasarrek ere prest dute egitaraua, otsailaren 16an eta 17an inauteriak ospatzeko. Ortzira-



Oizen larunbatearekin etxez etxe eskean ibiliko dira. LAURENDI ZELAIETAK UTZITAKOIA

lean, hilaren 16an, 17:00etan txokolatea banatuko dute, eta ondotik, puxkak biltzen ibiliko dira etxez etxe. Biharamunean, 12:30ean, herriko plazan mozorrotuta bilduko dira. 14:00etan frontoian bazkaria egingen dute eta 17:00etatik aitzinera DJ Jalisko eta DJ Iontxurekin musika izanen dute.

Ezkurran otsailaren 17an

Ezkurran otsailaren 17an ospatuko dituzte. 10:00etan, etxez etxe kalejiran aterako dira. Bazkaldutakoan, batzuk baserrietako kalejira egiten duten bitartean, herriko frontoian futbol ligaxka jokatu dute. 16:00etan hasiko da eta nahi duenak parte hartzeko aukera izanen du. Eguna borobiltzeko, trikitalariarekin eta bertsoariarekin afaria egingen dute Barranka jatetxean. Aitor Sarriegi eta Aitor Mendiluze bertsoariak eta Iñaki eta Imanol trikitalaria eta panderojolea gonbidatu dituzte.

Ez da Ezkurran asteburu horretan egingen duten hitzordu

bakarra izanen. Biharamunean, otsailaren 18an, Euskal Herriko XV. Mus Txapelketako kanporaketa jokatu dute ludotekan. 17:00etan hasiko da eta lehenbiziko hiru postuetan sailkatutako bikoteek Barranka jatetxean bi lagunentzako afaria, txuleta eta botila ardo bana eta bi botila ardo hartuko dituzte opari.

Oizen ere otsailaren 17an

Oizen otsailaren 17rako egin dute hitzordua. 09:00etan aldera gosaria egingen dute, gero herrian barna eskean ibiliko dira musikarien laguntzarekin eta 14:00etan bazkaltzeko bilduko dira. Bazkaldoan eskearekin segituko dute eta 21:00 aldera afaltzera joanen dira. Afalondoan bestak elkartean segituko du.

Mus txapelketa Gaztelun

Inauterietako kontuak alde batera utzita, Gaztelun Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa otsailaren 16an egingen dute, ostatuan, 21:00etan.



Irigarritasuna hobetzeko lanen ondotik, berriz ireki dute Interpretazio Zentroa.

Interpretazio zentroa berriz ere zabalik Bertizen

120.000 euroko inbertsioarekin igogailu bat eraiki da pertsona guztien sarrera errazteko eta irigarritasuna hobetzeko

TTIPI-TTAPA BERTIZ

Irigarritasun lanak direla eta borts hilabetez itxita egon ondotik, urtarrilaren 26an ireki ditu berriro ateak Bertizko Jaurerriko Naturaren Interpretazio Zentroak. Nafarroako Gobernuak 120.000 euro bideratu ditu zentroan igogailua ezarri eta interpretazio guneak egokitzeko, hala persona guztiek erakustokiaz gozatu ahal izateko.

Igogailua jartzeak mugikortasun murriztua edo zailtasun fisikoak dituzten pertsonen irigarritasuna hobetzen du eta eraikinaren hiru solairue-

tara sartzea baimentzen da. Gainera, mostradorerako gune bat egokitu da, gurgil-aulkia erabiltzen duten edo eseri behar duten pertsonen arreta hobetzeko.

Ordutegiak

Bertizko Interpretazio Zentroa otsailean asteartetik ortziralerara bisita daiteke 10:30etik 14:00etara eta larunbat eta igandetan 10:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Martxoan asteartetik igandera, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era zabalduko ditu ateak.



Sabino Arana Sariko irabazleak. Eskuinean, Laura Igantzi. UTZITAKOA

Sabino Arana Saria eskuratu du Euskal Artzainak Ameriketara elkartek

TTIPI-TTAPA

Sabino Arana Sarien XXXV. edizioa Bilboko Arriaga antzokian egin zen urtarrilaren 28an. Ekitaldian, Antton Valverde musikari donostiarra, Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioaren emakumezkoen txirindularitza-taldea, Euskal Artzainak Ameriketara (EAA), Armando Llanos ikertzaile eta arkeologo gasteiztarra eta Javier Clemente saritu dituzte. Laura Igantzi Euskal Artzainak Ameriketara (EAA) elkarteko lehendakariak adierazi zuen saria poz handiz hartu dutela, «Ameriketara ibili diren euskal artzainek egindako lana aitortzen eta txalotzen delako. Artzain guztiek aunitz erakusteko dute haien emigratioari buruz, eta gu ere, haien seme-alabak eta bilobak, hagitx harro gaude beraietaz». Igantzi Lesakatik Ameriketara emi-

gratutako artzainen ondorengo da eta haien guztien istorioek gordetzen duten aberastasunaz jabetu zen aitarekin batera artzainen mundu biltzar batera joan zenean Arantzazura, 2005ean. Lesakako bertze artzain batzuen izenak biltzen hasi zen eta bilketa horretan ohartu zen «haien jarreraren balioez, beldurrez, euskal sentimenduez, gure kulturak, hizkuntzak eta identitateak gure lurraldetik urrun duten balioez». Orduan erabaki zuen Igantzik istorio horiek guztiak bildu eta gizarteratu egin behar zirela.

Sariketan, une hunkigarria izan zen Blanca Lasak, Lesakako artzain baten emazteak, bidalitako bideoaren ikustaldia. Senarrarekin batera, Wyoming-era joan zen lehenik, Montanara gero, eta Utah-n bukatu zuen.

Nafarroako herrietan administrazio digitala sustatzeko 3,2 milioi euro

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 3,2 milioi euro inbertituko ditu lehen lau hilekoan Nafarroako 20.000 bizilagunetik beheitiko 269 herrietan administrazio digitala sustatzeko, hala eginen du MRR funtsak erabiliz. Dirulaguntza horren

bitartez, toki entitateetatik herritarrei zein enpresei eskaintzen zaizkien administrazio digitaleko zerbitzuak ugaritu nahi dituzte, segurtasuna, eraginkortasuna eta irigarritasuna bermatuz.

Testuinguru horretan, 20.000 biztanle baino gutxiagoko toki

erakundeetan Administrazio Elektronikoko plataformak eta soluzioak ezarri eta hobetzea da lehenengo proiektua. Eki horrek 763.000 euroko finantzaketa du, eta herritarrei edo erakundeetara zerbitzu telematikoko emateko funtsezko osagaiak eskaintzea du helburu; egoitza elektronikoa, SIR eta FAcE bidezko erregistro elektronikoa edo jakinarazpen elektronikoa.

Bigarren proiektuaren bidez, hobetu egin nahi da herritarrek eta enpresek toki erakundeek ematen dituzten zerbitzu eta erabiliz, ohiko kontsultei erantzuteko gai diren 'bot' en bidez erantzunak automatizatuz eta telefono mugikorretik zerbitzuak eskuratzeko aukera emanez. 012 zerbitzua ere zabalduko da.

Inauteriak 2024 GOIZUETA



Egitaraua

Otsailak 11, Igandea

Arratsaldean gaztetxoek zahagi dantza. Ilunabarrean, musika Herriko Etxeko aterpean **21:30ean** Mozorroen Afaria.



Otsailak 12, Astelehena

08:00etan mozorroen irteera baserrietara. **09:30ean** plaza apainketa. Gai: Historialurrea. **11:30ean** kalejlira. **13:30ean** umeen bazkaria. **14:30ean** helduen bazkaria. **Ondoren** umeentzat entretenimendua. **17:30ean** txokolate jana. **18:00etatik 21:00etara** Mikeltxi Djarekin dantzaldia Herriko Etxeko aterpean. Ilunabarrean mozorroen etorrera dultzaineroekin. **22:00etan** mozorroen afaria.

Otsailak 13, Asteartea

09:00etan mozorroen gosaria. **10:00etan** mozorroen irteera herriko etxetara dantzan **14:30ean** mozorroen bazkaria. **17:30ean** zahagi dantza herriko kaleetan. **18:00etatik 21:00etara** musika Herriko Etxeko aterpean. **22:00etan** mozorroen afaria.

Otsailak 17, Larunbata

13:00ean poteoa Igandea txaranga-ekin. **14:30ean** mozorroen bazkaria. **17:30ean** Igandea txaranga herrian zehar. **23:00etan** Tokan2 la polla taldearen kontzertua gaztetxean.



Oxeguarda ostatua

Ongi pasa inauteriak!



T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

Pintxok
Raziok
Bokatak
Platerak
Terraza
Fiesta
948 514 327
Auzola

Deitu ezerekoa egiteko eta gozatu herrian bertan!

ZUBIMUXU aterpea
albergue de Goizueta

www.zubimuxu.com • Herriko plazan 663 85 85 02
Lokale ezabigarria - 30 plaza - 2. eta 3. laguneko gelak - Literak

IZKIÑA
jatetxea

Pintxoak,
bazkariak eta
afariak

Etorri GOIZUETAko fauna ezagutzerall
Tel. 948 514 102 • GOIZUETA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAKI

K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242

inauteria 2024 terriak LESAKA



ARRANO
estatua

KUKUTAK, PINTURAK, OKUTAK,
BINTSALADAK, PLATEK KOSINTUAK
eta gero ikuska
PROSO TA IRISLAGIAK ETXERA!

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597



ZOANSA

Ongi pasa inauteriak!



MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarlar, 2 • Alkalaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



*ongi pasa
inauteriak*

**Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA**

Egitaraua

Otsailak 8, Orzegun Gizen

Goizean haurrak *Arraultze-arraultze* ibiliko dira.

Otsailak 11, Ilgandea

17:00etan Zakuzahar ttikien kalejira herriko pilotalekutik abiatuta, Lesaka Trikitixa Taldeak lagunduta. 18:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean. 19:00etan Zakuzaharrak herriko pilotalekutik abiatuko dira Lesakako Musika Bandak lagunduta. Goitarrak: goizean Auzoberri, Endara, Zala, Katazpegi eta Nabaz auzoetan barna baserriz baserri ibiliko dira eskean eta dantzan. Ilunbarrean herrian ibiliko dira.

Otsailak 12, Astelehena

Eguerdian aldean mozorroak eta karrozak ibiliko dira herrian barna. 18:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean. Fraindarrak, goizean Otsango eta Frain auzoe-

tan barna baserriz baserri ibiliko dira eskean. Eguerdian aldera herrian barna eginen dute eskea.

Otsailak 13, Asteartea

Fraindarrak, goizean, Izotzaldea auzoan barna baserriz baserri ibiliko dira eskean. Arratsaldean herrian barna eginen dituzte harat-honatak.



«Beti izan dut gogoazakuzahar ateratzeko, baina ausardiarik ez»

IZASKUN MARTINEZ ETXABARRI LESAKAKO INAUTERI ZALEA



41 urteko lesakarra da Izaskun Martinez Etxabarrí, erizain laguntzailea lanbidez eta «neska irekia, alaia, lagun laguna eta bestazalea» bezala definitzen duena bere burua. Eta besta edo parrandazaletasun horren barrenean, inauteriek garrantzi handia dute lesakarrarentzat: «Inauteriak urteko bestarik erakargarrienak dira, sanferminen pare. Gaur egun arte ez dut hutsik egin. Seguruenik aurten izanen da lehen aldiz huts eginen dudan urtea, lan kontuak...

Umetan hasi zen mozorrotzen, gaztetan hartu zuen erreleboa kuadrillarekin, orain ama bezala... Inauteriak bizitzeko modua aldatzen joan da urterik urte. Izaskunek dioen bezala, «dudarik ez dago ama izatearekin batera besta egiteko aukerak aldatzen direla, baina gogoek berdin jarraitzen dute».

Hainbat mozorro

Urtez urte hainbat disfrazekin atera da eta hainbat karroza egin ditu... Berak prestatutako eta egindako mozorrotatik edo karrozetatik batekin gelditzea zail egiten zaioa, baina «gustukoan eraman dudan jantzia maritxiarena izan da... Rantxerak aunitz gustatzen zaizkit eta papera ederki ikasi nuen urte hartan». Baina bertze hainbat ere gogoan ditu lesakarrak: «Mozorro dexente izan ditut, sevillanaz, indioz, bakeroz, poliziaz, ijito ezkontzaz... zerrenda luze xamarra egin dezaket», gogoratzen du irri artean. Etxeko ganbaratik edo garajetik trapu edo jantzi zaharren batzuk hartu eta mozorroa egin edo nonbait disfrazak erosi eta mozorrotu. Hori ere erabaki beharreko kontua izaten da inauterietan eta, lesakar gehienak bezala, bi aukerak probatuak ditu Martinezek: «Berrerabiltzeko trapuak




Lesakako Udala
LESAKA
gara
 Ongi pasa inauteririk!


IZARRA OKINDEGIA
 ongi pasa inauteririk!
 PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
 TEL: 948 637 855

LIDERA
 HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL


GOZATU LESAKAKO INAUTERIAK!
 Iturruzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
 Tel. 722 662 478 | lidera@hortsclinika.es
 @liderahortsclinika

Antoiu
OSTATUA
 07:00etatik aitzinera irekia,
 PINTXOAK
 BOKATAK
 PLATERAK
Ongi pasa Inauteririk!
 Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 431 02 79 50


XAGU LIBURUDENDA
 Tel./ Fax 948 638 232
 Koskontako bidea, 7
 (osasun-zentroaren parean)
 31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- MOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBIA EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



IÑAKI JANARIDENDA

ONGI PASA INAUTERIAK

Arretxea. 12 • LESAKA • 948 638 287

ZANTZONEA JATETXEA

**Gosariak, bazkariak,
afariak, pintxoak,
bokatak, errazioak.**

*Ongi pasa
inauteriak!*



Bittiria Kalea, 3 - 848 992 017 - Lesaka



ONGI PASA INAUTERIAK

-Estetika
-Hialuronikoa
-Proesiak
-Endodontziak
-Implanteak
-Hortz zuritzeak
...

948637282/
948623997

Antsoa kalea, 7, Lesaka
Aldapeta kalea, 2, 2.B, Irun

baldin badituz horietzek aprobetxatzen saiatzen naiz, edo urte batetik berterako mozorroak baliatu, gauzak aldatuz edo ta moldatuz... Bertze batzuetan erosi ere izan ditut, denetatik egin dut», onartzen du.

Eta denbora aunitz lehenagotik pentsatzen duzu mozorroa edo azken orduan tirikitarraka ibiltzen direnetakoa zara? Galdera horrek ere erantzun zabala du lesakarraren kasuan, baina urtetako esperientziak eskarmentua ere eman omen dio: «Kasu honetan ere denetik egin izan dut. Azken urteotan fundamentu gehiagorekin nagoela dirudi. Denboraz dena prest izan ohi dut, baina badira bezperan prestatu ditudan mozorroak ere.

Bi seme-ren ama, orain etxeko ttikien mozorroak ere pentsatu eta prestatu beharra dauka, baina hori lana baino gehiago gozamina da beretzat: «Haurrekin mozorratzea gozamina da, beraientzat ere egun berezia da eta egun polita pasatzen dugu elkarrekin astelenean, karrozen egunean, baina egia da lehenagotik lan potentzia izaten dela».

Martinezek garbi dauka zer behar den inauteriak ongi pasatzeko, eta ez da zerrenda luzea: Gogoa eta konpainia ona, horrekin nahikoa izaten da besta on bat egiteko».

Zakuzaharrak jostearen hunkidura

Lesakar peto-petoea eta inauteriazalea izan arren, Izaskun Martinezek ez du inoiz zakuzahar ateratzeko urratsa eman: «Ez, ez naiz inoiz zakuzahar atera. Beti izan dut ateratzeko ilusio haundia, baina ausardi faltaregatik ez dut ametsa bete... Beldurra ematen didate ibilbideko moltzokoek, erorketek, ibilbideari ez eusteak...». Horren ordez, zakuzaharrak ateratzeko behar beharrezkoa den bertze lan batean



aritzen da Izaskun gogotsu: «Josten aritzen naiz bai, hainbertze zakuzahar, hotza... azkenean behatzek minbera bukatzen dute... baina, badakizu, gaztelaniaz erraten den bezala, *costura sin dedal, cose poco y mal...* Baina momentu hagitz politik izaten dira, niretzako hunkigarriak...»

Inauteriak edo sanferminak aukatatzeko galdetuta, «ezin dut bihotza erdibitu, biekin gelditzen naiz» erantzun digu lesakarrak.

Bukatzeke, deialdi berezia egin nahi izan du: «Parranda errespetuz egitea da nere desiorik haundiena eta eraso sexistarik gabeko besta egiteko deia hemendik zabaldu nahi dut».

**«ZAKUZAHARRAK
JOSTEKO UNEAK
HUNKIGARRIAK
DIRA NIRETZAT»**

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
 - Zerbitzu fiskalak
 - Lan-aholkularitza
 - Aholkularitza juridikoa
 - Herentzia eta Testamentuak
 - Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
 - Datuen babesa
 - Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberr plaza, 6 31700 ELIZONDO 31780 BERA 31740 DONEZTEBE 31770 Lesaka
T. 948 581 300 - F. 948 580 648 T. 948 631 108 T. 948 450 395 - F. 948 451 304 T. 948 638 077

inau 2024 terriak

ETXALAR



Egitaraua

Otsailak 8, ortzeguna

Goizean gaztetxoak etxe etxe ibiliko dira eskean *Ortzeun gizen* kantatuz. **14:30ean** ikasleen desfilea eta ikuskitzuna, eskolatik plazara. **Ondotik** merienda Guraso Elkartearen eskutik.

Otsailak 11, igandea

Zaldun inaute eguna, kinto bazkariak egingen dituzte.

Otsailak 12, astelehena

08:00etan gazteak La Basque jatetxean elkartu, gosalduta eta baserrietara abiatuko dira etxe etxe eskean aritzeko, musikaz lagunduak.



Otsailak 13, asteartea

12:00etan karroza eta moztorroen desfilea plazatik abiatuta. **Ondotik** gazteek bazkaria egingen dute La Basquen. **14:00etan** jubilatuen bazkaria Larraburuan. **17:00etan** katiuska jaurtiketa plazan. **Ondotik** frontenis desafioa.



OSTATU - JATETXEA



Herriko Ostalua
ETXALAR

- Hamarretakoak
- Bazkariak
- Afariak
- Menua
- Karta



Ongi pasa
inauteriak!

T. 948 39 79 59 - Andutzeta, 15 - ETXALAR

HERRIKO OKINDEGIA

Euskal Herriko gari mota zaharrak gure erroten ehotuak

- / Espelta Handia
- / Espelta Txikia
- / Florencio Aurrea
- / ARAGON OS
- / Lokarriko bizardana



06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
TEL. 627 03 39 75

ONGI PASA INAUTERIKKI! ELUTSA





EGUNEKO ETA ASTESURAKO MENURK

PINTXOK
BOKETAK
BIZIORK





Andutzeta, 13 - ETXALAR • T. 948 635 191





ETXALARKO UDALAK

inauteri onak opa dizkizue etxalartar eta bisitari guztiei



**LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!**
ONGI PASA INAUTERIAKI!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

Belarra jatetxea **ONGI PASA INAUTERIAKI!**



Amezti zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com



**Arozena
ostatu · jatetxea**

Gosariak
bazkariak
eta afariak
ongi pasa inauteriki!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 · Doneztebe



**TITI BAR
DONEZTEBE**

ongi pasa inauteriki!

Amezti, 7 · Doneztebe · Tel. 948 450 371



GARMENDITX

TXIRRIDULEN SALMENTA, KONPONKETA ETA ALOKAIURUA.

Rosa Seminario, 13 eta eta Amezti zeharbidea 4. · DONEZTEBE
www.garmenditx.com · @garmenditx



PITTU MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Epzelura, 1 · DONEZTEBE · T. 616 513 491

EDERKI tailerra



**CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA**

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriki!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

inau 2024 terriak DONEZTEBE



Egitaraua

Otsailak 8, ortzeguna

20:00etan triki poteoa 22:00etan
afaria herriko ostatuan.



Otsailak 9, ortziralea

08:30ean hasita kalejira egingen dute
ostatueta. Titi ostatu izanen dalehen-
bizikoa eta ordu erdi inguru egonen
dira bakoitzean. 09:00etan Oteiza eta
Txalupa ostatueta, 10:00etan Andue-
za eta Epin, 11:00etan Santamaria eta
Mateo ostatueta eta 12:00etan Aro-
zena ostatueta. 13:00etatik aitzinera,
oinez egingen dute ibilbidea eta Zazpi-
gurutze ostatura joanen dira. 14:00etan
Elizagibela, 15:00etan Kale Nagu-

sia, 16:00etan Intzakardi eta kalejira
Mourguesen bukatuko dute 17:00ak
aldera. Eskolako ikasleek ere desfilea
eginen dute 11:00etatik aurrera. Kar-
ro txaranga ere ibiliko da eta 17:00eta-
tik aurrera eskolako aterpean eskula-
nak egiteko aukera, txokolate jana,
musika eta mozorro besta izanen da
guraso elkartek antolatuta.

Otsailak 10, larunbata

16:30ean mozorro eta karrozen
desfilea Elutxa txaranga alaituta.





«Ttikitik handirako pausoa eman dute inauteriek»

JUAN TELLETXEA URROZ DONEZTEBEKO INAUTERI ZALEA

«Herria bizirik mantentzeko, herritarrak funtsezkoak» direla jakinik, batean eta bestean bere aletxoak jarriz ibili da beti Juan Telletxea. Erreka Elkartearen aritu da urtetan eta udaleko zinegotzia da orain: «ahal dudan neurrian, herriaren alde gauzak egiten saiatzen naiz». Inauteri zaletzat du bere burua eta «etapa guztietan bizi eta gozatzeko» aukera izan duela aitortu du. Orain, zinegotzi izanda, «inauteriak beste aldetik nola bizitzen diren ikusiko dugun». Aitortu du, errazagoa zela «mandarra jarri eta etxez etxe ibiltze hori», baina garai bakoitzean berea: «lehen lana eman dugu eta orain guri emanen digute».

Inauteriak, «gazte gaztetatik» bizi izan ditu, «haurrak ginela etxeokoen, gero kuadrillarekin eta orain familian». Lagunarteko giroa funtsezkoa izan da zaletasun horri eusteko: «inauteri giro hori gustatu izan zaigu beti. Bateko karroza, besteko showa...». Paperean sartu eta ikuskizuna eskaini izan dute behin baino gehiagotan: «urte batean Missen showa egin genuen frontolan eta uste baino jende gehiago elkartu zen ikustera».

Garai bateko inauteriak eta oraingoak alderatzeko eskatuta, «ez dutela deus ikustekorik» aipatu du: «egia da asko aldatu dela gauza: lehen herrian karroza gutxiago izaten zen, mozerrotzen zen jendea baino gutxiago... orain

kuadrilla guztiek egiten dute zerbait. Karroza, karro, kotxea... dena da musika». Argi dio: «ttikitik handirako pausoa eman dute inauteriek eta giroan ere nabari da hori». Parte hartzaile kopuruan ere aldea dago, «lehenago ostegunean hamabost hogeit lagun ibiltzen ginen etxez etxe. Orain ehundik gora izaten dira». Ohitura batzuk, berriz, zabaldu egin dira: «garai batean, ostiralean, etxez etxe mandarra edo zapelarekin ateratzen zen eta gauean izaten zen besta pixka bat, baina jendea ez zen mozerrotzen. Duela hogeita zortzi bat urte, gure belaunaldia, hasi ginen mozerrotzen eta orain ostirala ere egun fuertea da». Ongi gogoan du ostiralean jantzitako lehenbiziko mozerro hurra: «Duo dinamicoz jantzi ginen, German eta biok. Orduko argazkiak oso ongi erakusten du inauterietan izan den aldaketa. Ostatueta ikusten da argia piztuta, mahaiak ez zirela biltzen... jende gutxi ibiltzen zelako».

Karroza prestatzen pasatako orduak ere ez ditu ahaztuak: «gazte garaian hilabete edo gehixegoa hartzen genuen karroza prestatzeko». Orain, berriz, «etxeokoen giro lasaigoan ibiltzen gara eta prestatzea ere erexagoa izaten da». Inoiz ere huts egin gabe, «inauteriak gustuko dituenak beti topatzen baitu egun horietan gozatzeko modua».

EROSI ONLINE

www.lamascara.es

LA MASCARA

Inauterietako mozerroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

Mendaur Motor

Kotxe salmenta | Marka guztiak

MENDAU MOTOR
T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333
www.mendaurmotor.com

Doneztebe/Santesteban

Udala
Zabalak lekuak

INAUTERIAK, IÑAUTERIAK, ARATUSTEAK, INOTEAK...

TXUKUNTASUNEZ ETA ERRESPECTUZ ELEGANTE PASATZEA OPA DIZUE DONEZTEBEKO UDALAK HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI

inau 2024 teriak

ELIZONDO

**BRIKO
BAZTAN, S.L.**

Ongi pasa
inauteriak!

Drogeria · Garbiketa produktuak · Ferretaria
Sukaldeko tresnak · Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak · Moda...

T. 608 016 052

San Andres, 66 · NARBARTE



**TXOKOTO
TABERNA**



ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGUURAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
☎ +34 948 580 804

**INTZA
TABERNA**



**BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK**

Ongi
pasa
inauteriak!

*Mendi
ostatua*

Eguneko menua · Bokatak
Pintxoak · Razioak · Pizzak

Deitu eta egin erreserba!
Goizeko Betatik gauerdirarte
T. 948 580 313



Egitaraua

Otsailak 8, ortzeguna

10:00etan kalejira Saskaitz plazatik abiatuta (Santiago karrika, adinekoen egoitza, Jaime Urrutia karrika).

11:00etan jokoak plazan eta frontoian.

13:00etan bazkaria. **15:00etan** oilar dantza Iriarte frontoian. **16:30ean** merienda frontoian. **17:00etan** dantzaldia Joxe Angelekin frontoian.

Otsailak 9, ortziralea

09:00etan puxka biltzea gaztetxetik abiatuta, Andreak eta Aishak trikiti-xa eta panderetarekin alaitua.

16:00etan haurren desfilea ikastolako parketik abiatuta. **17:00etan** txokolatada plazan. Ondotik dantzaldia DJ Capitan Generalekin plazan. **20:00etan** txaranga poteoa Herriko Etxetik abiatuta.

Otsailak 10, larunbata

11:30ean orgen eta mozorroen desfilea ikastolatik abiatuta. Mozorro lehiaketa izanen da hiru kategoriarekin: taldeka, banaka eta ostatuendako. **18:00etan** dantzaldia plazan AIZer^{1/2} Djarekin, gazteek eta ez hain gazteek iraun arte.



«Besta giro bikainean mozorrotzeko eta lotsa kentzeko egunak dira»

IBAN ETXART IPARRAGIRRE ELIZONDOKO GAZTEA



«Gazte irripartsua eta lagunaren laguna» da Iban Etxart elizondoarra. «Bidaia eta munduko xoko eta kulturak ezagutzeko» du gustuko, eta noski, «inauterizale amorratua» da. «Bertzeen eta norberaren kontura irri egiteko aukera paregabekoa dira inauteriak, urte hasmentarekin batera, lehenbiziko parranda».

Ttikitatik disfrutatuta du besta honen: «lehen astelehen eta asteartean izaten zen. Astelehenean eskolako lagunekin egiten genuen desfilea, eta burutan dut duela 27 bat urte txinatar janzkera politekin bezituz ginen, ikaragarriko dragoi baten gibelatik. A ze lana egiten zuten gurasoek! Desfilea akitu eta txokolate goxoarekin eta Joxe Angel akordeoilariarekin kentzen genuen hotza». Asteartean, aldiz, «desfilea ikusten genuen, goiz eta arratsalez egiten zutena. Ikaragarriko karrozak egiten zituzten gazteek».

Geroztik, «inauteriek hainbat fase izan dituzte. Lehen biziki gozatzen zen, jende gehiago mozorrotzen zen. Urte andana pasatu dira besta giro guttiagorekin, baina azken urteetan, puxka biltzearekin eta danborrada-

rekin, ilusioa bueltatu dela erranen nuke». Aitortu duenez, «pena handia dut puxka biltzea berrartu zutenetik parte hartu ez izana, baina danborradarat beti animatu naiz».

Lagunartean hobe

Gaur egun, «dena dut maite, baina gehienbat danborrada eta larunbatean, bazkaldu aitzinetik, plazan kuadrilla guziak elkartzean sortzen den giroa. Ostatu guziak betetzen ditugue».

Urtero ateratzen da kuadrillakoekin desfilea; «hilabete bat lehenago ideia sorta handia botatzen dugu, kotxe zaharra piztu eta aste batean prestatzen dugu dena. Internetez eskatzen ditugu mozorroak eta etxeko trapu zaharrekin apaintzen ditugu». Lagunekin egindako mozorrorik gustukoena Grand Prix telebista saiokoa du; «sumolariz, zezenez, Ramon Gartziaz... bezituz ginen eta irri aunitz egin genituen».

Izan ere, irriak ez dira falta inauterietan; «behin aitzineko kuadrillakoen baloi handi bat guregana hurbildu zen, lagun batek ostikoa eman zion eta trafikoa zuzentzen ari zen foralari buruan eman zion. Foralak haserre buelta eman eta ezin asmatu jendetzaren artean nor bota zuen!».

Elizondoko inauterietan «jendeak mozorrotu eta lotsa kenduta aktore lanak egiteko duen gogo» azpimarratu du; «besta giroa bikaina da, eta puxka biltzea bezalako ekimenekin, lehenagoko ohiturak mantenduz berriak eiraikitzen ditugu».

2024ko inauterietako ere gogotsu dago; «pena da danborradarik ez dela, baina txaranga poteorak dudarik gabe animatuko naiz, eta adin guzietako jendea etortzea espero dut». Aurtengo mozorroa prest eta sozietatean bazkaltzeko erreserba eginda, «denok errespetuz besta giro bikaina sortzea nahiko nuke, hori baita gure altxorrik haundiena!».

Ongi pasa inauteriak!

ESKISAROI

J A T E T X E A

Elizondo / T. 948 580 013 / www.eskisaroi.eus

Goizalde ostatua

Ongi pasa inauteriak!!

- Pitxoak
- Eguneko menua
- Karta
- Plater kabinataak
- Digitaltekoak
- Entsaladak
- Hamburgerak
- Errazioak

Jaime Urutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

Sutela-Zaldain

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

+20
Urteak

instalazioak

IGOGAILUAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
sutela@sutelazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadak guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-sulkian daudenentzako egokitua.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-sulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

URDAZUBI

Egitaraua



KULTURKARI

Disenatu grafikoa | Publizitatea



**Urdazubiko Udalak
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei!**



Otsailak 11, igandea

09:00etan gazteek kafea hartuko dute Karretero ostatuan eta etxez etxe ibiliko dira musikarekin **09:30ean** herriko gaztetxoek elkartu eta etxez etxe ibiliko dira musikarekin. **18:00etan** haurrentzako txokolate jana eta sorpresa Karretero ostatuan. **21:30ean** pintxoak eta musika denentzat Karretero ostatuan.



Otsailak 12, astelehena

09:30ean gaztetxoek elkartu eta etxez etxe ibiliko dira musikarekin. **09:30ean** gazteak elkartu eta etxez etxe ibiliko dira musikarekin. **21:30ean** pintxoak eta musika denentzat Karretero ostatuan.



Otsailak 13, astertea

09:30ean herriko gazteak elkartu eta Dantxarineko bentetan ibiliko dira muskaz alaiturik. Mozorroaren gaia: Kolore gorria. **15:00etan** Zubiondoa ostatuan bazkaria.

JOSENEA
ZONE AUTO

ZURE ZERBITZURA:

- Bileketak
- Enbriogea
- Olioak aldatzea
- Bazarak
- Puztatutakoak

**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK
PREZIORIK ONENEAN**

Garbitze zentroa Gasoldegia Auto-garbitze zentroa Faltak konpontzea

Hizordua telefonoa edo whatsapp bidez:
+34 608 791 971

+34 948 599 236 · www.josenea.es · centreauto@josenea.es

TAILERAREN ORDUTEGIA: Asteleheneetik ortziratera : 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00
Gasolindegia ORDUTEGIA: 24ordu/24.
Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan)
Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.



Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

«Kanpoan bizi diren gazteak ere herrian izaten dira ihauterietan»

ENEKO HALTY AGERRALDE URDAZUBIKO GAZTEA



Denboran gibelera egin eta haurra zeneko ihauteriak gogora ekarrita «mozorroa jantzi eta egun osoa lagun artean pasatzen zuela aipatu du Enekok. Irri artean aitortu du gauzak ez direla gehiegi aldatu: «gaur egun ere berdin segitzen dut. Ttikitako gustuak mantendu ditudala iduri du».

Etxean ikusitakotik sortu omen zitzaion inauterietarako grina: «nire arreba zaharragoa inauteri giro horretan ikusten nuen eta nik uste orduetik heldu zaidala afizioa». Hamasei urte bete zituzenean, besta handiaren parte bihurtu zen bera ere: «orduan hasten gara eskean zaharren taldean ibiltzen».

Gerora, ihauteriak barrutik eta kanpotik ongi ezagutzeko aukera izan du eta orain «ihauteri zalea» izateaz gain, «antolatzaileetako bat» ere bada. Izan ere, inauterietan «denek denetarik» egiten duten arren, badira antolatzaile

leen esku gelditzen diren ardura batzuk: «ibilbide aldaketak, gosaria prestatzea, ttikiendako sorpresaren bat... eta arazo edo ezustekoren bat baldin bada, horri aurre egitea». Aurten badute berrikuntza: «ibilbide aldaketa bat egin dugu eta asteartean mozorrotuko gara Dantxarinean ibiltzeko».

Urtarril hasieran egin zuten antolakuntza taldekoek lehenbiziko bilera: «gure artean ideia orokor bat izateko eta ondoko astean ideiak trukatu genituen beste gazte guztiekin». Eta ez diraguti izaten: «Urdazubiko ihauteriek duten xarma, horixe da; ihauteriak dira denok elkartzen garen besta bakarretarikoa. Herriko gazte batzuk kanpoan ikasi edo lan egiten dute, baina kanpoan bizi diren gazte horiek ere herrian izaten dira ihauterietan» Eta gazteak soilik ez, «herriar guztiak biltzen gara eta aspaldi ikusten ez duzun jendearekin egon eta besta egiteko aukera izaten denez, giro polita sortzen da».

Mozorrorik ere ez da falta izaten: «denen artean gai bat adosten dugu eta bakoitzaren esku gelditzen da hori kontuan izanda mozorroa osatzea». Irudimenerako tartea irekitzen da horrela: «bakoitzak bere gustura egiten du eta egia erran denetarik egoten da. Politagoa iduritzen zait norberak berea egitea, espero ez dituzun ideiak sortzen direlako».



VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi • Tel. 948 599 041
www.zubiondoa.com • zubiondoasa@gmail.com

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santogovillares.com
www.santogovillares.com

ARRETXE
ESTANKOA



ZIGARRO
PURUEN CAVA



BUREAU DE TABAC



DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | esbancoarrechea@yahoo.es

inau 2024 terriak

BERA



Ongi pasa inauteriak!

3. Estankoa
San Esteban, 11
BERA - T. 948 63 16 37

Ansoneta ostatu jatetxea

Ongi pasa inauteriak!



T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 - BERA

Jautena

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Denda: 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauenubera@gmail.com

Ongi pasa inauteriak!



Zurekin DISEINUAK

GAUR EGUNERA EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK




☎ 636 701 204 ☎ 722 521 471
Kanttonberri, 3 BERA
zurekin@zurekindiseinuak.com

Egitaraua

Otsailak 8, ortzeguna

Goizean haurren zingar arrotzte eskea herrian barna. **15:45ean** haurren Inudeen eta Artzainen desfilea eta karrozak suhiltzaileen parketik hasita Eztegar pilotalekura. **Ondotik**, parte hartzaileentzako merienda Eztegar pilotalekuan.

Otsailak 11, igandea

10:00etatik aitzinera Inudeen eta Artzainen desfilea herrian barna Eztegar pilotalekutik abiatuta. **18:00etan**

Inudeen eta Artzainen desfilea Eztegar pasealekuan hasita.

* Entseguak: Otsailak 6 asteartea 19:30ean eta otsailak 9, ortziralea, 20:00etan Eztegar pilotalekuan. Bazkarirako txartelak egun horietan salgai.

Otsailak 12, astelehena

Goizean zingar arrotzte eskea base-rietan. **Egunean zehar** karrozak herrian barna. **18:00etan** hasita Bide Batez erromeria Toki Onako estalpean.



EDARIAK

Ongi pasa inauteriak!



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus

«Inauterietako astelehena izaten da egunik bereziena»

IBON IRASTORZA URDANITZ BERAKO GAZTEA



Inauterietako egun inportanteak asteburu honetan izanen badira ere, inauteriak pasa den astean hasi ziren Berako Ibon Irastorza Urdanitzentzat, larunbatean ospatu baitzituzten Kaldereroak. Musika, besta giroa eta lagun artea gustuko ditu Irastortzak, eta noski, inauterizalea ere bada.

Haurra zela hasi zen musika jotzen Isidoro Fagoaga musika eskolan; txistu hasieran, eta perkusioa eta txistua gero. «Ttikitatik izan dut musika ikasteko nahia, eta urteak eman ditut ikasten, denborarekin zerbait ikasi dut eta horrek balio izan dit herri mailan zein lagun artean jotzeko», kontatu du. Gaur egun, Lesakako Elutxa txarangaren eta Berako Bandan jotzen du.

Elutxa txarangarekin, gainera, inauterietan lanean aritzea tokatzen zaio: «Zubietan, Donezteben eta Sondikan aritzen gara. Inauteriak direnez, mo-

zorrotuak joaten gara eta giro hagitz polita izaten da». Hiru herrien artean, Sondika nabarmendu du beratarrak: «Gure eskualdetik urrutien dagoen herria da. Urte aunitz daramatzagu bertan jotzen, urtero deitzen gaituzte eta gu kontent joaten gara bertara».

Herrian bertan ere musikari izateak inauteriak bertze manera batean bizitzeko aukera eman dio. Kaldererotan bandarekin aritzen da jotzen, eta pare bat aldiz, bukaerako ekitaldiko protagonista ere izan da. «Zeremonia gisako bat egiten da bukaeran, ezkontza bat eta baten bat ezkondu behar izaten da, eta egun horretan bandan musika jotzen aritzen naizenez, niri tokatu zait pare bat aldiz», dio irriz.

Kaldereroez gain, Inudeen eta Artzainen desfilean ere musika izaten da protagonista. Irastorza, ordea, dantzan ateratzen da, inudez mozarrotuta: «Nik oraindik dantzatzeko papera ez dut utzia, gustatzen zait egun horretan dantzatzea, eta nire dantzako bikoteak segitzen duen bitartean, nik ere segituko dut dantzan», kontatu du. Hala ere, argi du dantzazeari uzten dihonean, egun horretan ateratzen segituko duela musika jotzen, egun hori «hagitz gustukoa dudalako».

Nabarmendu du gustura aritzen dela egun horretan jende aitzinean dantzan: «Inguruan jende mugitua izaten dut,

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

ongi pasa inauteriak!

Abokatutza orokorrean - Herentziak
Alokairuak - Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhosaltzuguren@gmail.com



MARITX

INGENIARITZA ELEKTRIKOA BOLETIN INDUSTRIA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa inauteriak!

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

ERREKALDE

ongi pasa inauteriak!

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK

T. 948 630 259
BERA

Ongi pasa inauteriak!



Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanflonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA
BERGAMONT

PIRELLA
BH

METTV
METRIDA



BERAKO UDALA

BERAKO UDALAK
INAUTERI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojartetxea.com

Alberto RETEGI
abokatu

© 948 630 763 - Altzale, 17 - BERA

BERBI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK





Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Ongi pasa Inauteriak!

DESINERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-BILTZEAK •
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • NEGATZEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

ANZOA BERA



ONGI PASA INAUTERIAK

Illekueta 11 BERA
T. 848 177 135

669 122 815
javierbarra@bamaeraikuntzak.eus

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK





Etxebizitza berriak
Zaharberritzeak
Erreformak
Konponketak
Teilatuak
Harri eta hormigoi lanak
Mota guztietako igeltseritza lanak

**GREMIOEN KOORDINAZIOA
SUNBILLA (NAFARROA)**

Ongi pasa inauteriak!

eta ongi pasatzera ateratzen gara, ez da dantza lehiaketa bat izaten». Eta argi du: «ongi pasatzeko eta besta egiteko eguna izaten da».

Bestondoarekin dantzara

Larunbata besta egun handia izaten da Lesakan, eta aunitz izaten dira Inudeen eta Artzainen desfilea kostata ailegatzaren diren beratarrak. Bere kasua ere halakoa dela kontatu du: «Gustura egoten naiz Lesakan, eta kostata ailegatzaren naiz etxera». Gainera, inude giza moztortzeak ere bere denbora eskatzen duela dio: «Badu lan pixka bat prestatzeak, emakumez moztortu eta makillatu ere egin behar izaten gara eta. Gainera, gure etxean gustatzen zaie ongi jantzia ateratzea eta neregatik ez bada ere, ingurukoengatik komeni izaten da txukun ateratzea etxetik».

Egun guzia dantzan aritu ondotik, bestaz segitzen dute batzuek, baina ez da Irastorzaren kasua izaten, nahiago izaten baitu etxera deskantsura joateak. «Nabaritzen da aitzineko egunean juerga eginga duzula, eta igande arratsalde aldera gorputza nekatzen hasten da eta komeni izaten da etxera joatea». Izan ere, aunitz maite du inauterietako igandea, «egun hagitz polita» izaten baita, baina are maiteagoa du astelehena: «Egun horrek zerbait diferentea du. Egunez egiten duzu besta, goizetik kuadrillarekin aterata eta nire egun gustukoena da».

Astelehenean lagunekin ateratzeko prestaketan hasiak dira: «Normalean berandu ibiltzen gara eta zirripi zarrapa zerbait egiten dugu kuadrillakoak ateratzeko. Urtero erraten dugu zerbait diferentea egin behar dugula baina...». Aurtengo ere badituzte ideia batzuk, baina, oraindik lanean ari dira: «Ideiak

bai, baina, egunetik egunera baditugu aldaketak, bai moztortuan, bai karroza nola egin... Beti azken orduan».

Eskean aritzeko txirrinta

Zingar arrautzen ateratzeko ere urtero izaten omen dute asmoa, baina, «beti erraten dugu baietz, aterako garela, baina azkenean gauza bat eta bertze, karrozara igo orduko 10:00ak izaten ditugu, gosaltzera joaten gara, eta azkenean herrian gelditzen gara. Baina txirrinta hori beti dugu», kontatu du. Izan ere, haurra zela gurasoekin eta lagunekin musika lagun, baserri eskean ateratzeko ohitura zuten, eta gogoan ditu orduko momentu onak: «Hagitz oroitzapen polita dut», dio. «Tikitatik erakutsi digute inauteriak bizitzeko manera hori eta orain nahiz eta denbora pasa gogo berdinarekin ateratzen naiz».

Berako inauteriak ezagutzen ez dituenak inauterietara gonbidatu ditu Irastorzak: «Igandeko Inudeen eta Artzainen buelta hagitz polita izaten da eta gu gustura aritzen gara, eta astelehenean ere karroza aski politik eta giro ederra izaten da».

Eta inauterien ondotik bestondoa pasatzeko zer: «lanean egun bat libre hartu eta, hala ere, batzuetan kostata». Berara joaten denak, beraz, izanen du zer ikusi eta non gozatu asteburuan, eta tartean aurrkituko du Irastorza dantzan edo karrozan, baina umore onez seguru.


«NORMALEAN BETI BERANDU IBILTZEN GARA KARROZA PRESTATZEKO»






LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

baiza azterketa egiterakoan CIESek *Nafarroa Garaiko mendialdean* hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.




*1. Osotara, azkeneko hamabostaldian
*2. Nafarroa Garaiko mendialdean, azkeneko aldian

IKASKETA MAILAREN ARABERA



ADINAREN ARABERA



SEXUAREN ARABERA



Leitzako Erdi Aroko dorreak hizketagai otsailaren 22an

Garazi Albizua eta Iñaki Sagredo idazleek gaiari buruz idatzitako liburuak aurkeztu eta solasaldia eskainiko dute

TTIPI-TTAPA

Historian atzera egin eta Leitzako Erdi Aroko dorreei buruz gehiago ikasteko aukera eskainiko dute otsailaren 22an Herri Aretuan. Garazi Albizua eta Iñaki Sagredo gonbidatu dituzte eta gaiari buruz idatzi dituzten bi liburuak aurkeztuko dituzte 18:00etatik aurrera.

Leitzako Erdi Aroko dorreak eta historia lantzeko asmoz, urteak daramatza Leitzako Udalak Iñaki Sagredo historialariarekin lanean. Urte hauetan guztietan bildutako dokumentazio hori baliatuta, zurgin

baten ikuspegitik saiakera bat osatu du *Leitzako dorreak: Nafarroako istorio bat Erdi Aroko zurgin batek kontatua* izenburupean eta Pamiela argitaletxearekin argitaratu du.

Albizuak, berriz, *Leitzako dorreak: Gaizkileen galtzada* eleberria aurkeztuko du. Sagredok Leitzako dorreen inguruan bildutako informazioa fikzioarekin nahasi eta gazteentzat erakargarriagoa izanzen eleberria osatu du. Liburuak aurkeztearekin batera, gaiari buruzko solasaldia eskainiko dute.

Euskal Herriko eta nazioarteko antzerki taldeak ariko dira Herri Aretoko oholtzan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 11n *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlan eskainiko du Kamikaz kolektiboak. Herri Aretuan, 19:00etatik aurrera, Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola eta Iraia Elias igoko dira oholtzara. Komedia ga-

ratza da, hamalau urtetik gorakoei zuzendutakoa.

Martxoaren 10ean, 19:00etan, Companhia do Chapitô antzerki taldeak Julio Cesar obra eskainiko du. Portugalgo antzerki talde ezagunaren proposamen berria da eta sarre-
ra dagoeneko eskura daitezke.

Nafarroako boulder txapelketa irabazi du Maria Feok

Ilbeltzaren 19an jokatu zituzten Nafarroako eskalada txapelketak eta Boulder modalitatean, leitzar gazteak jantzi zuen txapel beltza. Duela hiru urte hasi zen eskaladan eta maila ederra erakusten ari da dagoeneko Nafarroako selekzioarekin.



Maria Feo txapel beltzarekin. P. FEO



JUAN MARI ZABALETA SORO, PABLO FEO ETA ENERITZ IRAOLA

Heldu den urtekoen esperoan dagoeneko

Herriko kalejira koloretsuan, gaztetxeko karaokean, baserrietako eskean edo Karrapeko dantzaldian. Atsauretu eta pestaz gozatzeko bere tokia topatu dute herritarrek. Eguraldia bezain beroa izan da aurten inauterietan sortu den giroa. Atzerako kontaketa hasi dute inauteri zaleak!



AURRERA KIROL ELKARTEA

Ttikienek ere zelai artifiziala eskatu dute

Urtarrilaren 21ean futbol eskolen arteko partiduak jokatu zituzten eta hitzordua aldarrikapenerako baliatu zuten. Arkiskil futbol zelaiaren egoera kaxkarrak zuzenean eragiten die taldeko txikienei ere: «ezin dute futbol zortzian jokatu eta jolastu eta entrenatu, dena, pistan egin behar izaten dute».



2018an mobilizazio jendetsuak egin zituzten Leiztan. ARTXIBOA

Pediatra zerbitzurik gabe daudela salatu dute gurasoek

Epe motzean arazoak ez duela irtenbiderik izanen dirudi eta erreklamazioak jartzeko eskatu dute

TTIPI-TTAPA

Urtarril erdialdeaz geroztik, pediatrarik gabe daude Leitzako Osasun Etxean eta ez dute ordezkorik bidali. Horren ondorioz, erizainaren lan karga handitu eta nahitaez pediatrik aztertu behar dituen kasuak Iruñera bideratzen ari dira. Badirudi, epe motzean

arazoak ez duela izanen irtenbiderik, «pediatra gutxi daude eta Leitzako plaza betetzeko beti izan dira arazoak». Dena den, «erreklamazioak jartzeak lagundu dezakeela ikusita» herritar guztiak bere erreklamazioa jartzera animatu nahi dituzte. Online edo Osasun Etxeko harreran egin daiteke.

Liburutegi ibiltariaren bisitak datozen asteetan Areson, Goizuetan eta Aranon

TTIPI-TTAPA

Orain arteko martxarekin segi eta bi astetik behin izanen dute liburutegi ibiltariaren bisita Aresoko Nazabal eskolan. Otsailaren 9an eta 23an izanen dira hilabete honetako bisitak. Beti bezala, 12:30etik 14:00ak arte egonen da Arkaitz eskolan eta liburutegi betetako kaxak eman eta liburu trukea egitearekin batera, literatura-aren bueltan, ongi pasatzeko proposamenen bat eramanen du ikasleentzat.

Goizueta eta Aranora, berriz, hilean behin joanen da libu-



Xake hitzorduak astelehenetan.

Urtetako borroka

Ez da berria Leitzaldean eta Urumealdean pediatria zerbitzua bermatzeko eskaera. Zerbitzuak gorabehera handiak izan ditu azken urteotan eta horri aterabidea bilatzeko, hainbat mobilizazio egin izan dituzte; jendetsuenak 2018an. 2022ko martxoan pediatria zerbitzua berrezarri zuten eta, aldaketak aldaketa, epe luzean ongi funtzionatu du. Orain, ordea, pediatrik luzerako izan den baja eskatu du eta, gaur gaurkoz, ez dago ordezkorik.

Eskualde mailako arazoa

Leitzaldea eta Urumealdeko herritar guztiei eragiten dien arazoa da. Aresoko haurrak Leitzako Osasun Zentrora joaten dira eta Goizueta eta Aranokoak Goizuetako Osasun Zentroan hartatzen dituzte, baina Leitzako pediatria zen astearteetan hara joaten zena. Ordezkapenak egiteko pediatrik ez dagoela argudiatu izan du Osasun Sailak, baina gurasoek salatu dute «lanpostu horien atzean dauden baldintzak zeintzuk diren begiratu beharko litzatekeela. Gaur egun dugun egoera, ezin da normalizatu».

rutegi ibiltaria. Otsailaren 16an izanen da hurrengo hitzordua. Goizuetan 14:30etik 15:30era arte egonen da eta Aranon 16:00etatik 16:30era. Goizuetan eta Aranoko buelta egiten duten egunetan Leitzako liburutegia 17:30ean irekiko dute.

Hilabeteko beste hitzorduen berri ere eman du liburutegiak. Xakean aritu nahi dutenek astelehenero izanen dute aukera 19:00etatik 20:00etara Leitzako liburutegian. Irakurle taldeak ere hilabetean behin elkartzeko segitzen du. Azken bilera, otsailaren 7an egitekoa zuten, 18:00etatik 20:00etara, *Ni ez naiz Mikel Laboa* nobela grafikoak aztertuko.

Gizarte zerbitzuek webgune berria estreinatu dute

Leizta, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen web gune berria eta egoitza elektronikoa erabilgarri daude dagoeneko. Bisitatu nahi duenak www.lagagizartezerbitzua.org helbidean sartu beharko du. Gizarte zerbitzuak zer diren ikusi eta egiten duten lanaren berri izateko aukera eskaintzen dute bertan. Gainera, urtean zehar antolatzen dituzten tailerren, hitzaldien... inguruko informazioa ere bertan zintzilikatuko dute eta hainbat tramite egitea erraztuko dute.

Nekazaritzako Ibilgailuen Inspekzio Teknikoa egiteko aukera

TTIPI-TTAPA

Datozen egunetan, Leiztan, Aranon, Areson eta Goizuetan barna ibiliko da Nekazaritzako Ibilgailuei Inspekzio Teknikoa pasatzeko unitate ibiltaria. Otsailaren 13an, 14an eta 15ean Leiztan izanen dute aukera 09:45etik 14:00etara. Aurreko urteetan bezalaxe, Zeballosen atarian jarriko dute azterketa egiteko makina. Areson, otsailaren 16an Plaza Zaharrean egonen dira 09:45etik 13:45era. Otsailaren 19an, berriz, Goizuetan eta Aranon izanen dute traktoreari azterketa teknikoak egiteko aukera. Goizean, 10:00etatik 13:00etara Goizuetako Irisarri pilota plazan egonen dira eta arratsaldean, 15:00etatik 17:30era, Aranon.

Bide batez, gogorarazi dute traktoreei zuzendutako kanpaina dela eta quad-en azterketa teknikoak egin nahi dituztenek, hitzordua hartu eta IIT gune finko batetara joan behar dutela.



Itxaso Onsalo, Mikaela Martinikorena eta Oihana Onsalo, Sastineko atarian.



Azken berrogeita sei urteetan herriko taberna eta denda bakarra izan da.

Sastineko ateaak betirako ixtea erabaki dute

Berrehun urte inguru egon da irekita eta azken berrogeita sei urteetan herriko taberna eta denda bakarra izan da

ENERITZ IRAOLA

Herritarrei galdetuta, Sastinean taberna eta denda «betidanik» izan direla diote. Betirako zitudien, baina ez da hala izango. Urtarril hasieran hartu zuten erabakia eta hilabete erdi aldera jarri zuten itxieraren berri emateko kartela atarian. Hala, zalaparta gehiegirik ate-

ra gabe, herriko taberna eta denda bakarrak atea itxi ditu. Argi diote jabeek: «erreleborik ez dago eta negozioa uzteko garaia ailegatu da».

Mikaela izan da Sastineko martxa azken urteetan eraman duena, bere aurretik Juanita eta Martina egon ziren. Beraz, emakumeak izan dira egune-

rokoan taberna eta dendari eutsi diotenak.

Berrehun urteko historia

Data zehatzik ez dute eskura, baina 1822 urtearen bueltakoak dira bildutako lehenbiziko erreferentziak; berrehun urte baino gehiagoko historia du, beraz. Historia luzea eta bertan bizitako istorioak ere milaka. Etxebizitzaren erdiko solairuan taberna eta behekoan ukuilua zegoen garaiak ekartzen dituzte herritar askok gogora: «sarreran barra luzea zegoen eta aurrera segi eta etxeko sukaldea. Sukalderaino sartzen ginen eta han zegoen mahai luzean eserita egoten ginen pipak jaten». Juanitaren ganbaran denetarik egoten zela ere nabarmentzen

dute: «zerbait eskatu, galtzerdiak, espartzinak... berdinez, eta ez dakit nola egiten zuten, baina ganbarara igo eta minutu gutxian eskatutakoa ekartzen zizun».

Herritarrei zerbitzu bat eskaintzetik haratago, herritarren bilgunea ere izan da. «Kafe bat edo ardo bat edatera edo ogiaren aitzakian... egunero tabernara joan eta Mikaelarekin kontu-kontari egoten ginenak asko ginen». Gaztexeagoek, Mikaelaren krocketekin eta goxokiekin lotzen dute Sastine. Hutsunea nabaritzen hasiak dira dagoeneko herritarrek eta aldaketa handiena barraren atzeko aldean zegoenak sumatuko du. Mila esker emandako guztiagatik eta zorte on!



NAZABAL ESKOLA

Dolua landu dute literaturaren bidez

Azken galdera amari liburua aurkeztu zuen Manex Beristainek Eskoletxean urtarrilaren 22an. Txotxongilo, bideo, gitarra eta kandelaz lagunduta, emaztearen heriotza abiapuntutzat hartuta sortu duen ipuina kontatu zuen. Jende ugari bildu zen eta giro goxoan egon ziren denak.

Kudeaketa batzordea martxan jartzeko lehenbiziko pausoak eman dituzte

ENERITZ IRAOLA

Hainbat buruhauste sortu ditu azken hilabeetan udalerako hautagairik ez izateak, baina azkenean herritar batzuk pausoa ematea erabaki dute. Sei herritarrek osatuko dute kudeaketa batzordea: Alaitz Olanok, Igaro Baldak, Aingeru Etxaidek, Olatz Telleriak, Irantz Alustizak eta Beatriz Murok. Taldea osatzearekin batera, zereginak banatu dituzte eta talde lanean arituko direla azpimarratu duten arren, Beatriz Murok hartuko du batzordeko lehendakaria izateko

ardura. Beharrezko dokumentazioa bidali dute dagoeneko Nafarroako Gobernura eta erantzunaren esperoan daude lanean hasteko.

Zintzilik dauden kontuak

Aipatu behar da, gaur gaurkoz, aurreko udal taldeak segitzen duela jardunean, baina hainbat erabakik gehiengo oso absolutua eskatzen dutenez, espediente batzuk zintzilik daudela. 2024ko udal aurrekontuak ere onartu gabe dituzte eta talde berriaren lehenbiziko zereginetako bat izanen da.

Korrikarako giroa berotzen hasi dira herrian

Petoak eta kilometroak salgai jarri dituzte eta kultur ekintzak prestatzen hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 11ko goizean egin zen publiko 23. Korrikako ibilbidea eta pozez jaso zuten goizuetarrek aurten herritik pasako denaren berria. Korrikaren bueltan antolatutako lehenbiziko batzordeetan ere nabaria zen herritarren jakinmina eta lanerako gogoia. Batean zein bestean, 20 lagunek gora bildu ziren.

Herritarrek kilometroak erostera animatzea izan da hurrengo pausoa, izan ere, ez da erronka makala astearte arratsalde batean Leitzako Basa-

kabitik Naparralde arteko kilometroak betetzea. Jendeak gogotsu hartu du erronka eta dagoeneko 18 kilometro eskatu dituzte. Nahi duenak oraindik eskura dezake goizuetakorrika@gmail.com-era idatzita. Petoak ere salgai jarri dituzte Amaia Kafetegian eta Estankoan, 6 euroren truke. Korrika iritsi bitarteko giroa berotu asmoz, hainbat kultur ekintza antolatzeko asmoa du batzordeak. Zenbaitxehetasun lotzekoak dituzte oraindik eta dena zehaztu bezain pronto egingen da publiko egitaraua.



Hogeita bost lagun inguruko kuadrilla bildu zen. ARAINBURU MENDI TALDEA

Besabitik Goizuetara arteko bidea lagunarte ederrean osatu dute

TTIPI-TTAPA

Hogeita bost bat lagun bildu ziren Arainburu Mendi Taldeak urtarrilaren 28an egin zuen mendituzulian. Besabitik abiatu eta Goizuetara arteko bidea egin zuten. Eguraldi bikaina izan zuten lagun eta paraje bikainaz gozatzeko aukera izan zuten. Taldea ere, giroa

bezain ona. Lau ordu ta erdirren bueltan, herrian ziren berriz ere. Otsailean, inauteriak tarteko, ez dute irteerarik antolatu, baina martxo eta apirilean Goizuetara inguruan beste mendi itzuli bat egiteko asmoa dutela aurreratu dute. Hurrengo aldizkarian izanen duzue horien berri.



FELIX LOIARTE

San Anton Eguneko ohitura zaharrak

Urteroko ohitura mantendu eta San Anton ermitara hurbildu ziren hainbat herritar urtarrilaren 17an. Apezetxearen zaldiak bedekapena jaso zuten eta ermitari hiru buelta eman zizkion, ohiturak dioen bezala. Meza kantatua izan zuten gero, eta bukatzeko hamaiketakoia.

Espainiako klubetxapelketan maila bikainean ari dira

Iaz bigarren mailatik lehenengo mailara igotzea lortu ondotik, Espainiako klubetxapelketan hasia da Umore Ona pilota elkarteak. Jokatutako lehenbiziko bi partidetan erraz nagusitu dira.



IGOR ELIZEGI

Ignazio Bergara goizuetarraren gutunei buruzko bigarren argitalpena aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA

Ignazio Bergara goizuetarraren Gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Edizioa Eta Hizkuntza Azterketaliburua aurkeztu dute Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak. 2019an Paskualuzenea etxeko kutxa batean topatu zituzten Ignazio Bergara eta Jose Ramon Minondo olagizonen arteko izkribuak konparatzen dira liburuan. Euskaltzaindiak editatu du Iker bilduman, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. 368 gutunen transkripzioak zehatz

eta zorrotz aztertu dituzte egileek. Hiztegiaren atala luzea da eta kontuan hartzeko, gutxi ezagutzen den burdinolen inguruko lexikoaren erakusleho aparta baita. Onomastikari eskainitako atalean ere interes handiko lekukotasunak ageri dira. Testuen transkripzioak, salbuespenak salbuespen eta zailtasunak zailtasun, grafia modernora egokitzen saiatu dira, gaur egungo irakurlearentzako egokituak. Dena den, originalak bere horretan irakurri ahalko dira, USB txartel baten bidez.

«NPBak diru sarrera garrantzitsua bermatzen die baserritarrei»

MARIANO IRIBARREN ETA JOXELU RETEGI BAZTANGO UDALEKO ZINEGOTZIAK

Abeltzaintzan erabiltzeko herri lurak eskatu direla eta, Baztango Udalak araudi berria aurkeztu du nekazarien arteko lurren banaketa arautzeko

R. OSKARIZ

Urtarrilean Baztango Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB edo PAC) akordio berria. Hektarea komunalak pertsona edo sozietate eskatzaileei nola banatu arautzea du helburu akordioak, eta horretan aritu dira lanean Mariano Iribarren Irigoien eta Joxelu Retegi Iturbide udaleko zinegotziak. **Zer da Nekazaritza Politika Bateratua?**

Europar Batasunak nekazaritza antolatzeko eta nekazaritzako dirulaguntzak kudeatzeko egiten duen araudia da. Azken 40 urteetan Baztango lur komunalak baliagarriak izan dira dirulaguntza horiek gure nekazarien artean banatu ahal izateko.

Zenbateko eragina du bertako ekonomian?

Ezin dugu datu zehatzik eman, udalak ez dakielako zehatz-mehatz zenbateko dirua iristen zaien nekazariari, baina baserritarrek diotenez, beren diru sarreraren zati garrantzitsu bat bermatzen die.

Gaur egun, zenbat lanpostu sortzen ditu abeltzaintzak Baztanen?

NPBko dirulaguntzetan, udaletik dakigunez, 350-400 us-tiapien izaten dira eskatzaileak, beraz, hor badugu estimazio bat. Eskatzaileen artean nekazari profesionalak, erdi profesionalak eta bertzelakoak daude.



Baztango EH Bilduko zinegotziak dira Iribarren eta Retegi. UTZITAKOIA

«350-400 USTIAPENEK ESKATZEN DUTE DIRULAGUNTZA»

«LURRA ESKASTU EGIN DA ETA BANAKETA ARAUTU BEHAR IZAN DUGU»

Eta zenbat azienda buru daude guztira?

Kasu honetan Nafarroako Gobernuko datuetara jo beharko genuke, eta azken erroldan eman zaizkigun kopuruen arabera, 2023an Baztanen 8.238 behi azienda, 3.604 zaldi azienda eta 30.936 ardi azienda zeuden. Hiru talde hauek dira Baztango komunaletan alhatzeko NPBko dirulaguntzen barnean sartzen direnak. Bertze taldeak (zerri aziendak, hegaztiak eta bertzelakoak), bertze dirulaguntza mota batean sartzen dira.

Udalbatzak NPBaren akordio berria onetsi du berriki. Zergatik aldatu duzue?

Bai, araudi berria onartu da, baina oraindik ez da guztiz ordenantza bat, gai batzuk hetsi gabe baitaude. Aldaketan irizpide nagusi batzuk paratu ditugu, NPBrako laguntzetako araudian eta kanpoan alhatzen diren azientetan oinarrituta. Orain arte ez zegoen araudi zehatzik, eta nekazariari eskatu ahala ematen zitzaien erabilpen eskubidea. Baina gaur egun lurra eskatu da eta aldaketa behar genuen.

Zein arazo sortzen ziren horrekin?

Azken urteetan luraren arabera izan da dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena. Hasiara batean denendako zeuden lurak, eta nekazariari eskatu bezala ematen zien udalak. Azken urteetan, berriz, subentzionarioak diren azalerak urritu dira, eta honek lur eskasia ekarri du. Horren ondorioz, ez zegoen nahi adina lur nekazari guziendako eta arautu behar izan dugu.

Nori zuzendua dago araudi berria?

Baztango lur komunalak nekazaritza estentsiboko dirulaguntzen atalean sartuko liratekeen. Hortaz, bere abereak modu estentsiboan hazten dituen edozein nekazari edo abeltzain izan daiteke onuradun. Hau guztia 1048/2022 errege dekretuan araututa dago, bertan ez da nekazari moten inguruko bereizketarik egiten.

Araudi berria aurkezteko, batzarrak egin dituzue herrietan. Zer nolako erantzuna izan du baztandarren aldetik?

Nahiko kontent gaude. Bortz batzar deitu ditugu eta 120 pertsona inguru hurbildu dira. Badakigu eskatzaileen herena dela, baina kontent gaude.

Ekonomian ez ezik, politika honek eragina izanen du mendi eta larreen zainketan, ez?

Bai, dudarik gabe. Azken urteetan larreetan dabilen azienda kopurua murriztu egin da, eta ondorioz, larreak galtzen ari dira. Otea eta larreak nagusitzen ari dira belardietan. Ea araudi berri honekin larrera doan azienda kopurua goratzea lortzen dugun. Horrela, mendia garbiago egonen da.

Zenbat hektarea komunal erabiltzen dira horretarako?

Azken NPBko sasoiaren Baztani 8.500 hektarea tokatu zitzaizkion. Erran dugun bezala, duela urte batzuk baino guttiago. Udaletik alegazioak egin ditugu lur eremu batzuk berreskuratzeko, ikusiko dugu ea onartzen dizkiguten.

Zein dira Baztango bazkaleku nagusiak?

Erdiz, Belate eta Lizartzu dira gaur egun dauden bazkalekuak eremu hetsi bezala, baina azalera haundiena mendi librean dago. Hor ditugu Gorramendi, Saioatik Belaterako aldea, Alkurruntz eta Atxuela ingurua eta beretze hainbat eremu.



Behiak Erdizko bazkalekura eramaten. Datuen arabera, 2023an 8.328 behi azienda zituen Baztanek. VALLEDEBAZTAN.COM

Testuinguru honetan, nolako eragina izanen luke Erdizko meategiaren proiektuak gauzatuz gero?

Ondorio arras kaltegarria izanen luke. Meategiak ere-

mu bat okupatuko luke, baina han sortzen diren hautsa eta bertzelako ondorioak kaltegarriak izanen lirateke orain arte han alhatzen ziren aziendendako. 90 nekazari

inguruk alhatzen dituzte han beren aziendak eta hauek guztiz kaltetuak izanen ziren meategi proiektua aitzinerat ateratzen bada.

Zerbait gehitu nahi duzue?

Orain arte landu den araudiaren garapena aho batez onartu dela, bai landu duen batzordean, baita Batzar Nagusian ere. NPBtik eman diren arauak onarritzat hartu ditugu araudi berria egiteko.

«LARREAK ERABILIZ MENDIAK GARBIAGO IZANEN DITUGU»

«MEATEGIAK ONDORIO KALTEGARRIAK IZANEN LITUZKE»

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ERABILTZAILEAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

OTEIZA
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos

UGEPa Erdizko meategiaren proiektuan

Erdiz Bizirik plataforma eta Baztango Udala erabakiaren kontra agertu dira, «proiektuaren inposizioa» salatuz

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Udalez Gaingidiko Eragina duen Plana (UGEP) izendatu zuen urtarrilaren 17an Magnesitas Navarras enpresak Erdizen egin nahi duen meategi proiektua. UGEParen helburua proiektua interes publikokoa izendatzea da, tokiko udalaren eta haren legediaren mende izateari uzteko. Honekin, aurrera eramane nahi dituzte meategia egiteko lanak eta beharrezko instalazio eta azpiegituren eraikuntza. Haien artean, 6,6 kilometroko bide baten egokitzea NA-1740 errepidetik. Meataritza proiektuak 25 urteko iraupena izanen duela aurreikusi du enpresak.

«Inposiziorik ez»

Erdiz Bizirik plataforma argi mintzatu da erabakiaren kon-

tra: «ez dugu onartuko proiektua UGEP gisa inposatzea. Argi dago proiektu hori babesten dutenek Baztango herritarrak eta beren bizimodua gutxiesen dituztela, erabakiak ondorioak izanen baititu tokiko ekonomian. Izan ere, 90 nekazari profesionalak eramaten dute beren azientza Erdizera».

Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean publikatzean alegazioak aurkezten ahalko dira, eta zerrenda bat prestatuko dute herritarrek sinatzeko. «Ahal bezain berteze pertsonak sinatzea ezinbertzekoa da herritarrok proiektua babesten ez dugula erakusteko».

Bertetik, gobernuari gogoratu diote «hartu berri duen erabakia baztandarren iritzia- ren kontrako dela». Izan ere, «udal hauteskundeetan bozkatu zuten hamar herritarre-



80 abeltzain familiek erabiltzen dituzte Erdizko herri lurak. ARTXIBOTIK

tik zortzi proiektuaren kontra egiten zuten alderdiekin le- rrokatu ziren. Baztandarrek beren jarrera zein den garbi erakutsi dute, baina enpresa multinazionalen promesa lausoak lehenetsi dituzte».

Enpresak «landa eremuko lanpostuak, ingurumen ikuspegi-ko ekonomia garapena eta kohesio territoriala mantenduko eta sustatuko dituela erran du. Denek ongi aski dakigu gisa horretako proiektuak eta nekazaritza estentsi-boa ez direla bateragarriak, eta multinazionalen promesak inoiz gutti betetzen direla». Izan ere, «zein ingurumen ikuspegi garatzen lagundu dezake Nafarroako enpresa kutsakorrenetako batek?».

ELA ere proiektuaren kontra

ELA sindikatuak meategiaren tramitazioa gelditzeko eskatu du, eta UGEPak «udal eskumenak eta herritarren borondatea urratzen dituela» salatu du. 2022an gobernuak «herri kontsulta ez baimentzea erabaki zuela» salatu du, eta «abeltzaintza estentsiborako erabiltzen diren herri- lurrak pribatizatu nahi dituztela enpresa bati mesede egiteko».

Azpiarratu dute «ezin dela meatze proiekturik egin Kontserbazio Bereziko Eremu batean», eta adierazi dute «Nafarroako Gobernua jakitun dela proiektuaren larritasunaz, eta edozein oztopo gainditzen saiatzen ari direla».

Udalak herri galdeketa eskatu du

Baztango Udalak UGEPa gelditzea eta herri galdeketa antolatzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Urtarrilaren 25ean egindako bilkuran onartu zuten EH Bilduk aurkeztutako mozioa, EH Bildu, Zurekin Baztan eta Baztango Independenteen aldeko 11 botoekin eta Geroa Bai eta UPN- ren kontrako birekin.

Adierazi dutenez, «meategia Baztango herri lurretan egin nahi dute, mendez mende Baztango milaka abeltzain eta nekazari beren azientza alhatu duten lurretan». Gaur egun ere, «auniz dira eremu horre-

tan azientza alhatzen duten baztandarrek: 2023an, erraterako, 90 abeltzainek ehunka abelburu eramane dituzte beren behor, ardi eta behiak alhatzera».

Hori dela eta, udalak mozioan aurkeztutako hiru proposamen hauek onartu zituen:

1. Nafarroako Gobernuari eskatzea Magnesitas Navarras SAK sustatutako aire zabaleko meategiaren Udalez Gaingidiko Eragineko Sektore-Proiektu izendapena deuseztatzea.
2. Nafarroako Gobernuari eskatzea Baztango herri lurre-



Mozioak aldeko 11 boto eta kontrako bi izan zituen. TTIPI-TTAPA

tan egin nahi den meategiaren inguruko galdeketa antolatzea, baztandarren iritzia jakiteko eta galdeketa emaitza errespetatzea.

3. Udalak baztandarren eta herri lurren defentsa egiteko konpromisoa hartzea, horretarako behar diren ekinbideak jarraituz.

Joste ikastaroak Baztango hainbat herritan

Elbeten, Arizkunen, Lekarozen, Erratzun eta Berroetan ematen ari da joste eta patroï sortze klaseak Elena Ezkurdia Arriada

ARANTXA GAMIO

Urritik honat Baztango etxeetan josteko-makinen soinuak, hari puskak eta gonak gehiago ikusi eta sumatzen diren arrazoia, Elena Ezkurdia Arriadaren eskutik Elbete, Arizkun, Lekaroz, Erratzu eta Berroetan egiten ari diren joste eta patroï sortze ikastaroa da.

Berroetako taldean astero ordu eta erdiko hitzordua egiten ari dira 7-8 emakume, hainbat adin eta herritakoak; denak ere hurbilekoak baina oraingoan bertze aitzakia batekin biltzen direnak. Aberasgarria da barrideari esker barrenak nola hartu ikastea, edo oihala mozteko herritarren laguntza izatea. Eta nola ez, adin guzietako parte hartzaileak izatea.

Horren guztiaren sustatzailer eta buru dugu Elena; bere



Berroetako taldeko kideak. UTZITAKOIA

ezagutza, esperientzia eta pasioa gure herrietan zabaldu nahi eta erantzun ona ikusirik, ikastaldeak abiatu baititu. Momentuz hirugarren sortze lanean ari dira, guztiak gonak: batzuk zabaltasun haundikoak, bertzeak *bies* erara moztuak, eta parpaildunak. Prozesu guztia ikasten ari dira: neurria hartu, patroïa sortu, oihala moztu eta josi... ez harritu hurrengo asteetan gure karriketan gona gehiago ikusteaz!



LIERNI OTEIZA

Ornoz-Mugairin giro ederra inauterietan

Urtarrileko azken astean, ortzegunear hasi eta larunbatean akitu zituzten inauteriak Ornoz-Mugairin. Eguraldia lagun eta akordeoiaren soinuak alaituta, etxez etxe ibili ziren gazteak herrian eta inguruko baserri zein auzoetan eskean. Ongi akitzeko, larunbatean afari jendetsua egin zuten.



MAITANE MARITORENA ETA MAIALEN IANTZI

Inauteriak bikain Anizen eta Berroetan

Berroetarrak Anizerat joan ziren urtarrilaren 20ko asteburuan inauteriak ospatzeko, eta hurrengo astean aniztarrek bisita bueltatu zieten. Giro ederrean eta kolorez beteak ibili ziren bi herrietan etxez etxe, eta bildutako puskekin afari ederrak egin zituzten.



UTZITAKOIAK

Iruritan baserri baserri ibili dira

Duela bortz urte berrartu zuten iruritarrek baserrietan eskean ibiltzeko ohitura, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Adin guzietako herritarrek bildu ziren goiz-goizetik gauera arte eta giro ezin hobea izan zuten, Nahia trikitaliarekin. Heldu den asteburuan herrian izanen dituzte inauteriak.

Otsailean ere ekitaldi kultural ugari Baztanen

Musika izanen da nagusi hilabete honetan Baztanen, eta antzerkizaleek ere izanen dute zer ikusi

TTIPI-TTAPA

Hilabetero bezala, Baztango Kultura Zerbitzuak agendan bildu ditu otsaileko ekitaldiak.

Emakume Zientzialariak

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da otsailaren 11, hortaz, Berdintasun Zerbitzuak ekitaldi berezia antolatu du Irurritako Gizarte Bilgunean. EIDABEren eskutik, *Piztu EmakumeON Energia!* jarduera izanen da 12:00etan, familia guziarendako aproposa. Marie Curie gidari hartuta, emakumeek zientziaren munduan duten eragina erakutsiko du modu dibertigarri eta hezitzailean.

Kontzertua Elizondon

Elizondoko Abesbatzak kontzertua emanen du Oskarbi talde gipuzkoarrarekin batera otsailaren 17an Elizondoko elizan 20:30ean. Sarrerak bortz euro balioko ditu.

Baztan Kantuz Amaiurren

Kantatzea gustuko dutenek Amaiurren izanen dute hilabete honetan hitzordua. Hi-



Ripa, Inbuluzketa eta Irazoki. ONDIKOL

laren 18an 12:00etan herriko plazan elkartuko dira.

Txistu emanaldia

2023an Euskal Herriko Txistulari Gazteen I. Txapelketan sarituak izan ziren Izar Inbuluzketa, Eneko Irazoki eta Aitor Ripa baztandarrek kontzertua emanen dute otsailaren 24an Arizkunenean 18:00etan.

Helduendako antzerkia

Otsailaren 25ean Iker Galartzak eta Zuhaitz Gurrutxagak *Almazenean* komedia aurkeztuko dute Irurritako Gizarte Bilgunean 18:00etan. Erretiroa hartzeaz dagoen eta bere lanpostua ordezkatzeko duen bi pertsonen arteko tirabirak irudikatzen ditu antzezlanak.



(H)ILBELTZA

Arraskastatsua izan da X. (H)ilbeltza

Ilbeltzaren 22an hasi eta igande bitarte, asteartean ez berte, egunero izan zituzten ekitaldiak: liburu aurkezpenak, film emanaldia, solasaldiak, jostetak, bertso saioa... urtetik urtera gero eta jende gehiago etortzen den gisa berean, aurtengo edizioan, egunetik egunera jende gehiagok parte hartu zuen.

Giro ederrean ospatu dute Gizakunde Arizkunen eta Erratzun

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 27ko ilunabarrean Arizkundik abiatu eta Erratzurainoko ibilbidea egin zuten hainbat mozorro, dama, joaldun eta sagar-dantzarik, eta, nola ez, hartzak. Jende franko ere bildu zen desfilea ikustera.

Ohitura zaharrari segituz, Erratzuko plazan Jantzilo epaitu eta erre zuten, eta berarekin batera aurtengo gaitz eta zapaltzaile guziak. Akitzeko, afaria izan zen elkartean eta ondotik besta eder batekin borobildu zuten gaua.



Jantzilo erre zuten Erratzuko plazan, urteko txar guziarekin batera. UTZITAKOIA



Arantza Hotela maitasunaren babesleku da naturan San Valentin egunerako.

«Maitasuna airean senti daitekeen
sentimendu bat da, baina leku
batzuetan gehiago arnasten da.
Arantza Hotela da leku horietako bat»

Gure hotelean, maitasuna bazter guztietan sentitzen da: bainuontzi propioa eta mendirako bistak dituen logean, bikoteentzako spa eskusiboan, eta menu erromantikoa dastatu ahal izanzen dutun jatetxean.

Konektatu berriro egunerokotasunak aunitzetan uzten ez digun magia horrekin.

Gure jatetxean bazkari edo afari gozoaz gozatzeko aukera eskaintzen dizugu, eta spa pribatuko saio bat DOAN bi lagunentzat.



BALDINTZAK: SPAREN IRAUPENA 45 MINUTUKO DA. BI LAGUNTZAT EDO GEHIAGORENTZAT, MENUAK AUKERAN: MENU ERROMANTIKOA, DASTATZE MENUA, EDARIEKIN UZTARTUTAKO DASTATZE MENUA, MENDIUR EDO IZU. KONTSULTA ITZAZU MENUAK GURE WEBGUNEAN: WWW.ARANTZAHOTELA.COM EDUKIERA MUGATUA, ERRESERBAREKIN. MARTXOAREN AMAIERARA ARTE BALJO DUEN ESKAINTZA, BORTZIRIETAKO, MALERREKAKO, BAZTANGO ETA XARETA HERRITARRENTZAKO ESKAINTZA.

Egin ezazu erreserba **+34 654 31 89 49** telefono zenbakian edo info@arantzahotela.com helbidean.



Herriko etxeko ostatua udan edekiko dute

Hiru bazkideren artean hartu dute kudeaketa, tartean Raul Tarancon sukaldaria ezaguna dela

MARIFA ETA KORO

Martxan dago Herriko etxeko ostatua eta jatetxearen irekiera. Hasieran Aste Sainduko edekitzea espero zen, baina afera luzatu da, eta udan edekiko da.

Hiru bazkideren artean hartu dute kudeaketa, eta hiru horietako bat Raul Tarancon bilbotarra da, sukaldaritzan munduan ospe polita daukana. Galdakaoko Ostalaritza Goi Eskolan goi zikloa ikasi zuen eta aldi berean sukalde buru eta *maitre* tituluak lortu zituen.



Raul Tarancon sukaldaria

Hilabeteko 2.000 euroko errenta ordainduta hartuko dute, eta horretaz gain, etxebizitza ere hartu dute, hau hilabeteko 300 euro ordainduta.

Akelarre elkarteak herritarren parte hartzea bixkortu nahi du

Akelarre Elkarteak hausnarketa bilkura bat egin zuen urtarril bukaeran, herritarren parte hartzea bixkortu nahian. Hogoi bat lagun pasa elkartu ziren, eta bi erabaki adostu zituzten: bilera egunak aitzinetik jakinaraziko direla, jendearen parte hartzea errazte-

ko. Eta bertze aldetik, bestetako antolamentua aldatuko dela: ekitaldi bakoitzerako lan-talde bat eginen da, arduradunen lana arintzeko. Herritarrei mezu hau bidaltzen zaie: zenbat eta jende gehiago lanean aritu, orduan eta lan errazagoa denentzat.



KULTURKARI
Docina grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak

Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material erabat pertsonalizatuta





Parlamentariak Zugarramurdi, Baztan eta Sarako alkateekin. UTZITAKOIA

Saihesbideko proiektua ezagutzera etorri ziren Nafarroako parlamentariak

MARIFA ETA KORO

Duela hiru urte herriko plazan neurketa bat egin zuten, eta egunero 1.500 auto pasatzen zirela ikusi zuten. Hau ikaragarria da herri ttiki huntarako. Hoietako aunitz herria ezagutzera etortzen direnak dira, baina portzentaje handi bat Sara aldetik Dantxainerainoko bidea egiten dutenak dira.

Hori dela eta, urtarrilaren 26an Nafarroako Parlamentuko delegazio bat etorri zen herrira, egin nahi den saihesbideko proiektua ezagutzera. Argitu Agerre, Battit Laborde eta Fernando Anbustegi, Zu-

garramurdi, Sara eta Baztango alkateek egin zieten harreara, baita Ainhoa Agirre, lezearen eta museoaren kudeatzaileak eta proiektuaren arkitektoek ere. Erabiliko diren inguruak ezagutzen ibili ziren, eta ondotik auditorioan, arkitektoak proiektua aurkeztu zuten.

Lan hori egiteak finantziario haundia eskatzen du: bi milio euro. Baina Athletic-ek Osasunari gaztetxo bat kontratatzeagatik diru hori ordaindu diola jakinik, ez du halako diru aldea ematen...



MARIFA ETA KORO

Herri langileak fuego ari dira

Herri langileak fuego lanean ari dira aste hauetan. Herrian harrizko paretan aunitz dago, eta gehienak goroldioz beteak daudenez, karrika guztietan *kartxerra* pasatu dute. Orain falta dena Elizargietako eta Beheitiko karrikako paretak dira. Andamioak behar direnez, aitzinago eginen dituzte.

Ihauterietako ibilbideak aldatu dituzte aurten

Lehengo ohitura berriz hartuz, igandeko eta asteleheneko gaualdia Karretero ostatuan izanen dute gazteek

ARANTXA ETA IRAIA

Inguruko bertze herrietan bezala, Urdazubin ere ihauteriak ospatuko dituzte otsailaren 11tik 13rat, igandetik astearterat. Urteroko egutegia mantendu bada ere (egitarau zehatza erdiko gehigarrian duzue), ibilbidean zenbait aldaketa egonen direla jakinarazi dute herriko gazteek. Hasteko, lehengo ohitura berriz hartuz, igandeko eta asteleheneko gaualdia Karretero ostatuan izanen da.

Berrikuntza gisara, igandean etxean eskearekin hasiko dira gazteak, lehenago asteartez bisitatzeko zutuzten etxeak eginez: Landibar auzoa, Telleria, Iribere eta herri erdian dauden etxeetatik pasako dira. Aurten haurrek ere igandearekin hasiko dute haien ibilbidea, lehengo urtetan asteartearekin egiten zuten etxez etxeko eske. Hartara, Alkerdi, Larrainta, Dantxarinea eta herria egiten dituzte lehen egunean. Herriko tikiendako ere txokolatada eta sorpresa antolatua izanen da Karretero ostatuan.



Gazteak 2023ko inauterietan.

Astelehenean, betiko ibilbidea mantenduko dute gazteek: Leorlas auzoa, Alkerdi eta Larrainta musikaz alaituko dituzte. Gaztetxoek ere astelehena betiko gisan mantenduko dute, Dantxarinea, Landibar, Telleria, Iribere eta Leorlasetik pasatuz.

Asteartean, azkenik, hemen ere aldatetekin, Dantxarineko bentak bisitatuak dituzte gazteek mozorro bikainak jauntziz, aurtengo gaiarekin, kolore gorria, imaginazioa landuz. Ihauteak finitzeko, bazkari eder bat egiten dute Zubiondoa bentan. Bazkaria herritar guzietatik edekia egonen da eta apuntatzeko Montxo ostatuan izena eman beharko da.

San Anton eguna argirik gabe hasi zen haizearengatik

San Anton eguna ez zen nahi bezala hasi Urdazubin. Gau guztian haize bortitzak herria mugitu zuen eta, goizeko sei orak aldean argia joan zen herri osoan. Problema atzeman ondotik, hura konpondu eta zortziak alderako berriz ere herria normaltasunez martxan zegoen. Nekazariak astia izan zuten, beraz, beraien lanak egin eta gero, haien egunak gozatzeko! Honela, elizan meza aditu ondotik, hemeziti lagun bildu ziren, giro ederrean Otsondo ostatuan egindako bazkarian.

Xaretako Korrika Batzordearen bilera otsailaren 16an

Korrikak, Euskal Herri guztia gurutzatzen duen ekimenak izanen du Xaretan ere presentzia. Joan diren urteetako edizioetan bezala, Xaretako Korrika Batzordea sortu da oraingoan ere. Lehen bilera buruturik, Urdazubiko herria kilometroak erosteko lanetan ari da jadanik eta Korrika kulturala antolatzeko ere prest daude xaretarrak. Hortaz, honetaz gehiago jakin nahi duenak, hurrengo bileran, otsailaren 16an, ortziraletan, Zugarramurdiko Akelarrean du hitzordua!

Agiantzak egin ditu Sarako herriko kontseiluak

GANEX SARA

Battite Laborde Sarako auzapezak, bere kontseiluarekin, agiantzak egin zituen urtarilaren 26an. 120 bat lagun bildu ziren Lur Berrin.

Stephane Barneixe lehen auantako eman zituen 2023an egindako lanen eta 2024an egitekoak direnen berri. Portutik Añimainerat jendea ibiltzeko bidearen lanen bigarren zatia kasik bukatua da eta eskerrak eman zizkien herriko enplegatu guzietatik. Hil beilalekuak ere badu erreista, ez bakarrik herritarrentzat, auzo herrietatik ere etortzen baitira. Sophie Garbiso, gai sozialetako auantak, jende ainitzi laguntza ematen dietela jakinarazi zuen: paperak betetzeko, erretretatuen ateraldiak eta oturuntzak, CCAS elkartearen laguntzak eta aurten ere horrela segituko dute. Apeztexean bortz etxebizitza sozial egiten dituzte. Patxi Bazurko Jauregi kulturako auantak elkarteak eskertu zituen, urtean 700 bat aitada egin baitituzte errugbian, eskubaloian eta, partikulazki, pilotan. Maritxu Arizkorreta eskoletako auantak aipatu zuenez 260 ikasle badira herriko hiru eskolatan. Aisialdi zentroan ere gero eta haur gehiago dira eta ongi koordinatu behar dira, kantinan 150 bat baitira bazkaltzeko. Beñat Zunda sukaldariak erretreta hartuko du apirilaren lehenean eta, beraz, bertze sukaldari baten bila ibilki dira. Carmen Errandonea laborarien auantak adierazi zuen eginahalak egiten dutela laguntza ekartzeko laborariei eta mendiko bideak ongi mantentzeko. Jean Michel Jauregi diruzain auantak kontuak positiboan dituztela jakinarazi zuen, baina martxoan buxeta bozkatu dute eta hor dena emanen da.

VENTA PEIO
GEBAGO EMATEN DITUZU

BARDIN 31780 Bera
BEHOBIÁ 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide
DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 7^a izan ezik

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)



Elgart eta Haroçarene A mailako podiumaren goitiko koskan. UTZITAKOAK

Sarako Izarrako bi bikote Frantziako txapeldun trinketean

A mailan Vincent Elgart eta Arnaud Haroçarenek irabazi zuten finala eta B mailan Julen Mariluzek eta Unai Etxeberrik

GANEX

Frantziako esku huskako binakako trinkete txapelketako finalak jokatu zituzten urtariraren 21ean Arrangoitzen eta nagusien bi finaletan Sarako Izarra pilota elkarteak bikoteak izan ziren txapeldun. A mailan, Sarako Izarrako Vincent Elgart eta Arnaud Haroçarene senperrak 40-29 irabazi zieten Denek Bat taldeko Bixente Lafitte eta Thierry Harismendiri. Euskal Herriko txapelketan ere bi bikote hauen arteko finala jokatu zutela lholdin eta orduan ere saratarrak nagusitu ziren.



Mariluz eta Etxeberri.

B mailan, Julen Mariluzek eta Unai Etxeberrik 40-21 irabazi zieten Urruñako Agirre eta Beneseri. Euskal Herriko 2. mailako txapeldun ere izan ziren Mariluz eta Etxeberri.

Asteburuko egitarau oparoarekin ospatuko dituzte ihauteriak

GANEX

Otsailaren 10ean eta 11n ospatuko dituzte ihauteriak, baina aitzinetik hainbat lan egin dituzte. Azken hiru astelehenetan dantza tailerrak egin dituzte Jose Cazaubonen eskutik Lur Berrin eta Axuri'Artarekin maska eta mozo-

ro tailerrak egiten ari dira otsailaren 3an, 7an eta 10ean Keinu gelan.

Otsailaren 10ean, larunbatean 14:00etan Sarako gazteak etxez etxe ibiliko dira. Axuri'Arten Sorginen salda presatuko dute (Xamango lukainkarekin edo beganoa). Salda

Erretretan direnentzat tripotx bazkaria otsailaren 17an lezeko ostatuan

GANEX

Herriko kontseiluak aurten ere tripotx bazkaria eskaintzen du erretretan diren guzientzat. Otsailaren 17an, larunbatez, 12:30ean. izanen da bazkaria lezeko ostatuan. Bazkaldu baino lehen, lezetako bisita bat antolatua da, 11:00etan. nahi

dutenentzat. Milesker zuen izenak emateagatik Herriko Etxean, 05 59 54 20 28 telefonon, otsailaren 9a aitzin, erranez bisita eginen duzuen ala ez. Autorik gabe direnentako ere Herriko Etxeak bilketa bat proposatu du. Izena ematean jakinarazi behar da.



ARGAZKIJABEAXXX

Ornoz eta Goienetxe elitean lehian

Eskuz binakako Master Laboral Kutxa txapelketako elite mailan jokatu dute lehen aldiz Ania Oronoz eta Marie Goienetxe herritarrek. Bi partidak galdu dituzte (argazkian lehena, Arraiza eta Arrillagaren kontra) eta txapelketatik kanpo gelditu dira, baina esperientzia polita izan da.

hori lortuko dute otsailaren 6tik 10era egiten ari dien bazkari bilketa bati esker. **Otsailaren 11n**, igandean, 11:00etatik goiti ihauteriak plazan: dantzak, auzia... Bazkaria ez da Lur berrin iraganen. Plazan salgai izanen dira: Taloak (Errugbiak), Salda (Axuri'Arte) eta bizkotxak (Sarako eskolak).

Ondotik, ihauteri erakusketak ikusgai ezarriko dute otsailaren 13tik 25era lezeetan.

'Aldaxka pozoituak' komikia ikusgai herriko etxean

Aldaxka pozoituak da Aritz Ibarraren lan berria. Udalbiltzaren Geuretik Sortuak proiektuaren baitan Urruñan, Saran, Beran eta Lesakan egon zen egilea. Komikiaren erakusketak ikusgai dago aste honetan, otsailaren 5etik 9ra Sarako Herriko etxean.

Agiantzak egin ditu Bernard Elhorga auzapezak

Azken hamar hilabetetako bilana aipagai izan da eta elkartetako kideak eta herritar andana bildu ziren

JL BESSONART

Bernard Elhorga jaun merak agiantzak egin ditu herriko etxean. Hitzaldia aitzin, film labur bat erakutsia izan da, hemen argazki andana bat agertzen ziren martxotikhunat iragan diren ekitaldien inguruan. Claude Lecomte ongi ezagunak eta Marie Olivet herriko komunikazio ardura-dunak eraman dute lan hori. Bernard Elhorgaren inguruan herriko kontseilariak, publikoan elkarte kide batzuk eta herritar andana bildu zen. Azken hamar hilabetetako bilana aipagai izan da. Mintzaldia euskaraz bururatu du xede honekin, Senpere izan dadin erakargarria, alaia, solidarioa eta zuzena. Azkenik eskertu ditu kontseilari guziak beren inplikazioagatik.

Otsaileko kultur eskaintzak Larrekon

Otsailaren 11n, igandean 17:00etan, antzerkia *une Forêt* izenburuarekin, bereziki publiko gazte bati bideratua. Obra honen inspirazioa, Petit Poucet eta Hansel eta Gretel ipui-

netatetik sortua da. Seme alaba eta beren amaren arteko harremanak aipagai. Euskal Elkargoaren ekimenez, erre-serba www.kultura-paysbas-que.fr / 0635162591, baita sarreran bertan ere.

Otsailaren 17an, larunbatean 17:00etan, *Mamuka* dantza ikuskizuna, hurrei itzulia dena, nabaritzen du naturaren hauskortasuna. Pantxika Telleria, Elirale dantza konpainiaren zuzendariak sorturiko obra honek, ikusle gazteak nahi ditu inplikatu espazio naturalen zainketan. Herriko-etxeak antolatuz, erre-serba Euskal Herriko Turismo bulegotan.

Otsailaren 18an, igandean 17:00etan, Jazze emanaldia Alexander Big Bang taldearekin, hogeit hamar musikari osatua kantari ospetsu batekin. Orkestrak giro atsegina, festazalea eta dantzaria eskaintzen du, jazz zaleak liluratzen dituena, profanoak bezala. Senperereko Kultur eta Ondare elkarte, Herriko-etxearekin dira antolatzaileak. Erre-serba Euskal Herriko Turismo bulegoetan.

Olinpiadetako suaren eramaile izanen da Jean Michel Larque herritarra

JL BESSONART

Jakin berri dugu, Jean Michel Larque herritarrak, olinpiar suaren garraiatzeko ohore handia ukanen duela ekainaren 22an Saint Etienne hirian. Nahiz biarnesa sortzez, aspal-di huntan Senperen du bere egoitza. Oroitzekoa da honen

ibilbide oparoa, bereziki futbolarekin, 1970. hamarkadan, Saint Etienne eta Frantziako ekipoan. Bertzeen artean, 1975-76ko Europako Txapelaldun Kopako finala Bayern Munich taldearen kontra galdu zuen Sain Etienne taldeko kapitain izan zen Larque.



Haroçarenek eta Irubetagoienak finala galdu zuten.

Federazioko eta Euskal Herriko trinkete txapelketetako finaletan galtzaile

JL BESSONART

Federazioko finalean, gazteen mailan esku-huska Arangoitzeko trinketean, partida borrokatu baten ondoren, Senperereko SPUCeko bikoteak (Gabi Haroçarene eta Estebe Irubetagoiena) 3-40 galdu dute Ostibarreko Othart/Etxeberri-Borteiry bikotearen kontra. Euskal Herriko kimuen mailako finala, berriz, Zuraideko trinketean jokatu dute SPUCeko Oihan Iziaga eta Jokin Jauregi bikoteak Hazparneko Noizbaiteko bikotearen kontra. Hemen ere galtzaile, 34-40. Bertzalde, Union Basque txapelketaren kondu, *Baline* modalitatean SPUCeko neskek jokatu dituzten borts finaletatik lau irabazi dituzte.

Errugbia

Berrikitan, emaitza biziki ona eskuratu du SPUC errugbiko



Iziaga eta Jauregi ere txapeldunorde.

lehen taldeak Uztaritzeren kontra, Errobi bazterrean 24-20 garaitu baituzte. Honen ondorioa, sailkapenean senpertarren denon aitzinean daudela, denboraldi hastapenetik partida guztiak irabazi ondoan.

Partida hau baino lehen, Uztaritzerekin emaitza partekatua zituzten, oraingoan aldiz, senpertarrek gaintza hartuz geroztik, goragoko mailara igotzea dute helburu irromoa. Suerte on.

Hatsaren Poesia tailerra Larraldean otsailaren 24an

Hatsaren Poesia tailerra egiteko asmoa dute, eta lehenengo otsailaren 24an, larunbatean 16:00etan izanen da Larraldean, *Hitzak eta itzalak* goiburuean. Honako e-mail helbidean izena eman daiteke: olerkibilduma@sfr.fr (Auxtin Zamora).



Larque, 1970eko hamarkadan.



Beti Gazte Euskal Herriko zazpi txapelak irabazita doa Suediako mundialera, sasoiu beterik. AITOR AROTZENA

Euskal Herrian dena irabazita mundialera prest doa Beti Gazte

Lehen aldiz Euskal Herriko sokatira txapel guztiak jantzi ditu eta otsailaren 8tik 11a munduko txapelketan izanen da Suedian

AITOR AROTZENA LESAKA
Ez bat eta ez bi. Zazpi kategorietan banatuta jokatzeko dena Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa eta zazpiak (gizonezkoen 680, 640, 600 eta 560 kilokoak, emakumeen 540 eta 500 kilokoak eta mistoa) irabazi ditu aurten Beti Gaztek, historian lehen aldiz. Marka hau lortzen duen lehen taldea da. Azken txapelak urtarrilaren 27an jantzi zituen Pobesen (Araban), pisu arinenetan: emakumeen 500 kiloko kategorian eta gizonezkoen 560 kilotan, tiraldi guztiak irabazita. Aipatzekoa da Amaiurko emakumeak hirugarren izan zirela eta Euskal Herriko podiumera igo zirela lehen aldiz. Emakumeen 500 kiloko finalean, Beti Gazteren ondotik, Ibarra bigarren izan zen eta Amaiur hirugarren. Amaiurko emakumeak Euskal Herriko

podiumera igotzea lortu dute lehen aldiz. Ondotik sailkatu ziren Badaiotz, Txantrea eta Abadiño. Beti Gazteko zortzikote txapeldunean Amaia Leiza, Udane Arbelaitz (Oiarzun), Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Ainhoa Etxegarai (Bera), Maddalen Lopez, Ainhoa Ubiria eta Maria Iantzi (Igantzi) aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzailea eta Karmele Pikabea laguntzaile zutelak. Gizonezkoen 560 kiloko txapelketan ere tiraldi guztiak irabazi zituen Beti Gaztek. Karmelo Mitxelena, Oskar

25 URTE BETE DIRA MUNDIALEAN LEHEN URREA IRABAZI ZUENETIK

Telletxea, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga, Iñigo Altzugarai, Eneko Saldias eta Gerardo Telletxeak tiratu zuten, Paskual Taberna entrenatzaile, eta Mikel Apeztegia laguntzaile zutela. Napurrak bigarren izan zen eta Abadiño hirugarren. Laugarren postua Txantreak eskuratu zuen, bosgarrena Zuraidek eta seigarrena Ibarrak.

Orain mundialera
Behin Euskal Herriko lanak ezin hobe bukatuta, otsailaren 8tik 11ra Suediako Helsinborg-en jokatu den munduko sokatira txapelketarako bidean da Beti Gazte. Klub artekoan ez ezik, nazioartekoan ere Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea ongi irabazia du eta dominen lehian borrokatzeko prest dago. Gainera, aurten 25 urte bete dira gizonezkoen taldeak mundialeko urrezko domina lehen aldiz Irlandan irabazi zuenetik. Iazko marka berdintzea ez dute erraza izanen (klub artekoan bortz domina lortu zituzten, tartean urrea gizonezkoen 560 kiloko txapelketan eta nazioartekoan lau domina, tartean, urrezko domina txapelketa mistoan, Euskal Herriak inoiz lortu duen lehena).

NIRE USTEZ



IRANTZU GOIENETXE
BETI GAZTEKO TIRALARIA

Dena ematera goaz mundialera

Hagitz kontent gaude, lehenengo aldiz parte hartutako 7 kategorietan txapela irabazi dugulako, orain arte inork lortu ez duena. Guretzat ohorea da Munduko txapelketara joatea, eta gainera, Euskal Selektzioarekin tiratu ahal izatea. Orain opari honetaz disfrutatzera goaz, bereziki talde bezala indartzeko gogoz. Zalantzarik gabe, dena emanen dugu, eta lan txukuna egiten saiatuko gara. Baina iazko emaitzak lortzea hagitz zaila da, izugarria izan baitzen. Aurten, gainera, aurrekoan baino talde gehiagok parte hartuko dugu, beraz, lehia handiago izanen da eta tiraldi dexente egin beharko ditugu.

NIRE USTEZ



IÑIGO ALTZUGARAI
BETI GAZTEKO TIRALARIA

Iaz lortu genuen, aurten zergatik ez?

Balorazioa ezin hobea da, zazpi txapel jokoa eta zazpiak irabaztea, hobekiago ezin da. Ongi tiratu izanaren sentsazioarekin, gainera. Aitzineko bi mundialetan bezala, dominen bueltan ibiltzeko helburuarekin goaz Suediara orain. Ekipo polita dugu eta ahalik eta hobekien egiten saiatuko gara. Iazkoa errepikatzea zail izanen da. Urrezko domina bat lortzea hagitz zaila da eta iaz bi irabazi genituen. Zaila izanen dela badakigu, baina iazkoak balio digu posible dela ikusteko eta joan den urtean lortu bagenuen, aurten zergatik ez? Podiumera igotzea lortzen badugu, ahalik eta goitiena, hobekiago!



Aimar Jabalera, enpresa berriko lehen partida irabazi ondotik. MAIALEN ANDRES

Aimar Jabalera irabaziz hasi du Oriamendiko bidea

Doneztebeko aurrelariak, Juanenearekin, irabazi egin zien Goikoetxea V.ari eta Larrañagari urtarrilaren 27an Galarretan

TTIPI-TTAPA

Bizpahiru urtez Euskal Jai Fundazioarekin eta erremonte enpresarekin aritu ondotik, Aimar Jabalera, 22 urteko aurrelari doneztebarrak, Oriamendi enpresarekin debuta egin zuen urtarrilaren 27an Galarretan. Aritz Juanenea saldiastarra bizkartzain zuela

garaipena lortu zuen gainera, Goikoetxea V.aren eta Larrañagaren kontra. Lehenbiziko jokoan kosta egin zitzaion partidaren sartzea Jabalera eta Juanenearekin batera 8-15 galdu zuen. Bigarren hobe ibili zen Malerrekako bikotea eta 15-8 irabazi zuen. Hirugarren joko

erabakigarria berdindua joan zen, baina azkenean 8-7 irabazi zuten Jabalera eta Juaneneak, Galarretara hurbildutako Malerrekako zaleen gozamenerako. Erremontista ez ezik, futbolaria ere bada Jabalera Doneztebe futbol taldean eta 3. mailara igo zen Beti Gazten ere aritu zen.

Aritz Juanenea saldiastarra masters txapelketan

Lehen partidaren ondotik, Kutxabank Masters txapelketako ligaxkan sartzeko partida jokatu zuten Uitziko Azpirozek eta Barrenetxea IV.ak. Ezustea eman zuen Azpirozek eta 23-30 irabazita, Ansa II. arekin eta Aritz Juanenea saldiastarrarekin batera Masters txapelketako ligaxka jokatzeko eskubidea irabazi zuen. Beraz, aurten txapelketa jokatzeari uko egin dion Urrizarik gabe eta ligaxkan sartzeko partida galdu zuen Barrenetxearekin gabe jokatzeko hasi dira Masters txapelketa. Otsailaren 3an jokatzeko zuten Ansa II.aren eta Juanenearen arteko partida. Otsailaren 9an eta 17an jokatu dituzte bertze bi partidak eta hilaren 24an final handia, ligaxkako bi onenen artean.

Umore Ona eta Aurrera ongi hasi dira Espainiako klub artekoan

TTIPI-TTAPA

Ederki hasi dute Espainiako klub arteko pilota txapelketako ibilbidea Goizuetako Umore Onak (joan den urtean igota lortutako lehen mailan) eta Leitzako Aurrerak (bigarren mailan). Hau idazterakoan, hiru jardunaldi jokatu, Umore Ona bigarren da sailkapenean, 11 punturekin (sei partidetatik bost irabazita). Joan den igandean Txukun Lakua liderraren kontra jokatzeko zuten Goizuetan. Bigarren mailan, berriz, urtarrilaren 27an jokatu zuten lehen jardunaldia Aurrerak Portugaleten eta bi partidak irabazi zizkieten leitzarrek Izarra taldekoei. Buruz buru Hegoi Txoperenak 2-1 irabazi zion Egurenari (10-6, 5-10 eta 2-5) eta binaka ere 2-1 irabazi zieten Eñaut Goikoetxeak eta Beñat Santamariak Bilbao eta Madariagari (10-8, 9-10 eta 2-5). Bigarren jardunaldia larunbat honetan jokatzeko zuten Barañaino Lagunak taldearen kontra.



BARREN

Beñat Apezetxea txapeldun Elgoibarren

Beñat Apezetxea goizuetarra txapeldun izan zen urtarrilaren 19an Elgoibarko San Anton torneoko promesa mailako finalean, Oiarpeko Unax Landarekin batera. Txapeldunorde izan ziren elite mailan Antton Apezetxea goizuetarra eta lau eta erdiaren barrenean Goiuri Zabaleta leitzarria.



UTZITAKOA

Iñaki Gonzalez hirugarren Katalunian

Baxi Basajauna taldeko Iñaki Gonzalez Olaizolak indartsu segitzen du eta urtarrileko azken asteburuan jokatuako II. Catalunya Disc Golf Open txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen MP50 kategorian, Jean-Louis Tanghe belgiarraren eta Gianni Ripa alemaniarraren ondotik.

AGENDA

OTSAILAK 8 - 22

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ANTZERKI AROAK KONPAINIA

BERA 'Olagarrua'

Antzerki Aroak konpainiaren eskutik, Geuretik sortuak bekaren bidez sortutako antzezlana.
Kultur etxean, otsailaren 17an, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

SARA

'Aldaxka pozoituak'

Aritz Ibarrenen komikiaren erakusketa.
Herriko etxean, otsailaren 5etik 9ra.

BERA

Pello Ulaziaren eskultura erakusketa

Labiaga ikastolako areto nagusian, otsailaren 17tik martxoaren 24ra, 16:00etatik 20:00etara.

MUSIKA

ELIZONDO

Jeff Espinoza eta Gabi Jogeixen

Txokoto tabernan, otsailaren 8an, 19:30ean.

AMAIUR

Baztan Kantuz

Plazan, otsailaren 18an, 12:00etan.

SOLASALDIAK

ZUGARRAMURDI

Xaretako Korrika Batzordea Akelarrenean, otsailaren 16an.

LEITZA

Leitzako Erdi Aroko dorreen inguruko hitzaldia

Liburu aurkezpenak: 'Leitzako dorreak: Nafarroako istorio bat Erdi Aroko zurgin batek kontatua' Iñaki Sagredorekin eta 'Leitzako dorreak: Gaizkileen galtzada' Garazi Albizuarekin.
Herri Aretoan, otsailaren 22an, 18:00etan.

ELIZONDO

Palestinako gatazkaren klabeak

Lidon Sorianorekin.
Arizkunenean, otsailaren 23an, 19:00etan.

SENPERE

'Hitzak eta itzalak'

Hatsaren Poesia tailerra.
Larraldean, otsailaren 24an, 16:00etan.

IKUSKIZUNAK

IRURITA

'Piztu emakumeON energia!' jarduera

Eidabe elkartearen eskutik.
Gizarte Bilgunean, otsailaren 11n, 12:00etan.

LEITZA

'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzezlana

Kamikaz kolektiboaren eskutik.
Herri Aretoan, otsailaren 11n, 19:00etan.

BERA

'Olagarrua' antzezlana

Antzerki Aroak konpainiaren eskutik.
Kultur etxean, otsailaren 17an, 19:00etan.

LESAKA

'Euskalyptus' antzezlana

Jon Ander Urrestiren eskutik.
Harriondoan, otsailaren 25ean, 18:00etan.

MUS PARTIDAK

LEITZA

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak

Txoko tabernan otsailaren 10ean eta Gaztañagan 17an, 16:00etan.

BERA

Gure Txokoaren Mus txapelketa

Gure Txokoa elkartearen, otsailaren 10ean, 16:00etan.
Izen ematea 15 euro bikoteko.

GAZTELU

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

Ostatuan, otsailaren 16an, 21:00etan.

ARANTZA

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

Ekaitza elkartearen, otsailaren 17an.

EZKURRA

Euskal Herriko Mus
Txapelketako kanporaketa

Ludotekan, otsailaren 18an,
17:00etan.

BERTZELAKOAK

ARESO

Liburutegi ibiltaria

Nazabal eskolan, otsailaren 9an
eta 23an, 12:30etik 14:00etara.

ELIZONDO

Mahai-jokoak

Baztango Liburutegi Publikoan,
otsailaren 9an eta 16an,
arratsalde osoan.

LEITZA

Xakean aritzeko hitzorduak

Liburutegian, otsailaren 12an
eta 19an, 19:00etatik
20:00etara.

GOIZUETA

Liburutegi ibiltaria

Otsailaren 16an, 14:30etik
15:30era.

ARANO

Liburutegi ibiltaria

Otsailaren 16an, 16:00etatik
16:30era.

ARIZKUN

'Nire hitza ez dezala haizeak
eraman' Palestinaren aldeko
mural margoketa

Lamiarrietan, otsailaren 24an,
10:30ean.

NIRE AUKERA

«Damek negua agurtu
eta ongi etorria egiten
diogu udaberriari»

IDOIA ETXENIKE LASTIRI ERRATZUKO DAMA



«38 urteko emakume euskalduna eta irakaslea» da Idoina Etxenike Lastiri erratzuko dama. Kirola egitea du zaletasunik haundiena, eta noski, herriko inauteriak ere gustuko ditu.

Egun bereziak

Erratzuko inauterietan «giro berezia» izaten da; «damek, mozorroek, musikariek eta gerturatzen diren ikusleek sortzen dute berezitasun hau».

Ttikitatik izan ditu gustuko egun horiek: «nire lehendabiziko oroitzapenak gurasoen etxera eskean etorri zirenekoak dira. Gazte pila bat dantzari eta kantari mahai-inguruan, etxeko nagusiekin solas eta solas... arras oroitzapen politak ditut».

Hala ere, «gaur egun ere giro paregabea sumatzen da inauterietan». Astearte du egunik gustukoena; «arratsaldeko desfilea, damak ateratzen garen tarteak». Izan ere, duela 13 urte hasi zen Etxenike damaz ateratzen, «eta geroztik, haurdun egon naizenetan bakarrik huts egin dut».

Aspaldiko tradizioa

Inauteria «aspaldiko ohitura» dela azaldu du; «erromatarren garaiaren aitzineatik ospatzen ziren, neguko solstizioan. Gure lurraldean inauteriak sinbologiaz beteak daude, eta horiek erranahi bat dute. Bi zatitan banatzen dira: beltza eta zuria. Beltza iluntasunaren adierazpena da, eta neguko gau luzeei egiten die erreferentzia. Hau otsoek, hartzek eta azeriek adierazten dute. Alderdi zuria, berriz, udaberriaren eta biziberritzearen adierazpena da».

Erratzuren kasuan, «damak dauzkan herri bakarra da. Zuri eta gorri jantzita ateratzen gara, garbitasuna adieraziz, eta zapi handi eta koloretsuak paratzen ditugu bizi berria datorrela adierazteko». Ttunturruek,

«URTETIK URTERA
JENDE GEHIAGO
ETORTZEN DA
DESFILELAT»

berriz, «kolore aunitz dituzte, udaberriko koloreak adierazi nahiean».

Inauteri egunak «dantzan, jaten eta edaten pasatzen ditugu, nahasmen batean. Damek, berriz, ordena adierazi nahi dute. Bi lerro zuzen egiten ditugu eta zanbonba soinuak erritmo berean jotzen ditugu, udaberriari ongietorria eginez eta neguaren iluntasuna agurtuz». Beraz, «ez da kasualitatea horrela beztitzea eta doinu eta erritmo horretan jotzea, bere azalpena baitu».

Ohitura berriak

Gaur egun asteartean ateratzen da desfilea, «baina duela urte batzuk ez zen horrela izaten. Lehen astelehenetan jotzen zituzten zanbonbak, etxek etxe eskean gizonetakoak ibiltzen zirenean».

Astearte aitzineko larunbat arratsaldean entsegu egiten dute, «erritmoa eta golpeak errepasatzeko», eta urtero frontoitik abiatzen da desfilea 17:30ean. «Herrian barna ibiltzen gara zanbonba jotzen eta hainbat lekutan geldialdiak egin ondok, 20:30ean frontoian ematen diogu akabaila desfileari». Jendearen interesa piztu duen ekitaldia da; «jende aunitz hurbiltzen da ikustera, urtetik urtera gehiago, erranen nuke».

Ikustera ez ezik, zanbonba jotzera geroz eta herritar gehiago animatzen dira; «azken urteetan gorakada izan du, eta haur eta gazteak ere animatzen hasiak dira. Joan den urtean 21 lagun elkartu ginen».

Aitortu duenez, «niretako besta onenatarikoak dira Erratzuko inauteriak, eta gonbidapena luzatu nahiko nuke astearteko desfilea ikustera etortzeko, merezi baitu».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Elizondo inguruan etxea edo pisua errentan hartu nahi dute. ☎622 40 21 95.

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan 77m²ko pisua salgai, 3. solairua. Hiru logela eta komun batekin. Kanpoko aldera ematen du, argitsua. Igogailurik gabe. 145.000€. ☎616 38 28 49.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTZEKO

DONEZTEBE. Autoa uzteko garajea errentan hartu nahi dute. ☎658 01 50 80.

LANA

ESKAINTZAK

LESAKA. Lindurrenbordea sagardotegian asteburuetan lan egiteko zerbitzari euskalduna behar dute. ☎948 63 72 12.

BERA. Errekalde ostatuan zerbitzaria behar dute ortzirale eta larunbatetan aritzeko. Interesatuak idatzi errekaldeostatu@hotmail.com helbidera.

IGANTZI. Irrisarrilanden martxoan hasita urte osorako zerbitzaria behar dute. Lanaldi osoan. Zerbitzari lanetan esperientzia izatea, gida baimena izatea eta beste hizkuntzak jakitea kontuan hartuko da. Bezeroen arreta, mahai eta erreserben kudeaketa, inbentarioan eta stockean laguntzea, eta kaxaren kudeaketa izanen dira batik bat zereginak. CVA bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

IGANTZI. Irrisarrilanden martxotik azarora aritzeko monitore bila. Lanaldi osoan. Abentura parkeko instalazioetan lan egiteko, hainbat adinetako taldeekin aritzeko eta mendi ibilaldiak gidatzeko aukera. Gida baimena izatea kontuan hartuko da. CV-a bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

URDAZUBI. Fagoa etxean, ekainetik irailera lanaldi osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Deitu edo idatzi. ☎600 83 84 48 edo anna@fagoa.eus.

SUNBILLA. Espelosen Eraikuntzak enpresak langileak behar ditu. ☎619 41 69 59.

IGANTZI. Irrisarrilanden martxotik azarora garbiketa lanetan aritzeko langile bila. Lanaldi osoan. Logelen, komunen, igogailuen, pasilloen eta

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

beste eremuen garbiketa egiteko. Gida baimena izatea kontuan hartuko da. CV-a bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

ESKARIAK

Neska gaztea arratsalde txakurrak zaintzeko prest. ☎682 45 33 71.

Bezeroarentzako arreta eskaintzen duten banaketa enpresetako agente lanean esperientzia duena lan bila. ☎624 50 27 31 / 624 16 97 18.

Neska bat zaintza lanetan ariko litzateke, interna edo orduka. Langilea, arduratsua eta erreferentzia onekin. ☎604 38 95 31.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Zakurkume emeak oparitzeko. Ama Border Collie da. ☎690 15 46 44.

Bi oilar gazte oparitzeko. Euskal oilo marradun arrazakoak. Hagitz politik. ☎677 70 60 32 / 628 99 65 41.

SALGAI



2 urteko txerria ahardia salgai. ☎639 85 89 05

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

BERA. Volkswagen auto baten giltzak aurkitu dituzte Santa Barbara mendian, Meakako lepotik hurbil. ☎665 75 27 24.



BERA. Telefonika inguruan giltza aurkitu dute. Galdu duenak dei dezala TTIPI-TTAPARA. ☎948 63 54 58.



BERA. Urtarrilaren 7an Illekueta auzoan aurkitu dituzte, belar tartean. ☎646 28 03 96.

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

MOTORRAK

SALGAI



Renault Clio Zen salgai. 2016. urtekoa. Egoera onean eta gutxi erabilia. WhatsApp ere erantzunen da, 16:30etik aurrera. ☎605 02 46 51 (erdaraz) eta 646 28 73 16 (euskaraz).



Suzuki Vitara salgai. 89.000 km. 2006koa. 11.000 €. ☎620 01 12 42.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,19 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 5,02/5,32 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 91,50€

Zerri gizona 1,634 €

Zerramak 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
Ibeltzaren 19tik 26ra bitarteko
prezioak)



**SANTESTEBAN
TAILERRAK**



**RENAULT MEGANE
IV LIMITED TCE 115CV**
Gasolina
2019 urtekoa
52.500 kilometro
AUKERA PAREGABEA!
www.taileressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@taileressantesteban.com


SORTZEAK

- **Laia Sondre**, Sarakoa, urtarilaren 14an.

URTEBETETZEAK



Oian Arregi Mutuberriak otsailaren 2an 7 urte bete ditu. Zorionak Leitz eta Goizuetako familiaren partetik, eta bereziki Xuban bere anaiaren eta Oinatz eta Zuhaitz lehengusuen partez. Zorionak!



Elgorriagako **Anne Leatxe Olazarrek** 2 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak eta aunitz urtez *printzes!* Mila muxu Elgorriagako familiaren partetik!

Herencias y Gestión



Zer gertatzen da senide bat hiltzen denean eta haren zorrak ondasunak baino handiagoak direnean?

Oinordekoek onartu edo uko egin ahal izanen diote herentzia baten onuradun izateari. Kausatzailearen zorrak ondasunak baino handiagoak direla jakinez gero, herentzia onartzeari uko egin ahal izanen zaio. Hartara, herentzia horri dagozkion erantzukizun guztietatik salbuetsita geldituko gara. Herentzia onartu eta gero zorrak agertuko balira, kasu horretan ere, herentzia onar daiteke inbentario-onurarekin, eta, beraz, hasierako onarpenak ez digu inolako arazorik sortuko: onartutakoa itzuli eta ez dugu haren zorren kargu egin beharrik izanen hartzekodunen aitzinean.

Babesten al ditu Nafarroako legeak lehen ezkontzako seme-alabak?

Bertze pertsona batekin ezkontzen den edo bikote egonkorra eratzten duen bikotekideak, aurreko ezkontide edo bikotekide egonkorrekin izandako seme-alabei edo horien ondorengoei utzi beharko die haren-gandik, aurreko ezkontide edo bikotekidearengandik, edozein irabazizko tituluren bidez hartutako ondasun guztien jabetza. Alargunak bere ezkontidearengandik herentzian hartutako ondasunei eragiten die soilik, eta horiei bakarrik. Lege hori (Foru Berriaren 273. artikulua) ez da oraindik sobera aplikatu, denbora guti baitarama indarrean eta ez baita arras ohikoa. Denbora igaro ahala, gehiago aplikatuko da.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasygestion@gmail.com



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com



Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, faktura orriak, talonarioak, mahai-oihalak...

Hainbat material, erabat pertsonalizatuta

ZERBITZUAK

OROIGARRIA

Juan Martin ALZUGUREN MARTIKORENA

Beran, 2024ko urtarrilaren 23an

Izar berri bat biztu duzu zeru gainean, haren argia izanen dugu oroimenean.



ALAIK TALDEA

URTEURRENA

Mikel ORGANBIDE ELIZAGOIEN

Arraiozen, 2022ko otsailaren 15ean

II. URTEURRENA

*Bi urte pasa arren
Joan zinenetik
Beti sentitzen zaitugu
Ondoan gurekin
Zirika izaera
Eta irribarrea tinko
Laxkanberriko izar iheskorra
Bizirik egonen da betiko.*




ZURE FAMILIA

HILBERRIAK

- **Jean Bernard Elorga**, Sarakoa, abenduaren 28an, 69 urte zituela.
- **Monique Coppens**, Sarakoa, urtarrilaren 16an, 93 urte zituela.
- **Fermin Lazkano Baraibar**, Leitzakoa, urtarrilaren 16an, 99 urte zituela.
- **Nieves Garrido Etxeberria**, Sarakoa, urtarrilaren 20an, 66 urte zituela.
- **Maria Jimenez Perez**, Lesakakoa, urtarrilaren 21ean, 82 urte zituela.
- **Carmen Olaetxea Albistur**, Lesakakoa, urtarrilaren 22an, 99 urte zituela.
- **Isabel Etxeberria Agerre**, Arraiozkoa, urtarrilaren 22an, 85 urte zituela.
- **Juan Martin Alzuguren Martikorena**, Berakoa, urtarrilaren 23an, 54 urte zituela.
- **Santiago Zapirain Telletxea**, Lesakakoa, urtarrilaren 24an hil zen, 98 urte zituela.
- **Miguel Jose Plaza Alkain**, Lekarozkoa, urtarrilaren 25ean, 80 urte zituela.
- **Josefa Madariaga Matxikote**, Arantzakoa, urtarrilaren 27an, 97 urte zituela.
- **Begoña Plaza Alkain**, Lekarozkoa, urtarrilaren 28an, 86 urte zituela.
- **Jesus Jauregi Arozena**, Almandozkoa, urtarrilaren 28an, 84 urte zituela.
- **Isabel Josefina Millan de Genua**, Beran, urtarrilaren 29an, 89 urte zituela.
- **M^a Jesus Mendiburu Etxeberria**, Azpilkuetakoa, urtarrilaren 29an, 96 urte zituela.
- **M^a Paz Agirre Gogorza**, Leitzakoa, urtarrilaren 29an, 92 urte zituela.
- **Miguel Juanenea Lasarte**, Doneztebekoa, urtarrilaren 30ean, 86 urte zituela.
- **Florentina Altugarai Etxebeste**, Lesakakoa, urtarrilaren 30ean, 88 urte zituela.
- **M^a Sagrario Ansalas Perurena**, Legasakoa, urtarrilaren 31n, 95 urte zituela.

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak, bikoitzak edo sinpleak...
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publikazioak
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

IZARRA
HEMEL, ZURE ONDOAN
ANIMA ETZARREN



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure harra, gure jendea, gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

BB

BAZTAN BIDASOA
Heriotza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3


web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeka

HITZ GEZIDUNAK

	◆ Izena	Egun	Ez emea	Bizkaiko ibaiak	Ertekeria
	Gorotegi, sastegi	Meategiko langilea	H2O	Hitz babes-garri	Kontso-nantza
	Izeria, tamaina				Kontso-nantza
	Baiko igarobideak				Harrapa ezaki
Erabileraz hondatuak	Mehar, argal		Kanpo, landa		Kontso-nante bustia
Tropa, zaku, sabel	Soka		Ja, jada		Fruta mota
			Kontso-nantza	Landare mota	
			Taltoa	Memoria unitate	
Gozuko hermitarra					Nitrogenoa
Gorotza					Garaiak, sasoiak
		Barietateak			
		◆ Deitura			
Latz, zikar			Ameritzoa		Laborarien lanabes
Gure planeta			Bokala		Bokai mehea
		Numer, balma haitzi		Norbait	
		Non atzikiak		Lehenengo letra	
Aitzari apalduna			Kasik		Besta
Ogi egilea			Bokai biribila		Kontso-nantza
		.. egin, jeneriz ase-ase egin		Martipulua	

◆ Jubilotekako dinamizatzaile aranoarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Itoginak. [2] Etxalarko mendia (756 m). [3] Traza, tankera.
- [4] Arkume. [5] Kolore argi.
- [6] Bizkaieraz, hiri. [7] Exkax, gutxi. [8] Gipuzkoako udalerría, Tolosaldean. [9] Baionako ibaia.
- [10] Lurrazpitik azaleratzen den ura, edo ur hori ateratzen den lekua. [11] Iruritako herritar.

ERANTZUNAK



LABIRINTOA


Zein eskiatzaile iritsiko da helmugara?



Marmazkiak: Garbaitza Ubedas (Alumni)

DOMINOAN

Osatu lauki zuriak domino zatiak zentzua izan dezan.



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

























ZATI ENGINAGARRIAK

Zortzi zatitxo hauetatik lau inuditik hartuta daude, eta beste laurak engainagarriak dira, hau da, antza baduten arren, ez dira guztiz berdinak. Bereiz itzazu.



INAUTERIAK

Aldameneko hori oso pertsonaia ezaguna da Uztaritzen (Lapurdi). Inauterietan ateratzen da, eta garai bateko bufoiaren funtzioa du. Bere izena zein den jakin nahi baduzu, bete lauki zuriak marrazkiei begiratu. Azkenik, ertz lodiz nabarmenduta dauden laukietako hizkiak dagokien tokira eraman (erreparatu koloreari).

																				
																				
		B																		

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

846 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Juana M^a Iturria Tellebrea | ELIZONDO
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Juan Jose Maritxalar Zubia | IGANTZI
Ez kexa - Kamiseta bat
Maribi Eulate Etxegia | DONAMARIA
BKZ Abentura - Sarrera bat
Joxe Puerto Martin | ZUBIETA
Okille Tailerra - Eguzkilore bat
Ixabel Alzate Ozkoidi | LESAKA
Salting Iruñea - Bi sarrera
Loli Gorria Gainza | METAUTEN
Martiko - Lote bat
Harkaitz Delgado Tobias | LEITZA
Ibaizabal - Liburu sorta
Gema Sarratea Arozarena | URDAZUBI
Picarona - Hiru liburu
Bernardo Jauregi Urroz | OROÑOZ-MUGAIRI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com




Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

ELIZONDO
www.gilbaundi.eus



Bi sarrera

BARRUTIA 12
www.barrutia12.eus



Lote bat

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

ARKUPE
www.arkupegozologia.com



Lote bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttapi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Liburu bat



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

erein
www.erein.eus